


enfeiu carrean

Deustuko Unibertsitateko Euskal Kultura Mintegia

1990.eko negua

5. zenbakia



Bernardo Atxaga / Xabier Barrutia

Joseba Eskubi / Juan Manuel Etxebarria

Felipe Juaristi / Aitor Ibarrola

Josu Lartategi / Roberto Manjón

Ana Isabel Morales / Joan Otaegi

Ander Ros Kubas / Joseba Santxo

enfeucarrean

© Universidad de Deusto - Apto. 1 - 48080 BILBAO

ISBN: 84-7485-154-8

Depósito legal: BI - 866-1990

Fotocomposición: IPAR, Sdad. Coop. Ltda.

Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 BILBAO

Imprime: Indugráfica, S.A.L.

Biarritz, 14 - 48002 BILBAO

ZUZENDARITZA

Igone Menika
Ana Isabel Morales
Bittor Uraga

ERREDAKZIOA

Matxalen Amas
Ainhoa Basterretxea
Garbiñe Doval
Koldo Jule Garay
Josu Lartategi
Nagore Layuno
Igone Menika
Ana Isabel Morales
Amaia Rekalde

KOLABORATZAILEAK

Bernardo Atxaga
Xabier Barrutia
Joseba Eskubi (irudigilea)
Juan Manuel Etxebarria
Felipe Juaristi
Josu Lartategi
Roberto Manjón
Ana Isabel Morales
Joan Otaegi
Ander Ros Kubas
Joseba Santxo

BATZORDE KONTSEILARIA

Manu Etxebarria
Joan Otaegi
Iñaki Urgarteburu
Bittor Uraga
Jesus Uranga

DISEINUA

Alvaro Sánchez

ARGITALPENA

Deustuko Unibertsitateko
argitalpen Saila

ZABALKUNDEA

ENSEIUCARREAN, Deustuko Unibertsitatea

Ale honetan agertzen diren irudiak Joseba Eskubik egin ditu *Enseiucarrean*-erako bereziki; bihotzez eskertzen diogu.

A U R K I B I D E A

7. AURKIBIDEA. ✚ 9. EDITORIALA. ✚ 11. ATXAGA, Bernardo: «Obabakoak-en gainean». ✚ 33. BARRUTIA, Xabier: «Demokrazia eta manipulazioa». ✚ 45. ETXEBARRIA, J. Manuel: «Zeberio Haraneke galde-bitz, izenorde eta erakusleen deklinabideaz». ✚ 61. JUARISTI, Felipe: «Galiziako eta Kataluinako literatura». ✚ 73. (J.L.: «Lagunaren txerka»). ✚ 75. MANJON, Roberto: «Zenbait gogoeta gastelaniaz egindako nobelaren gainean (1936-1981)». ✚ 85. GARAI, Koldo Jule: «Esan baietz». ✚ 89. MORALES, Ana Isabel: «Sistema semiko ez-linguistikoak Dostoyewsky-ren **Bihotz ahula**-n». ✚ 117. ITURRIMITI: «Oihartzun itogarriak»). ✚ 119. OTAEGI, Juan: «Herri kontalaria». ✚ 131. ROS KUBAS, Ander: «Etimologia koitadu baten ustea egosten». ✚ 135. ROS KUBAS, Ander: «Bonaparte printzearen paper bateko dialektologiaz». ✚ 149. SANTXO, Joseba: «Sarrionaindiaren olerkia aztergai». ✚ 165. SANTXO, Joseba: «Pausalekua».

E D I T O R I A L A



AN ETA LAN IHARDU GENUEN ALKIMISTA GUZTIOK, lo gabeko gau luze eta ekizsuetan. Haizeak lehioetan eragiten zituen danbatekoak eta euriaren negar amaituezina izan ziren gure musika bakarra, tximistaren argia lagun eta babesle geneukalarik. Ez zen alperrikakoa izan, halafede! Liburu horituetako formula ahaztuak errepikatu genituen, osagai egokiak konbinatu, hitz erritualak esan, eta gure espirituen indarrak bat egin genituen alkimista guztiok. ... Ixilaldi bat, eta bapatean, laborategiko hamaika probeta eta alanbikerei zerizkieten kolore guztietako keen artean, hor zegoen —oi mirakulua!— gure ENSEIUCARREAN berria. Eta guk, unatuak, baina pozez gainezka, zure presentziari erreparatu genion orduan. Hor zeunden zu, irakurle, ate erdi irekian begira, gure kriaturari ongi etorria emateko prest. Ez duzu gure Lojia, beraz, utzi, eta ero talde honetako partaide zarenez zu ere, hitzaren eskutik hainbat paraje misteriotsu bisitatzeko gonbitea egitera gatozkizu. Hurrera zaitez, bai, eta ikus itzazu kandelaren argipean gure ENSEIUCARREAN berriak dakarzkigunak.

Hasteko, hemen daukagu Bernardo Atxaga bere obraz, eta bereziki *Obabakoak* liburuaz mintzo. Segi ezazu apur bat aurrerago, eta Ekonomiaren arazo etikoei buruzko errefleksio bat aurkituko duzu, ondoren, eta jauzi batez, M. Etxebarria gidari dugula, Zeberioko hizkerara hurbiltzeko; baina ez zaitez hor geldi, zeren eta aurreraxeago Felipe Juaristik galiziar eta katalandar poesiaz hitz egiten baitigu. Literaturaz ere arituko da ondoren Roberto Manjón, gerra osteko espainiar literaturari buruz egiten duen analisisan. Dostoyewskyk berak ere etorri nahi izan du gure batzar honetara, bere obra bati buruzko hurbilketa baten bitartez. Kritikaren haritik jarraituz, poema baten azterketa semiotikoa datorkigu gero, eta berehala, hurrengo orrialdera daraman zubia zeharkatu bezain laster, «Orixe» kontalariaz mintzo zaigu Jon Otaegi. Azkenik, berriro linguistikaren arlora itzulirik, etimolojiaren sekretu izkutuetan barrena eramango gaitu Ander Rosek, bai eta —gure abentura erabatekoa izan dadin— Bonaparte Printzearen zenbait idazki aztertu ere. Ez, pentsa, bestalde, sorkuntza lanak albora utzi ditugunik: hor dituzu, izan ere, han-hemenka tartekatu ditugun lasai lasai dastatzeko poema eta irudiak.

Zure begiak alde batetik bestera ibili dira orri horixketan zehar egin dugun gain-gainetiko begiratu honetan; orain ez dizugu trabarik egin nahi, eta beraz, zure eskuetan uzten dugu ENSEIUCARREAN berri hau. Bihoa-kizu, bide batez, ale honetan gure Alkimia bataioa izan dugun guztion agurra. Etorri berriak gara, baina gure tunikaren xuritasunak ez ditu moteltzen gure ilusioa eta lan egiteko gogoia. Ez ahaztu, bestalde, gure laborategiko ateak zabal zabalik daukazula zure ikerlan, errezeta, formula eta konju-roak jasotzeko, bai eta zure kririka eta aholku guztiak entzuteko ere.

Zatozte, bada, etorri guztiok, aurrera! Baina sartu orduko, zilegi bekigu —aurki zenitzaketen akatsak aitzaki bidez garbitu nahian edo— aldizkari honen izen esanguratsua gogotara ekartea. Izan ere, Axular gure maisu zaharrak aspaldi esan zuenez: «Ceren enseiucarrean becala aguiten diren obréc eta enseiuec, cenbait hutz eta falta içanagatic ere, badirudi ece, ceren lehenac diren barccaquiçun direla.»





OBABAKOAK-EN GAINEAN

BERNARDO ATXAGA (*1989.eko Abenduaren
19an Deustun emandako hitzaldia.*)

*BUENO, EGUNON GUZTIEI, ESATEN DU ESAERAK
gaua gauekoentzat dala eta eguna egunekoentzat eta ni, inongoa baldin
banaiz, gauekoa nauzue; eta ez da nere obitura sekula izan goizean inon
hitz egitea. Orduan, gauzak hola eta holako egoera larri batean nagoenez
gero, egia esan, asko estimatuko nuke nik hasieran esango dedanaz geroz
zuek ere zerbait lagunduko bazenute. Inolako galderarik, inolako komenta-
riorik balego, ausardi hori izatea —beti behar izaten da, are eta gehiago ha-
lako areto nagusitan— ba, ausardi hori pixka bat izatea eta zuen eritzia ere
azaltzea asko estimatuko nuke.*

Ez da behin ere xamurra nork bereaz hitz egitea, ez zait iruditzen,
are eta gutxiago hogeituz geroz, zergaitik hori ere esan behar det, nik
uste gutxi gora behera nere bataioa idazle bezela eta hizlari bezela ere,
duela hogeituz bat urte izan nuela areto honetan bertan. Orduan zuek pentsa
hogeituz zenbat esan daitezkeen, zenbat gauza zuzen eta zenbat gauza
oker. Eta hainbeste denbora pasata dagoela, ba... ez dakit ze berri edo esan
dezakedan zuen aurrean.

Nik uste idazteko inolako xehetasunik baldin badet, nere lanak ino-
lako era berezirik baldin badu, horixe bera dala: mantxotasuna. Nik oso

mantxa idazten det, horregatikan hogeï urte hauetan beste ezer egin ez eta bost liburu bakan batzu baizik ez ditut atera. Orduan mantxotasun horrek, nik uste eragina baduela, eragin egiten diola nere lanari. Behin ezagutu nuen, eta zuek ere ezagutuko duzue, eskultore bat, Mendiburu izenekoa, eta hura —ni artean gazte nintzen oso— eta hura beti ikusten nuen enbor handi batzuk etxera ekartzen basotikan, eta hark ekartzen zituen enborrak eta, eguna joan eta eguna etorri, urtea joan eta urtea etorri, eta enbor hark bere etxean jarraitzen zuen. Bazirudien Mendiburu ezkondua zegoela bere egurrekin. Eta behin basotikan zuhaitz enbor bat etxera ekartzen zuenean, urte askotako zala, hamar urte pasa eta orduan berriro ateratzen zuen kalera. Jakina, ateratzen zuen kalera eskultura bihurturik. Nik galdetu nion behin ea zergatikan hainbeste denbora eskultura bat egiten, eta berak erantzun zidan aitortuz modu horretan, denbora askoan enbor hau etxean edukiz, hamar urte horiek enborrak egiten baldin bazituen bere etxean, hartara, egurrak denbora jasotzen zuela. Eman dezagun denbora hauts bat bezelakoa dala, eta hauts hori urtetik urtera aldatu egiten dala kolorez edo pisuz, edo arintasunez, eta denbora hori egiten zala zuhaitz enbor horren gainera, eta hala enborrak —esandakoa, hamar urte haiek pasa eta gero— barne denbora haundia jasotzen zuela. Pixka bat enborrak zirela denboraren untiak.

Ba, nik ere, batzutan nahita eta beste batzutan nahi gabe, nere karpetak, nere izkribuak, denbora unti bihurtu nahi izan ditut. Zer esan nahi du honek praktikan? Ba, honek esan nahi du orain dala hamar urte egin dako ipui bat berri egiten zala bi urtetara, eta gero handikan beste bi urtetara, berriro berri egiten zala eta hola aldatuz joan dala azkenean kaleratua izan dan arte. Hor badago esate baterako, liburuan, *Obabakoak* delako horretan «Klaus Hanhn» izeneko ipui bat eta nik uste det ipui hori aurreneko aldiz 78an edo idatzi nuela, baina ordu horretan bi folio, bi orrialde baizik ez zituen. Gero, jakina, pentsatu egiten dituzu gauza berriak edo sentitu egiten dituzu, edo ikusi egiten dituzu, esperientziak beti lagundu egiten dizu gauzak argitzen, eta orduan eman nion beste idaztanka bat 80an, 82an beste bat hartu zuen. Gero, itzultzeko tenorea suertatu zitzaidan eta itzuli egin nuen, eta itzulpenak ere aldatu egin zuen ipuia, eta azkenean liburuan atera dana, ba, izango da, seguru asko, seguru asko, ipui horrek izan duen hamabigarren bersioa edo horrela, ezta? Eta nik uste det beti horrela jokatu dedala: hori da, denbora asko sartu dedala ipuietan, nere karpetetan. Eta besteren ezean —eta beharbada ezer berririk esango ez badet ere— ba, nik hola pixka bat kontatuko dizuet nik idazten dedan horretan, nik orain arte idatzitakoaren zenbait ardatz nola joan dan antolatzen. Eta horregatikan aurreneko hitza badagokio nere azkeneko liburuaren izenari berari: hori da, *Obabakoak*; edo zergatik beti erabiltzen dedan, jeografia aitatzerakoan, beti aipatzen dan Obaba.

Ba (askotan entzun izango dezue hau), ba, hau gertatu zan orain dala urte asko, nik orduan nituen 25 urte; gutxiago, 23 urte. Bilbon bizi nintzen hemengo apopilo etxe batean, eta etxe horretako ugazaba andrea Zeanurikoa zan, eta gainera zan Deustuko karamelu saltzailea. Ni bere etxean egoten nintzen apopilo, esan dedan bezela, eta halako batean magnetofoi bat erosi nuen eta, probatzearren edo, esan nion andre horri, alegia, zerbait kanta zezala. Nik espero nuen berak halako kanta arrunten bat edo ezagunen bat kantatuko zidala; eta hor non andre hori hasi zan gero *Etiopian* atera nuen sehaska kanta bat botatzen. Eta esan zidan, hasi zan kantatzen, esan nahi det:

«Obabatxue, obabatxue
obabatxue, beilegi
sein honek aite diruri
ikisiko dau dantzan ondotxu
aitegana emon baledi.»

Gero:

«Joxe Manuel, Joxe Manuel (Joxe Manuel bere semea zan)
Joxe Manuel doien orduen
zaldi urdinen gainean
beste hainbeste mile gehiago
joango dire atzean.»

Gauzak hola, ikusi nuen bapatean bi egia desberdin: bata zein urria dan Euskal Herriak eduki duen ...orain esaten det «erakundea», baina esan nezake zein ttikia eta eskaxa izan dan euskaldunok izan degun jasotzeko joera eta untzia, ezen kanta hau, Deustun bizirik zegoena ez baitzan inongo liburutan azaltzen, ezta? Hori pentsaezina izango litzateke beste edozein kulturatan, pentsaezina aurkitzea Almendralejo batean, esate baterako, kanta bat, andre batek kantatua eta kanta hori, tradizionala, ez egotea liburuetan. Baina konturatu nintzan hemen gauzak ez zirala berdin, eta gerta zitekeela sehaska kanta bat Deustuko andre batek jakitea eta liburuetan ez ezagutzea, ze, sehaska kanta hau ez zan azaltzen. Horretaz gain konturatu nintzan «obabatxu» zer hori, umeari hots egiteko modu hori, horrek adierazten zuela alfabetuaren lehengo letra ez zala *a* delakoa, baizik eta *b* delakoa. Hori da, haur guztiek, kulturara sortzen direnean, kulturara irteten direnean, ez dutela *a* bat ahoskatzen, baizik eta *b*; eta horregatikan, euskeraz «obabatxu» bezela, erderaz esaten dutela *bebé*, edo inglesetik esaten dutela *baby* edo italianoek esaten dutela *bambino*. Eta jeneralean haur garaiko gauza guztiak *b* letraz ahoskatzen direla, eta beraz, horregatikan *b* letra dala gure kulturaren lehenengo letra. Ba nola, nik nere asmo batzuren artean hasierako mundu

batetaz hitz egin nahi nuen, hori da, ahaztutako mundu batetaz, nik alde batera jaso egin nahi nuen mundu hori, pixka bat juduek egiten duten bezela. Primo Levik esaten du «ez dadila galdu bizitza izan dan ezer». Eta nik ere pentsatzen nuen, Primo Levik bezela, bizitza izandako ezer ez zala galdu behar; eta honengatik, hasierako mundu euskalduna jaso nahi nuelako, zera erabaki nuen: *b* letra eraman behar zuela nere jeografiak, nere lekuak. Eta hortikan sortu zan «Obaba» izeneko herrialdea. Eta hori gertatu zan, esaten nizuen bezela, orain dala 15 urte edo gehiago. Ez dakit...jarraituko det, ura ikusten det hemen... Ez dakit oso nahastu ari naizen edo zuzen edo... Ari naiz pixka bat, hori, esaten denboran nola joan dan liburua egiten, edo nola joan dan liburuan denbora azaltzen, eta ikusten dezue liburuan dagoen elementu bat «Obaba» izena, orain dala 15 urte edo gehiago osatutako zerbait dala. Nik behar nuen orduan *b* bat, *b* letra izenean, eta hortikan «Obaba».

Ez dakit, hola hotz-hotzean hainbeste gauza esatea ... Nik uste det Euskal Herrian eta holako herrialdeetan literaturak daukan arriskurik handiena erruralismo dalako hori dala. Eta ez hori, nik uste, euskaldunok mundu errural batean bizi garelako, zeren, nik uste, gaur egun Euskal Herriak ez duela ezer erruraletik, ezta nere jaioterriak berak ere; nere jaioterriak mila bizilagun ditu, baina badauka autobus bat *urbano* izena duena. Orduan, uste det Euskal Herrian ez dagoela inolako erruraltasunik, baina, hala ere, hesparru ttikiko kultura gehienetan gertatu dan bezela, hemen ere joera izan da erruralismoaren aldekoa. Gainera, kanpoan ere, kanpoko irakurleak beti espero dute euskaldunetaz, pixka bat artzaiak espero dituzte, edo nekazariak edo ehiztariak; esan nahi det, beti espero dituzte mundu errural horrekin lotutako pertsonaiak. Eta nik ez nuen halakorik nahi, eta zerbait asmatu beharra neukala iruditzen zitzaidan. Orduan konturatu nintzan —irakurri nuelako, alegia— konturatu nintzan mundua ez dala zertan berezi behar *mundo urbano-a* eta *mundu errural-a* esanaz; ez dala hori munduari buruz egin daitekeen bereizketa bakarra. Mundua bereizi daitekeela baita ere «kultura» eta «baso»a bi aldeak jarritz. Hori da, ez mundu errurala eta urbanoa: baizik eta mundua, baso dana, eta mundua, kultura dana. Eta hau adierazteko adierazi behar det aurrena nola anakoretak, ...istorio bat azaldu beharra daukat ...ez dakit, ez da oso ordenatua ni esaten ari naizena, baina, pixka bat kontu kantari nagoela ...eta nik uste det gauza interesgarria dala ...ba, jakina, garai batean anakoretak edo eremitak mundutikan apartatu nahi zutenean, ba nora jotzen zuten? Jotzen zuten desertura, eta han gordetzen ziren, han pasatzen zituzten penitentziak, han pasatzen zituzten probak, han pasatzen zuten bakardadea, etab. Baita ere, garai batean, Ekialdean batez ere, lapurrak gorde beharra zeukatenean, eta lapurrak bezela beste edozein marjinatuk, ba, bere burua gordetzeko premian zeudenean baita ere desertura alde egiten zuten. Baina Erdi Aroan eta Mendebaldean, munduko gure parte honetan, Ekialdeko eremitak egiten zutena

egin nahi zuten eremitak ezin zuten deserturik aurkitu, hemen ez dago deserturik. Orduan ez zeukaten hemengo eremitek, hemengo lapurrek, hemengo marjinatek, ez zeukaten gordelekurik —Sarrionaindiaren terminoa erabiliz— ...ez zeukaten gordelekurik. Hemengo eremitek, egia esan, ez zeukiten nora joan bere penitentziak eta bere probak pasatzeko. Eta orduan asmatu zuten beste ekstra-espazio bat, asmatu zuten beste leku bat, desertuaren parekoa izango zana; eta hori izan zan —eta horregatik esaten nuen «Obaba»rena, *ba* bat behar nuela— hori izan zan *Basoa*. Erdi Aroan, Mendebaldean, bai marjinateak, gaixoak, desesperatuta bizi ziranak, anakoretak ...uzten zuten kultura, hori da, kultibatua zegoena, soloak, eta uzten zuten mundua —nolabait esateko gaurko terminologian uzten zuten mundua eta erretiratzen ziran basora, eta horregatik mundu guztian —nik uste det, ez dakit seguru, baina— kultura gehienetan bereizi egiten da «baso» hitza, eta erderaz esaten dute «bosque», eta esaten dute «selva», eta euskeraz esaten degu «baso», baina ere «basamortu»a. «Basamortu» da hemen aipatu de dan aldaketa hau hobekien isladatzen duen hitza, ze «basamortu»ak ez du esan nahi anakoretak edo lapurrak joaten zirala garai batean baso izandako leku mortu batetara, gutxiagorik ere, baizik eta gertatzen zan bere buruan lotu egiten zirala basoa, arbolak etab. eta desertua, bere buruan behar zuten desertua. Kontua da orduan Erdi Arotikan aurrera bereizketa hori ere izan zala, hasi zirala bereizten basoa eta kultura lehenago mundu errurala eta mundu urbanoa bezela. Eta nik pentsatu nuen, hau irakurritakoan, behar-daba, «Obaba»z hitz egiteko, hasierako mundu hartaz hitz egiteko, oso komenentzikoa zitzaidala bigarren bereizketa hori, eta hitz egingo nuela nere istorietaz basoko istoriak balira bezela. Eta horregatik, hortikan sortu zitzaidan ...ez dakit ...animalietaz hitz egiteko aukera, edo beste hainbat istorio. Zuek pentsa ezazue, nik esaten dedana, hori da: ez hartzea mundua errural/urbanoa, baizik eta baso eta kultura, hori oso ...ez dakit nola esan, ...arrunta dala, ez dala nik egindako gauza bakarrik. Esate baterako, tradiziozko haur ipuinak, hori da, «Txano Gorritxu» dalakoa, edo «Marixor», edo «Edurra bezain zuri» eta ipui horiek ez direla inola ere ipui erruralak, direla guztiak basoko ipuiak. Eta horrek eman zion liburuari beste, nik esango nuke, beste mintz bat, beste azal bat aurreko azalaren gainean. Horrekin jada bi azal esplikatatu ditut. Ez dakit ...orain arte esandakoaz ...beharbada oso nahastu ari naiz, beharbada ...Orain arte nere asmoa da zuek aspertu arte azaletaz hitz egitea, hori da: hitz egin det aurreneko azalaz, nondik sortu zan «Obaba»; gero esplikatatu det «Obaba» hori basoko bidetikan hartu nuela, hori da, basoan aurkitu nuela, eta ez mundu erruralean, bigarren azala, alegia. Beste azal batzuk ere badira, baina, beharbada, aurrera joan aurretikan ez dakit inork zerbait komentatu nahiko duen edo ...ez dakit ...Bai, nik hau esaten nuen, ze, azken baten, liburuaren zera baldin bada ...eta nork bere obraz hitz egitea edo bere gauzetaz ...ez dakit oso zilegi

dan edo ...ez dakit oso ona dan ...Baina, tira, ez dakit, hasiko naiz hirugarren azalarekin ...ea holan sortzen dan zerbait.

Jakina ...zuk egin ditzakezu nik orain egiten ditudan burutazioak, baina gero jartzen zara idazten, jartzen zara mahaiaren aurrean eta, hala eta guztiz ere, ez zaizkizu ipuiak aurrera ateratzen. Idazten dezu, eta idazten dezuna ikusten dezu ez dala baliozkoa, edo ez zaizula batere gogoko. Eta niri behin eta berriro hori gertatzen zitzaidan; hasten nintzala, basoa go-goan hartu, eta aipatutako beste istorio horiek hartu ...eta hala eta guztiz ere ez zitzaizkidala aurrera ateratzen. Eta orduan konturatu nintzan —ze, ordura arte, nahiz eta burutazio horiek ibili, nik ez nuen «Obaba» herrialde imajinario bezela erabiltzen nere liburuetan— ...orduan hirugarren azala bezela izan zan aurreko burutazio horiek pixka bat gauzatu eta «Obaba» herrialde imajinarioa sortzea.

Ez dakit ...hau askotan esan det eta beharbada ...Nik uste det literaturan, edozein idazlek, liburu bat egiten duen edonork, sinesgarritasuna duela bere aurreneko arazoa. Jakina, nik esan nahi det hemen sinesgarritasun literarioa, ez da errealitatean erabiltzen den sinesgarritasunaren konzeptu berdina. Errealitatean inor ikusten baldin badegu hegaka ez degu sinesgarritzat jotzen —nahiz eta ikusi—, eta liburuetan, berriz, autore batek esaten baldin badu halako herrialdetan denak hegaldaka zebiltzala, guk sinestu egiten degu, hori konbentzio literarioaren barruan baitago. Orduan badagokio sinesgarritasun bat literaturari, edozein idazlek lortu behar duena. Eta, jakina, gurea bezelako hizkuntza batekin, hori da, oso hizkuntza mugatu batekin, mugatua jeografikoki esan nahi det, errealitate pusketa ttiki bat baizik ez duela betetzen; orduan, gurea bezelako (jeografia aldetikan ere) herri ttiki batekin, sinesgarritasuna oso zaila da edozein idazlerentzat. Adibide batekin esango det, eta beste batean ere jarri det: zuek irakurtzen baldin badezue Raymond Carverren ipui bat, eta ipui horretan azaltzen da emakume bat, pistola hartu eta gizon bat belauniko jartzen duena; andre horrek amenazu egiten dio, eta gizona lokatzeran zikinduarazi eta gero, esaten dio: «Zerri bat haiz». Ez du hiltzen, baina han humilatu egin du. Andre hori, gero, emakume hori, joan egiten da estazio batetara, tren geltoki batetara joaten da. Tren geltoki horretan ez da trenik pasatzen eta andre hori dago bera bakarrikan eserita, pistola dauka bolsan, eta hor dago zai, besterik gabe, lasai-lasai. Halako batean iristen dira estazio horretara andre eta gizon bat, eta gizona doa erabat txuriz jantzita, zaharra da, 70 urte hola ditu; txuriz jantzita dihoa, eta hanka hutsik, hori da, dauka: jaka txuria, korbata txuria, alkandora txuria, galtza txuriak eta ez dauka galtzerdi txuririk, baina ez dauka zapatarik, ez dauka oinetakorik. Andrea, berriz, gaztea da eta jerse loreduna daramaki, erdi italianozen erdi ingelesez hitz egiten du etab. Eta ipui osoa ez da bikote horrek eta andre horrek daukaten sasielkarrizketa baino. Ba, nik ipui hau irakurri nuenean pentsatu nuen ipui hori

nik sinestu egiten nuela Ameriketari gertatzen zelako, hori da, Carverrek ipui hori Ameriketari kokatzen zuelako. Ipui hori bera kokatua egon izatera, ez det esaten bakarrik Euskal Herriari, baita Madrilen bertan ere, nik ez nuke erabat sinestuko. Jakina, Euskal Herriaren kasuan, nik halako estazio bat jartzen baldin badet, seguru denok ezagutzen ditugu Euskal Herriko estazio guztiak, eta ez det imajinatzen inon halako gizon txuriz jantzitakoa, hanka hutsik dihoana eta andra italiar batekin etab.

Ez dakit, ez zait iruditzen inon halakorik gerta daitekeenik, eta nik pentsatu nuen ez nuela inoiz sinestuko halako eszena bat, halako ipui bat, Euskal Herriari kokatua egotera, ezta Madrilen kokatua egotera ere. Hala, bururatu zitzaidan Ameriketari funtzionatzen zuela sinesgarritasunari buruz —ez dakit oso nahastu ari naizen—, nik esaten diot «infinitu birtual» bati esker, Amerika itxurazko infinitu bat zalako. Guk pentsatzen degulako Amerikari milaka eta milaka estazio daudela, eta Ameriketari milaka eta milaka bikote bitxi daudela, eta milaka pistola andreen polsatari etab. Eta orduan, nola pentsatzen bainuen han —hitz gutxitari esateko— edozein gauza gerta litekeela, ba, orduan, era berean guk sinesten dugula Carverrek jartzen digun ipuia. Baudelairek esaten zuen nahikoa zala infinituari ideia bat egiteko itsasoaren kilometro bat ikustea. Guk ikusten degu itsasoaren kilometro bat eta esaten degu: infinitu horixe da. Kilometro horrek ematen digu ideia, beste infinitu handiarena. Horregatari, nere eritziz, Euskal Herriari errealismoak ezin du inola ere izen horrekin funtzionatu. Esan nahi det: zuk egin nahi baldin badezu kronika, hori da, errealismorik gordinena; zuk egin nahi baldin badezu neonaturalismo bat, eta hala eta guztiz ere, erabili nahi baldin badezu jeografia bezela Euskal Herriari, Bilbo edo hemengo jeografia erreala, nik uste det orduan sekula ez dezula sinesgarritasunik lortuko, sekula ez dezula literaturarik sortuko ...Baina nere kontuari ez zan, kasu horretari, neonaturalismo bat egitea, ez zan kronika edo erreportaje bat egitea, baizik eta beste gauzetari hitz egitea; eta orduan aukeratu nuen, esan nuen: «Obaba» dalako hori, gauza primordialak etab., basoko ipuiak ...bada, gainera jarriko ditut ...gerta daitezela denak «Obaba» izeneko herrialde batean. Inork ez daki —bueno, Euskal Telebistak badirudi baietz—, baino nik uste det Euskal Telebistari gain inork ez dakiela non dagoen «Obaba» hori, noraino dan handi, zein urtetari bizi dan hango jendea ...Eta nola ez dakien hori irakurleak, ba, neretzat «Obaba» da pixka bat infinitu bat bezela. Nik Obabari edozein gauza jar dezaket eta irakurleak sines dezake nik hor jartzen de dan adibide hori Ez dakit oso nahastu ari naizen edo ...ez du inork ezer esaten ...Ez dakit ...zehaztapen gehiegi igual edo ...ez dakit.

Nik uste det horregatari ere Euskal Herriari egiten dan literatura asko, nola ez baituen onartu nahi beharrezkoa dala halako infinitu —sasi, deituko diot «sasi-infinitu»— halako sasi infinitu bat, beharbada leku bat, espazio bat istoriak han kokatzeko, nola ez duen onartu hori, eta nola nahi

дутен lekua bera ere errealtatearen ildotikan edo orpotikan jartzea ...nik uste det horregatikan ez dala Euskal Herrian sortzen literatura errealarik. Eta pixka bat sortu nahi danean segituan sartzen da —eta oso xelebrea da, nik uste det— sartzen da gaztelera, ezta?

Saizarbitoriak egin zuen ahalegin bat, baina poliziek erderaz hitz egiten zuten nobelan bertan. Eta orain dala gutxi, ez dakit ...beste nonbait ikusi det baita ere, beste libururen batean, baita ere egin nahi du neonaturalismoa, edo egin nahi du kronika, eta berriro ere gaztelera azaltzen da, hain zuzen horregatikan: ez daukagulako ...hori da: sinesgarritasunak uko egiten digulako. Hori da, irakurtzen degulako Bilbon kokatutako istoria errealista bat eta kamareroak galdetzen dio: «—Zer behar dezu?», eta irakurle bezela zuk esaten dezu: «Ze zaila dan Bilboko kamarero batek hori esatea, “zer behar dezu?”.» Eta honelako gauza ximple bategatikan eror daiteke mila orrialdetako nobela bat. Orduan esate baterako, uste det, hau, jeografia imaginarioarena dela benetako arazo nagusi bat Euskal Herriko literaturan, ezta? Nik nere moduan soluzionatu det; beste batzuk bere modura soluzionatu beharko dute, baina det uste dala, esaten dan bezela, «conditio sine qua non», ezta? Zuk konturatu zaitezte beste sasi infinitu horietako bat *iragana* dala. Zuk kokatzen baldin badezu istorio bat iraganean ...ba iraganean edozein gauza gerta daitekeela iruditzen zaigu. Zuk istorio bat kokatzen dezu hamargarren mendean eta irakurleak sinesten du hamargarren mendean konta diezaioketuzun gauzarik bitxiena ere. Iragana hori dalako, infinitua dalako.

Etorkizuna da beste infinitu bat baita ere. Zuk edozein gauza kontatzen dezu baldin eta, hori, 2.800.urtea erabiliz, eta irakurleak sinestu egiten du zuk kontatzen dezuna, ezta? Eta, zer esan nahi nizuen ...jeografia aldetikan, ba, seguru asko, zuk kokatzen dezu istoria bat kanpoan, Moskun, eta Moskun errezagoa da gauzak sinestea, hemen bertan kokatuta baino. Eta Moskun poliziek hitz egin dezakete euskeraz, eta Raissa Gorvachov-ek ere hitz egin dezake euskeraz, hori konbentzio literarioaren barruan baitago, ezta? Hori da, azken batean gurea bezalako literatura, nola esango nuke nik, oso egoera larrian dagoen kultura bateko literatura, derrigorrez erabili beharra dauka konbentzio literarioa, literaturak berak bideratzen dizkion gezurrak erabili beharra dauka azken muturreraino. Erabili beharra dauka, baina ezta platerean izpi bat ere utzi gabe. Ez dakit, bueno, nik uste det zeredozer, komentarioren bat edo ...norbaitek egin beharko lukeela, ezta?

GALDERA: majikotasunaren bila, ezta?

B.A. k: —Bueno, nik ...majikotasunaren bila ...ez dakit. Ez dakit. Hemen tranpa asko egiten da «errealitate» esaten zaion hitz horrekin, ezta? Badirudi denok dakigula zer dan «errealitate», eta erabiltzen degu «errealitate», ba, zer esango dizut ba nik ...ba ...«mikrofono» hitza erabiltzen dan bezela, esaten degu «hor dago mikrofonoa» eta era berean esaten degu «hor

dago errealitatea». Eta nik uste det literaturaren eginbeharretako bat dala, hain zuzen, ez onartzea errealitatearen definiziorik, eta esatea: «errealitatea ez da bakarrik begiz ikusten dana, errealitatea ez da bakarrik erreportaiak kontatzen digutena, errealitatea askozaz ere eremu zabalagoa da, eta errealitatean gauza asko kabitzen dira», ezta? Hor garrantzizkoa dana da begirada, ezta?, nik uste det. Orduan, jakina, nik uste dut ...majikoa esaten da, baina horren aurka, edo horren beste aldean dagoena da ...ba nik uste dut erreportajea, ezta? Nik uste det gaur egun ...eta, jakina, gero kazetaritzak halako indarra hartu du ...gaur boterea kazetariak daukate, bistakoa da; eta gaur egun periodistak ja agertu dira eta Thomas Wolfek ere ja hasi du bere gurutzada erreportarien alde eta errealismoaren alde, eta, jakina, zergaitikan da errealagoa Wolfek kontatzen duena, Nueva Yorkeko giro sozialari buruz hemengo Obabako istoriak baino? Ba, dudarik gabe bere periodikoak askozaz indar gehiago daukatelako, eta askozaz ere Nueva Yorkek berak ere; askozaz ere errealitate gehiago daulakako. Errealitate gehiago dauka hari buruz filme gehiago egin direlako, hari buruz notizia gehiago egin direlako. Hori da, errealitatea jaso egiten da horma bat jasotzen dan bezela; hori da, hemen mundu erdia hasiko balitz hitz egiten, ba ...Deustuaz eta Deustun kokatuko balitu bere nobelak eta bere filmak, Deustu bihurtuko litzateke mundu honetako totem bat, dudarik gabe. Bueno, ez dakit badan, e, baina haundiagoa, ezta? Ez, ez ...nik esan nahi dedana da errealitatea ...ez dagoela errealitaterik kanpoan, errealitatea sortu egiten dala, eraiki, egin, jaso, adrilluz adrilu antolatzen dala, ezta? Eta, orduan, jakina, bersio batzuk, erreportari bersioek, ba, indar gehiago dutela beste bersio batzuk baino. Eta erreportariak beharbada beste batzuk egiten dutena esaten dute fikzioa dala, edo majia dala, edo ...baina nik uste dut Errealitate hitz nagusiak hori dena hartzen duela, kabitzen direla errealitatean gauza guztiak.

GALDERA: Zergaitik basoaz hitz egiteko interesa? Zergaitik basoa eta ez kultura?

B.A.k.: Bueno, nik ez det esaten ...jakina, nik uste det kulturaz, hain zuzen hitz egiten dedala liburuaren azken partean, hori da, bapatean Obaba ez duk beste Obaba zahar hori, ez duk basoko Obaba, baizik eta beste Obaba berri bat dek, autoz betea eta literaturaz hitz egiten duen jendeaz betea etab., ezta? Baina nik Euskal Herriari begiratu atzera eta derri gorrez ikusten diat baso bezela. Zergaitikan? Ba, nik uste, oso arrazoi xehe bategaitikan, eta hori duk ez dagoelako Historiarik, ez dagoelako Euskal Historiarik. Jakina, bazegok historia bat, Euskal Herrian gertatu danaz bazuedek liburuak etab., baina ez zegok barne historiarik. Oso gauza ximplea esaten ari naiz. Orain dala gutxi, Gazteluko, Tolosa ondoko herri batean, ba, mutik batek aurkitu ditu bere birraitonaren gutunak, ezta? Aurkitu ditu berrehun gutun; ze hizkuntzatan zeuden gutun haiek? Erderaz. Euskeraz ez

zegok ezer idatzia, ez zegok inolako dokumenturik. Orduan, atzera begiratzerakoan ez baldin badu jendeak, aspaldiko jende horrek, ez baldin badu hitz egin, ez baldin badu bere arrastoa utzi, ez baldin baditu kartak utzi, eta liburuak, eta poemak, ez baldin baditu utzi, atzera begiratzerakoan guk ez diagu ezer ere ikusten. Nik bakarrikan ikusten diat basoa, hori da, ezin diat egin kulturari buruzko ezer, ze ez baitet atzean kulturarik ikusten. Ez zekiat ondo adierazten dedan ...Oso desberdina duk erdaldun batek, ezta?, erdaldun batek begiratzen dik bere etxeko ganbaran eta kutxan aurkitzen dizkik, ba ...eman dezagun bere familiaren ez dakit ze belaunalditako gutunak eta arrastoak, eta oharrak, eta, ez dakit, birraitonak kantatzen zituen koplak etab. Aurkitu zezakek guzti hori, eta aurkitu zitzaie baita ere dokumentuak, baina horrek ez du planteatzen, lehen esaten nuen bezela, sinegarritasunik; hori da, niri erdaldun batek esaten baldin badit «bilatu det nere etxean gutun bat esaten duena...», ba, ez zekiat, edozein gauza, erderaz, nik sinestu egiten ziot. Hik esaten badidak «gutun bat...» ...hik jartzen badek istorio bat hemeretzigarren mendekoa, eta jartzen baldin badidak, ba ...gizon arrunt bat, kaleko gizon bat, beste gizon bati soldaduskan dagoelako, edo Filipinetan gerran dagoelako ...jartzen baldin badidak gutun hori euskeraz, nekez sinestuko diat. Nik kasu bakarra egin diat horrela, «Camilo Lizardi»rekin, baina badaezpada ere jarri nian gizon eskolatua, gizon ...bestela ez litzatekeelako sinestuko, ezta? Uste diat, ez zekiat oso arrazoi garbia dan, baina uste diat hori dala. Eta nik askotan basoaren eta kulturaren oposizio hori egin diat ipuin jakinetan, esate baterako «Post tenebras spero lucem» ipui horretan oso garbia dek maistra dala kultura, zetorrek kultiboak dauden leku batetikan, eta bestetikan dagoela morroi ttiki hori, eta hori dala pixka bat «enfant sauvage» bat, hori dek, ume basati bat, basoko mutil bat, ezta?, eta hor zegok oposizioa ipui horretan bertan. Beste adibide bat. Nik ez diat sekula «baserri» hitza erabiltzen, hori pixka bat izango litzateke mundu erruralean azaltzen dan zerbait, baina basoan ez dago baserririk, basoan daude etxeak...

Ez dakit zer egin behar dedan, segi behar dedan edo ...Ez dakit zer egin. Nik esan dedan bezala, hasieran esan dan bezela, liburuan edo karpetetan hainbeste gauza jarri ditut edo jarri nahi izan ditut, denbora asko eduki ditut karpeta horiek esku artean, eta orduan, hortikan atera danaz, ba, mila gauza konta nitzake, ezta?

Esate baterako, azkeneko azala, edo berriena liburuan da, hain zuzen ere, hirugarren parte. Eta nik uste det hirugarren partean dagoela —hirugarren parteko, ez dakit, erdialdean dago— «Plajiatzeko metodoa eta adibide bat», eta uste dut hori dala liburuaren parte horren muina, ezta? Horri buruz ere hitz egin genezake. Niri iruditzen zait literaturan sekulako aldaketak ematen ari direla, eta geroz eta handiagoak, gainera, eta zerikusi guxti daukala gaurko idazleak hemeretzigarren mendeko idazleekin. Eta uste

dut aldaketa, izugarria, etorri dala batez ere idazleak tradizioarekin daukan harremanaren inguruan, ezta? Nik uste det ba ...gaurko lan egiteko modua ...esaten da ...lehenengo tradizioa zan, lehenago, hemeretzigarren mendean, hainbeste aldiz aipatzen dan tradizio hori, lehenago tradizioa zan. Belaunaldi batek beste belaunaldi bati pasatzen zion, ba, teoria mordo bat, ezta?, teoria eta jakituria mordo bat. Eta belaunaldi batek besteari pasatzen zion, eta horrek hurrengoari, eta pixka bat horrela egiten zan bidea. Klasiko guztiek horrelaxe idatzi dute, ezta? Ciceronek ikasi du idazten, ba, griegoak irakurriz, eta gero, Erdi Aroko idazleak, Europan, ikasi zioten Ciceroni bere teknika, eta gero, ba, ez dakit, Espainiako Urrezko Mendekoei hurrengo mendekoek ikasi zieten, eta horrela ibili zan aurreneko mendeetan ibili zan tradizioaren harreman hori, ezta? Baina gero, zer pasa zan? Zer pasa zan Erromantizismoarekin? Ba, Erromantizismoarekin gertatu zan, ba, puskatu egin zala tradizioaren konzeptu hori eta handikan aurrera, ba, belaunaldi batek ez ziola besteari pasa bere jakituria eta bere teknika, baizik eta belaunaldi berriak aurka egiten ziola lehenengo belaunaldiari, ezta? Eta hau da pixka bat eredu erromantikoa eta hau da Modernitate.

Modernitatearen xehetasun bat balego, hori izango litzateke: haustura; bigarren belaunaldiak aurrekoari kontra egiten dio eta apurtu egiten du, eta laugarrenak hirugarrena eta horrela, hausturaz haustura osatzen da Modernitatea. Orduan niri iruditzen zait xx.mendearen bukaeran kontraesan izugarri batean murgilduta gaudela, eta hitz gutxitan esango dizuet nere ustez non dagoen kontraesan hori.

Alde batetik iruditzen zait idazleak orain ere hemeretzigarren mendeko rol soziala daukagula, ezta? Oraindikan ere idazlea ikusten da eredu erromantikoan; ikusten da, batzuk esaten dute, artista bezela, ikusten da gizabanakorik gizabanakoena, ikusten da orijinaltasunaren untzi bat bezela. Ikusten da, hitz gutxitan esateko, pertsona bakar bat bezela, bakar-tasun bat daukan pertsona bezela, hori da, eredu erromantikoaren ildotik. Baina bestetikan, gertatzen da gaur egun idazleak oso jabe direla, oso jantzita daudela aurrekoak idatzi duten guztiaz, eta bere lana gero eta ktramilatuagoa dagoela aurrekoak egindako guztiarekin. Hori da, lana ez dala egiten bakardadean, baizik eta aurrekoak kontutan hartuz, ez dala halako orijinaltasunik, baizik eta dala jende askoren orijinaltasuna edo jende askoren lana aprobetxatzea, etab. etab.

Ba nik pentsatu nuen kontraesan hau —hori: alde batetik idazlearen eredu erromantikoa, eta bestetikan, idazlearen lan egiteko batere erromantikoa ez dan modua, hori da, batere orijinaltasunaren bila eta kontu horiek haintzat hartu gabe— ba nik uste nuen hor kontraesan bat planteatzen zala, eta hori agertu nahi izan nuen hirugarren parteko errefleksio horietan, errefleksio metaliterario horietan, eta batez ere azaldu nahi nuen plajiatzeko metodo horrekin. Ze, zer gertatzen da plajiatzeko metodoarekin? Nik asma-

tzen det plajiatzeko metodo bat, hori da, gauza bat ezin egin daitekeena, lapurreta da etab. Eta ni, egia esan behar baldin badet, hasi nintzen plajiatzeko metodo horrekin, ze beti galdetzen zidaten ea Euskal Herrian literaturak zer salbazio eukiko zuen. Eta nola aspertuta nengoen betiko gauzak esateaz, ba, halako batean, behin esan nuen sistemarik hoberena zala plajiatzea, ezta? Ez sortzea, ez itzultzea, baizik eta plajiatzea, azkar egiten dalako lan hori etab. etab. Baina gero gertatu zitzaidan metodoa asmatu nuela, eta metodoa oso ximplea da, eta gero metodoa aplikatu nuenean, ba, gertatu zan plajio hori, hori da, plajiatutako lan hori, ba, izugarritzko orijinaltasunez bezala azaltzen zala; hori da, nere anaiak ipui hori, plajiatutako ipui hori irakurri zuenean esan zidan: «A, bai? Hau plajioa al da? Ba niri iruditzen zaidak beste ipuiak baino orijinalagoa, ezta?» Eta horrekin pixka bat harritu egin nintzan, ze, esate baerako, eman dezagun, aurreneko ipuia, aurreneko ipuia da «Esteban Werfell» aurreneko ipuia izan zan gutxi gora behera sei hilabetetako lana, nik ez dakit zenbat ordu dauzkan ipui horrek, baina horrek dauzka ordu pila bat, eta plajiatzeko metodoa kostatu zitzaidan egitea, ba, gaueko hamaiketarik goizeko laueta edo hola, bost ordutan egin nuen ipui hori. Jakina, plajioa zalako ...Eta orduan, ze aldea dagoen, ezta?, bi ipui horien artean. Eta hala eta gutziz ere, nere anaiak esaten zidan bigarrenak aurrenekoak baino orijinalagoa ematen zuela, ezta?

Orduan nik oso seguru dakit: nik orain broma bat egiteko gogoa baldin banu —segurua ez dan gauza— ba, nik broma bat egitea nahi baldin banu, hartuko nuke edozein nobela ospetsu eta plajiatuko nuke goitikan behera, eta inor sekula ez litzateke konturatuko. Hori da, konturatu direnak konturatu dira, ba, nik esan egin diedalako, ezta?, edo, bestela, pistak eman ditudalako, etabetab. Baina nik igual hartu eta aterako banu liburu bat erabat plajiatua eta esan gabe plajioa dala, inor sekula ez litzateke konturatuko; baino sekula, hori da, esan nahi dut «ad aeternitatem» geldituko litzateke nere lan bat bezela. Eta nik uste det arazo honek oso gai larri bat planteatzen duela, eta batez ere, pixka bat nabarmendu egiten dituela eredu erromantikoari jarraitzen dioten idazleak, hori da, bere burua orijinalizat, bakartzat, jenializat daukaten idazleak.

Uste dut hori dena zaborra dala, uste dut hori dala, ba ...zarama esaten dute hemen, ezta? Ba uste dut hori dala hala, eta plajiatzeko metodoak hori erakusten duela, ezta? Ez dakit ...Hainbeste jende eta inork ez du galdera...

GALDERA: Literaturan, alde batetik, igual, badago jenialtasuna eta beste alde batetik, teknika alde bat. Eta orduan, biak behar dira, biak dira beharrezkoak, eta zuk igual plajioa bakarrik egiten baduzu, teknika menperatzen duzulako, baina ez badaukazu jenialtasun hori edo sentimendu hori, orduan horrek ez du balio, ezta?

B.A.k.: Jakina, ni hirekin bat netorrek, ezta? Hori da, niri ez zaidak iruditzen plajioa inola ere metodoa danik, lan egiteko modua danik; iruditzen zaidak bakarrikan azaldu daitekeela, nire liburuan egin dudak bezela, modu ironiko batean, ezta? Nik egiten det broma bat bezela, baina broma horrek edozein modutan adierazten dik hik aipatzen duan arazo hori ez dala oso xamurra. Esan nahi diat, non dagoen orijinaltasuna, eta non hasten dan eta non bukatzen da. Hori dek arazo bat, nere ustez oso oso larria. Jakina, nik uste beharbada ez duela merezi idaztea ez baldin baduk uste hik zerbait gehituko diokela aurrez esandakoari. Horri, eman dezagun, orijinaltasuna deitu nahi baldin badiok, baina arazoa ez duk halako xamurra. Esan nahi diat, hik hartzen duk, ba, esate baterako, *best-seller* horietako bat, ezta? Collins eta horiek, horiek dituk pastitxeak goitikan behera, aurreneko orrialdetikan azkeneraino dena duk pastitxea, dena duk plajioa, ezta?, mila lekutatik hartutako plajioak etab.

Eta literatura efikaza duk, hori da, jende askok irakurtzen dik etab., baina nik uste diat antzeman egiten dala kasu horietan, *best-sellerretan* pastitxe kontu hori, ezta? Hori konforme nago. Baina hortikan aurrera bilatzen denean ...hori da, utz dezagun pastitxea, utz dezagun plajio gorria, ba hala eta guztiz ere, idazleak pentsatu behar dik beharbada ez zaiola asko komeni bere burua orijinaltzat hartzea, ze Historiak, edo tradizioak, edo besteak egin dutena azaltzen duk edozein tokitan. Nik uste dik askozaz ere planteamendu hobea dala gaur egun idazle batentzat esatea «hemen, idatzi, gizarteak idazten du. Historian barrena jende askok idatzi du, eta hori da nere gizartea. Gizarte horrek idatzi du eta ni naiz gizarte horren barruan idazten duen beste bat, ofizio hori daukat, eta saiatu behar det ahalik eta talentu gehienarekin egiten, baino nere lana ofiziotzat harturik, inoiz ez teknika edo profesional edo zera hori alde batera utziz», ezta? Ze, beste bi-detik abiatzen baldin banaiz, ba, jakina, idazle askok esaten didate orijinaltasuna etab ...Bueno, baina gero bere lanak ez dituk oso orijinalak.

Esan nahi dik, arrazoa ematen diat, e, nik uste det pertsona batek saiatu behar duela bere errefleksio partikularra kaleratzen, dudarik gabe, baina kontuz ibili behar dik eta ez pentsatu orijinaltasuna halako lehengo balioa dala literaturan, ezta? Nik uste diat ez dala.

GALDERA: Orduan, horren arabera, zuk diozunaren arabera, ez du merezi idazteak, ezta?

B.A.k.: Bai, zergatikan, esan nahi diat, nik ez diat esaten idazten dan guztia aurrekoaren berdina danik. Nik uste diat sortzen dana produkto desberdina dala beti, hori da, nik idatzitakoa desberdina dala aurrekoek egin zutenarekin. Baina gauza bat duk esatea desberdina dala, eta beste gauza bat duk esatea erabat desberdina, nola esaten baituen orijinaltasunak, edo eredu erromantikoak. Eredu erromantikoak esaten dik idazle batek, nola bera ba-

karra dan munduan, nola berak daukan Musarekiko harreman berezi bat etab., egiten duena dala bere gauza bat desberdina beste guztiekiko, ezta?

Eta nik esaten dedana dek horrekin oso kontuz ibili beharra dagoela; jakina egiten dituela ipui, edo nobela, edo liburu desberdinak, nik uste det hala egiten direla, liburu desberdinak; ez denak, best-seller horiek, esate baterako, beste kasu bat dituk, horiek dituk pastitxe hutsak, eta horiek ez diate ezer desberdina egiten. Baina nik uste det liburu askotan, ba, aurkitzen direla gauza desberdinak. Baino, bueno, hor pixka bat egongo huake desberdintasuna: azpimarrakeran edo intensidadean. Nik sinestan dik hik egin dezakeala liburu bat desberdina inguruarekiko, baina ez det sinesten egin dezakeanik liburu bat erabat desberdina inguruarekiko.

Pixka bat era horretan egongo huake plajioaren arazo hori, ezta?, nik uste diat «erabat» delako horretan. Hor neurtu behar dalako, ez zekiat, e, pixka bat adierazten... Eta nik uste det izan badala —hori dek, ezta?— baina normalean gehiegi azpimarratzen dala kontu hori, eta nik pixka bat horri broma egiteagatik egin nuen plajioarena. Esan nuen: kontuz: hemen desberdinak gara, baina ez horrenbeste. Eta begira nola nik, hemen, teknika soil baten bitartez sortzen dedan produkto desberdin bat —ze hik irakurtzen baldin badek nik plajiatutako ipui hori eta bere jatorrizkoa, oso ipui desberdinak dituk. Bueno, dituk desberdinak, baina ez oso desberdinak, ez dituk erabat desberdinak, ezta?

Bueno, nik uste diat hor dagoela, kontuz ibili beharra dagoela «orijinaltasun» eta halako konzeptuekin. Eta hirugarren partean pixka bat horren gainean aritu nauk, ezta?

GALDERA: Nik, berezi egingo nuke plajioa, plajio hitza indar handikoa da, eta berezi egingo nuke plajioa eta erromatarrek egiten zuten *imitatio*, ez baita berdina, Plajioa da, hain zuzen ere, tribunaletara eramateko zerbait, hori baita oso-osorik hartzea, izena aldaturik, eta bueno, batzutan igual gauza batzuei aldatu zeredozer, baina argi eta garbi hartu orijinala. *Imitatio* hori literaturan beti izan da —grekoek *mimesis* deitzen zioten— eta orduan autore zaharrek behintzat, *imitatio* jakinaren gainean egiten zuten, baina besteak meajoratzeko, ulertzen?

Eta orduan nik bereizi egingo nuke zer den plajioa eta zer den *imitatio*, *imitatio* eta *mimesis*. Hau literaturan beti eksistitu izan da, eta gainera literaturarik ez litzateke eksistituko joko hori ez balego.

B.A.k.: Bai, baina arazoa ...arazoa oso larria da, oso interesgarria da. Lehentxoago lagun batek galdetu du zergatikan idatzi ...Nik uste det hemendik aurrera behin baino gehiagotan galdetuko diogula geure buruari zergatikan idatzi, ezta? Ze, Irigoienek esaten duena egia duk, baino plajioaren historia nik pixka bat aztertu diat, baita *mimesis* delako konzeptuaren historia ere, eta izugarri aldatu duk, esango diat nola: Marcialek idaz-

ten duenean poema satiriko bat plajiatzailearen aurka, hik irakurtzen duk Marcialen poema hori eta konturatzen haiz Marcialek buruan daukana dala lapur bat, hori da, lapur bat leiho batetikan sartu eta bere manuskritua, eskuiskribua ohostu egiten duena, hori duk, lapurra eta plajiatzailea berdin berdina duk; desberdinatasun bakarra dek lapur arruntak urrea lapurtzen duela, eta plajiatzaileak lapurtzen duela, ohostutzen duela eskuiskribu bat. Baina hori dek, esango nitek nik, aurreneko hamazazpi edo hamazortzi-garren mendeetan hori gertatzen duk Erromantizismoa sortzen dan garaia arte, ze, handikan aurrera —esan nahi diat, klasizismokoan bi bide horiek zeudek, ezta?, *imitatio*, edo bestela, plajio, lapurra etab. —baina gero, Erromantizismoa iristen danean, Erromantizismoak ez dik ezer jakin nahi *mimesi-arekin* edo *imitatio-arekin*, horrekin ez dik ezer jakin nahi. Erromantizismoak, Byronen eta beste askok ...ba beraientzat Egia bakarra barruan zegok, pertsonaren barruan; pertsonaren barrua erabat desberdina duk, eta orduan, aldatu egiten duk plajioaren konzeptua Orduan esaten dek, nola ez baitute bitarte hori ere onartzen, esaten dek hiztegi guztiak esaten dutena: zer da plajiatzea? Plajiatzea da *funtsean* beste baten lana kopiazea, edo beste baten lana funtsean kopiazea, ezta?: «Copiar en lo esencial un trabajo ajeno»; baina hor berriro daukagu problema handi bat, zergatikan zer da «funtsean?», zer da «funtsezko»? Esate baterako, hiztegiek, hori bera jartzen duten hiztegiek definizio hori plajiatu egin ziotek beste hiztegi bati. Esan nahi diat: hik hartzen duk ...nik behin batez lan egin nuen hiztegi batzuk egiten editoriale batentzat, eta esan zidan lan egiteko modu bat zala hartzea hiztegi mordo bat, eta batetikan eta bestetikan moko eginez, mokoka, ba, handikan hartzea. Eta konturatu nintzan nola ...ez dakit nor egin zuen aurreneko hiztegia, ze ni konturatu nintzen hiztegi guztiak berdinak zirela, eta batek huts egiten baldin bazuen definizio batean, hurrengoak ere huts egiten zuela, hori da, hutsak multiplikatzeko ziran egileak bezela hiztegi horietan, ezta?

Orduan, esan nahi diat, hik esaten duana egia dek; klasizidade guztian lan egin duk *mimesis*, *imitatio* modu horretan eta hori joan duk aldatzen. Hori da, Apuleyok *El asno de oro* egiten duenean, *mimesis* konzeptu bat zeukak, eta Virginia Woolf-ek egiten duenean *The waves* beste konzeptu bat zeukak mimesi horrena, ezta? Bueno, hau ...Auerbach-en liburua hor zegok, oso argi adierazten dik guzti hau, ezta? Baina zenbat eta aurrerago jo denboran eta mugak gero eta hestua goak dituk, hori da: zer da imitazioa?, zer da plajioa? Nik uste diat mende honetan gero eta muga zabala goak daudela, eta, esate baterako, gaur egun arazoa zegok «copiar en lo esencial», hori da, funtsezko hori zer dan eta zer ez dan. Eta pinturan, esate baterako, hau oso nanarmena duk. Pintore erromantiko batentzat *collage* direlakoak izango hituake plajio hutsak, hori da, collage-a dek beste baten lana hartu eta puntu gorri bat jarri, hirea, ezta?

Badago orain, pinturan bazegok orain mogimentu bat izena duena «los apropiacionistas». Eta horiek egiten dute beste baten kuadroa hartu, kopiatu eta gero marra bat egin, marra txiki bat gainean, eta berak firmatzen dute kuadro hori, ezta? Eta da mugimendu bat oso oso berezia.

Nik uste det ...arazoa nik ez zekiat nola bukatuko dan, baina arazo horrek zer hitz egin asko emango dik, pinturan, esate baterako, gaur egun. Ez zekiat, e ...orain lotua zegok, esate baterako, balioarekin. Hori da, Rembrandtek bere kuadro bat firmatu, baina gertatu dek ez dala Rembrandtena, eta orduan bere balioa jeitsi duk ehunka miloitan, ezta? Eta hor zeudek arazo oso bereziak gaur egun, nik uste. Nik arazoa nola bukatuko dan ez zekiat, baina bazekiat mimesiarekin benetako arazo larriak sortzen ari direla.

GALDERA: Edozein modutan ere, orijinaltasun absolutorik ez da sekula existitu.

B.A.k.: Sekula, dudarik gabe.

GALDERA: Eta orduan nik uste dut etorkizunean ere mugak haruntzago ipini, edo honuntzago ipini, mugak nonbaiten egon behar dutela, mugak moztuko direla, zuk esan duzu, baina problema berdin bera da. Esate baterako, nik lehen pintura mundua zerbait ezagutzen nuen —zeren eta orain ja ez dakit ezagutzen dudan ere, ulertzen?— eta garai batean, aspertuta egoten hasi zirenean, norbaitek esaten zuen: «Bueno, ja, azkenean egingo da pareta edo horma halakoa, eta gero handik ez dago beste biderik itzultzea baino, mugak horretarako dira.» Jakina, gero sortu dira, ez dakit, halako eskultura batekin musika ipini etab. Bueno, baina hori ez da eskultura, hori musika da.

Eta munduak errepikatu egiten ditu lehengo gauzak, eta errepikatuko ditu. Eta bueno, jakina, euskeraz oso gauza gutxi ditugunez gero, imitatorako edo mimesirako esango nuke eredu guztiak libre direla. Dugun problema bakarra da euskaldunak gutxi garel, hori da problema bakarra.

B.A.k.: Bai, bai, dudarik gabe. Nik neuk hola uste dut, hemen dagoen problemarik haundiena da autobideak 200 km. baizik ez dituela, hori da. Tamainak eragin handia du gauza guztietan dudarik gabe, eta euskaldunak izatea 600 mila, 700 mila, horrek eragin literario asko ditu, asko, dudarik gabe. Baina bueno, beste zeredozer sortuko da.

GALDERA: Ze harreman dago *Etiopia* eta *Obabakoak-en* artean? Harremanik baldin badago.

B.A.k.: Ez det uste handia dagoanik ...e ...ez zekiat, ez zekiat ...Ez det uste handia dagoanik. Jakina, nik uste det idazle bakoitzak idazteko modu bat daukala eta nere idazteko modua izan duk beti idaztea pertsonai batetik. Hori da, sekula ez diat idatzi ...bueno, sekula ez diat idatzi ...behintzat aspaldi honetan ez diat idatzi izan nere baitatik, nolabait esa-

teko, baizik eta nik sortu diat beste pertsonai bat, eta kasu batean Bernardo Atxaga da hori, eta orduan ni pertsonai horretatik abiatu eta atera dizkiat lanak, ezta? Orduan *Etiopia* duk ni Bernardo Atxaga bakarrik nintzan garaikoa, ezta? Nik orduan sortzen diat, ez dakit ze urteak ziren, baina 70a aldean sortzen diat Atxaga hori eta orduan idazten diat *Etiopia* Atxagagandik. Baina gero *Bi anai* oso garbi itzi nuen bezala, *Bi anai-n* ja jartzen diat Bernardo Atxaga eta José Irazu, ezta? Orduan hor pertsonaia aldatu egiten duk eta berak egiten duen literatura ere aldatu egiten duk. Nik uste diat benetan bi mintzo desberdin direla, uste diat, e...

GALDERA: ...esaten nuen *Etiopia-k* baduelako «Obabatxu» zera hirugarren zirkuluaren sarreran. Horrek ez dauka zerikusirik gero *Obabakoak-en* «Obaba»rekin?

B.A.k.: Bueno, egongo dituk berdintasunak, batez ere berdintasun aritmetikoak, ezta? Hori da, nik seguru asko beti antolatzen dizkiat liburuak eredu aritmetiko baten arabera, esan nahi diat, *Etiopia* antolatu nuen bederatzizko zirkuloren arabera, eta gero *Obabakoak* antolatu izan diat zuhaitzaren egitura jarraituz, ezta?, batez ere hirugarren partean, zuhaitzaren egitura jarraituz etab. Orduan nik uste diat egongo dituala berdintasun teknikoak, nolabait esateko, baina tonuaren aldetik beste pertsonai batek egin dik *Obabakoak*, nik uste diat, e. Eta *Obabakoak* egin dik, ez zekiat, beste pertsonai batek, ez dakit nolako pertsonaiak ...zaila da esatea ze pertsonaiak, baina nik uste diat Atxaga bezela egin nituen lanak, hori da, *Panpina ustela*, eta *Pott* eta *Etiopia* eta ...horiek daukatela kutsu bat, eta gero ja azaldu nuenean Atxaga eta idazle eta hor bi pertsona zeudela —ze nik uste det *Bi anai* argitaratu nuen arte inork ez zekiela ea beste izenik neukanik ere— orduan, ja beste bigarren izen hori eman nuenean, deklaratu nuenean, hartaz geroz, beste liburu mota batzuk egin dizkiat, ezta? Eta orduan nere galdera dek ...orain isildu, eta gero? Nik uste diat jendeak ...nik sentitzen det isildu beharra daukadala, eta ez dedala argitaratu behar denbora askoan etab. Orain nere galdera dek, nere buruari egiten diodana, nola atera hemendik bost urterara?, hori da, aterako naiz izen honekin, edo aldatuko det, edo beste pertsonai bat aterako det? .. ez dakit zer egingo dedan. Baina nere galderetako bat dek, hori da, ze pertsonai aukeratuko det idazteko? Hori dek nere galdera.

GALDERA: Zuk *Etiopian* lurralde sinboliko hori erabili zenuen, eta gero, *Obabakoak-en*, zuk asmatutako Obaba lurralde sinbolikoa. Nola ikusten duzu alde sinboliko honen erabilera batetik bestera?

B.A.k.: Nik nola ikusten dudan? Atzekoz aurrera hasi, eta ni orain, azken aldi honetan beti saiatu izan nauk prosari hari gorri bat sartzean. Eksplikatu det: zer da hari gorri hau? Bueno, nik hari gorria esaten det, ze, esaten du Ingalterrrako Navyko zerak, barku militar guztiek erabiltzen

dituzten tolduak, guztiek daukatela barrutikan hari gorri bat, ezta? Orduan, inork ohostutzen baldin badu Royal Navyko toldu bat segituan harrapatzen diate lapur hori, ze zeukak beti tolduak beti gorri koloreko hari bat tar-tean, ezta? Orduan ni azken aldi honetan prosa egiterakoan beti saiatu izan nauk hari gorri hori sartzen. Eta zein da hari gorri hori? Ba, nik esango nizek —baldarra esatea dek, baina— hari sinbolikoak sartzen. Hori da, ni beti saiatu nauk nere ipuietan-eta irakurketa sinboliko bat ere bideratzen. Ez bakarrik han azaltzen dana, ez bakarrik han kontatzen dana, baizik eta bazegok beste irakurketa bat, sinbolikoa dana. Horretan, nabarmena duk, duda gabe, «Post tenebras spero lucem», ze hori dena dek ...sinbolojiaz beteta zegok ipui hori, etab., baita «Camilo Lizardi», eta baita ipui asko ere ...baita «Heinrich, Margaret». Guzti horiek hari sinboliko bat badiate. Ba nik uste diat *Etiopia* izango litzatekeela bakarrikan hari gorri hori, hori da, ez zegok gainerako toldua, toldu guztia duk hari gorria. *Etiopia* duk irakurketa sinbolikoa behar duen liburua: «Etiopia» bera, «Utopia»rekin lotzen dek, mila gauza esango nizkikek *Etiopia-ri* buruz; bederatzi zirkulu ditu, bederatzi dalako zera sinboliko bat eta ...bueno, gauza asko. Eta hor bazegok irakurketa bat eta interpretazio bat, sinbolikoa dana, biajea badu, etab., ezta? Eta gero prosan uste det hari gorri hori mantentzen dala, baina ja toldu handi batekin inguratua. Orduan egongo dituk harremanak, baditu, baina batean funtsezkoa dana bestean dek ...nola esango nuke nik ...erreserba bat, erreserban dagoen irakurketa bat, ezta?

Ze, nik uste det jende gehienak, irakurle gehienak ez direla ohartzen —premirik ez daukatelako— ez direla ohartzen irakurketa sinbolikoarenaz.

Esate baterako, zertaz ez da inor konturatu, ez erderazko edizioa dala, ez euskerazko edizioa dala? Inor ez da ...bueno, hobeto esanda, kritikiko bat bakarrikan ohartu dek nolabait, eta kritikiko hau uste det *Le temps* edo Catalunyako errebista batekoa da, eta duk hirugarren zati horretan, «Azken hitzaren bila» horretan ...jakina, azkenean narratzailea eratu egiten duk edo hil egiten duk, hil egingo duk, ezta? ...hasten danean tontuak bezela hitz egiten etab ...baina ez duk inor konturatu bigarren zati horretan, beste progresio batzuren artean, dagoela eromenari buruzko progresio bat: gero eta aurrerago, gero eta ipui ...nola esango nuke nik ...ez zoroagoak, baina pertsonaiak zoroagoak dituk: Klaus Hanhn erotuago zan Laura Sligo baino, esate baterako, Margaret, Heinrich ...etab. Hori da, obsesioak, muskerrak egiten duen biajea ...nik imajinatzen diat idazlea gero eta erotuago dagoela, eta idazten dituen ipuiak eta pertsonaiak eta dana dituk eroagoak, obsesiboagoak etab. etab. Hor bazegok orduan progresio patolojiko bat, sinbolikoa dana, edo izan daitekeena, baina hori, esan bezela, nola hari bat besterik ez dan, ba hori ...hori normalean pasatzen duk ohar-kabea, ezta? Orduan, berdintasunak ...nik uste dut toldu desberdinak direla, eta berdintasunak ez direla handiak.

GALDERA: Nola ikusten duzu Danteren eragina *Etiopia-n* eta *Obabakoak-en*?

B.A.k.: Jakina, bai, Dante erabiltzen diat baita ere zeran, «Plajiatzeko metodoa»n. «Plajiatzeko metodoa» duk Danteren plajio bat hasieran, ezta? Hori da, erabiltzen dut Dante, eta baita zeran, *Etiopia-n* ere, dudarik gabe. Orain, Dante bezela ...Esan nahi diat: hor bazegok, ez dakit zuek aditzea baduzuen, «mandala» izeneko sinboloa. Mandala izango huake sinbolo bat jeometrikoa. Orduan ajedrezko taula bat mandala bat duk, sistema bat dek. Eta bederatzi zirkuloz egindako laberintoa dek mundua laberinto bezela. Eta horiek oso sinbolo zaharrak dira, eta dudarik gabe, ospetsuena dek Dantek egin zuena. Orduan nik pixka bat jaso egin dizkiat egitura sinboliko horiek, ezta?, dala antzarraren jokoa, dala ajedrezko taula, pixka bat ...Orain hitzaldi asko ematen dizkiat antzarraren jokoa eksplikatzuz, ezta?, «juego de la oca» delakoa, ezta? Eta horiek dituk tradizio kulturallean dau-den sinboloak, pixka bat.

GALDERA: Lehengoan Inaki Aldekoak esaten zuen *Obabakoak* liburuan ixiltasunaren amenazua sumatzen dela denbora guztian. Bueno, nik uste dut hori egia dela, baina berak esan zuen «nik baino askoz hobeto azalduko dizue hau Bernardok berak», eta, beraz, zuri pasatzen dizut galdera.

B.A.k.: Eta ixiltasuna nola ulertzen da kontestu horretan?

GALDERA: Bai, berak eman zuen adibide bat da gehiegi hitz egiteagatik eratzen den gizonaren kasua. Edo, baita orain ez dut gogoan ipuinaren izena, baina gerlariak espiak bidaltzen dituztenean, ba, gero, itzultzen direnean ez dira gai ikusitakoa kontatzeko, eta konta dezakeen bakarrak beste hizkuntza batez hitz egiten du...


B.A.k.: Bai, bai. Egia da, esan beharko det ...bueno, isiltasunaren amenazua ...ez dakit, esperantza esango nuke nik. Egia esan nik neronek oraintxe bertan ez dakit ezer gehiago argitaratuko dedan. Hori, aurreneko gauza, ezta? Zeren pentsatzen det pertsona batek ez duela zertan bortxatu behar bere beharra eta ...Bueno, niri ez zait gehiegi interesatzen zera literarioan sartzea, gizarte literarioan, eta idaztea ...editorialak eskatzen dizulako etab. etab. Orduan nik uste det hogeit hamar urte daramazkidala idazten, eta ixiltasuna dala beharbada etorkizunean daukadan aukera nagusienetako bat, ezta? Orduan uste dut, baita ere, neretzat funtsezkoa dala ixiltasunaren konzeptua. Hori da, bakarrikan hitz egitea hitz egin daitezkeen gauzetaz, ustez hitz egiteko modukoak, adierazteko modukoak diren gauzetaz, eta gainontzeko gauzetaz ixiltzea. Hori da, azken batean, ez dakit nere joera etsia dan edo nere joera humila dan, edo ez dakit zer dan, baina niri iruditzen zait arazo gehienetaz hoberena dala ixilik egotea. Nere eritzia hori da,

eta uste dut, dudarik gabe, liburuan azaltzen dala behin eta berriro joera hori. Esate baterako: nik errespetatzen det Bernhard, autore austriarra, baina iruditzen zait behin eta berriro hitz egiten duela ixilik egon beharko luke ten gauzetaz, eta orduan Bernhard niri ez zait idazle ...ez dakit nola esan ...ez det esango ez zaidala gustatzen, hori tontakeria bat izango litzateke, baina esan nahi det ez dala nere errejistrokoa. Eta hitz egiten hasten danean, ba, gehienetan ez diat sinesten. Ez dakit ba ...iruditzen zait hobe dala ixiltzea, ez dakit...

Hasten da, ba ...bi anai, eta batek suizidatu nahi du eta besteak ere bai, eta ez dakit zer, eta ipui guztia suizidioz ...ez zait ...iruditzen zait ez dala joera ...ez dakit ...azkarra edo argia. Ez dakit ondo esplikatzen dizudan ...Bai, nik uste dut aukera hori, ixiltzekoa dala oso aukera ona. Ez dakit e ...Idazle askok sumatu dute ixiltasunaren beharra, nik uste dut. Hasi Helderling batek, esan zuenean hobe dala lo egitea lagunik gabe bizitzea baino. Harek esan nahi zuen interlokutorerik gabe, entzulerik gabe bizitzea baino. Edo Bertolt Brechtek ere, Auswitzekoak-eta jakin zituenean, berak esan zuen literatura ez zegoela prestatua horrelako gertaerarako, eta hobe zela ixiltzea. Eta nik ere uste det askotan halako fatalidadea daukaten munduko gertaerak, ba nola iruditzen zaidan ixilik gelditzea dala oso joera, ez dakit, ondratua ...iruditzen zait, orduan, beharbada liburuan antzematen dala nola ja arnasik gabe gelditzen ari naizen, edo beste modu batera esanda, ja nola ari naizen gelditzen ilusiorik gabe. Beharbada hori da.

ENTZULE BA TEK: ...Gizona omen da bi aldiz harri berean erortzen den animalia bakarra...







DEMOKRAZIA ETA MANIPULAZIOA

XABIER BARRUTIA

Inor ez dago esklabuzatuagorik, libre izan
gabe bere burua libretzat daukana baino

Goethe

*GAUR EGUNEKO AZTERTU NAHI IZAN DUT. GIZAR-
teak nola funtzionatu behar du? galdetu diot neure buruari. Erantzuna
demokratikoki izan da. Bigarren galdera segituan dator. Gure gizartean
demokraziarik al dago? Galdera honi erantzuteko demokrazi definizio ba-
tetan oinarritu naiz. Erantzuna ezezkoa denez gauzak konpontzeko propo-
sizio bat egin dut, unibertitateak jokutzen ari den papera aldatu behar du,
bere jakintzak herriaren zerbitzuan jarritz. Baina hori baino lehen komeni-
garria iruditzen zait demokraziaren historia pixka bat ikustea.*

DEMOKRAZIAREN HISTORIA

Samuelson-ek dinoskunez «Errepublika amerikarraren fundatzaileek, batez ere John Adams, James Madison eta Alexander Hamilton-ek, Marz-ek baino lehenago sinisten zuten klaseen arteko burrukan. Sufragio unibertsalari bildurra zioten. Emaiezue denei botua emateko eskubidea eta ikusiko duzue nola jabetze eskubidearen bukaera helduko zaigun, txiroak aberatsak baino gehiago dira eta, esaten zuten. Arrazoi horregaitik amerikar konstituzioak zorrozki mugatu zuen botua emateko eskubidea amerikar iraultzaren ondorengo berrogeitahamar urteetan. Eztabaida bera sortu zen Europan XIX. mendean zehar. Garaiko iraultzaileek uste zuten inoiz ere ez ziotela langilegoari botua emateko eskubidea bide baketsuetatik emango. Orduan eskubide hori estatuaren mantenimenduan zergak ordainduz laguntzen zutenek bakarrik zuten. Baina botua emateko eskubidea zabaldu zen, gradualki eta modu kontrolatu baten hasieran». Zergaitik ez da eman orduan auresaten zena, txiroen gobernu? Hauek inhumanoki esplotatzen zituen garaiko kapitalismo salbaiak.

Marxistek asko azpimarratu dute boteretsuek botuak zuzenean erosteko duten aukera, edo zeharkako bide batez manipulatu. Hauteskundeak irabaziz gero ere, euren ustez, ezingo litzateke ekonomi demokraziarik lortu, produkzio bideen jabetza kolektiboa. Burgesek ez lukete bide baketsuetatik produkzio bideak eskuetatik kentzen utziko, demokrata mozorroa kendu eta benetazko arpegia erakutsiko lukete, ejerzitoa erabiliz herria kontrolatzeko. Horregaitik marxistek demokrazia burgesa eta ekonomiko edo benetazkoaren artean bereizten zuten. Iraultzaren bitartez langileek Estatuaren boterea eskuratzea beharrezkotzat jotzen zuten, klase boteretsuak izandakoak kontrolatu arte langilegoaren diktadura ezarriz. Estatuaren funtzioa beti klase baten diktadura aurrera eramatea da. Beraz, klase-rik gabeko gizartera heldu ondoren Estatuak bere funtzioa galduko luke, Engels-en hitzetan Estatuak «zimeldu» egiten da. Benetazko askatasun ekonomiko eta politikoak berreskuratuz. Marxistak ez ziren konturatu Estatuaren boterea esku txarretan erori zitekeela eta zoritxarrez basakeri asko egin dira marxismoaren izenean. Giza eta ekonomi berdintasunen alde burrukatu zuen beste iraultzaile batek, Bakunin anarkistak esan zuenez: «edozein diktadurak helburu bakarra euki dezake, bere buruaren iraupena». Popper-ek dinoskunez: «Zergaitik aurrera eramango dira herriaren ongizatearen aldeko programak herriak ez badu hauek bete arazteko gaitasunik?» Horregaitik boterearen kontrol demokratikoa lortzeko bideak jarri behar ditugu.

DEMOKRAZIAREN DEFINIZIOA

Marcuse-k demokraziaren bi definizio ekartzen dizkigu «Dimentsio bakarreko gizakia» liburuan. Lehenengoa da gaur egun erabiltzen den eriz-pidea herri batetan demokraziarik dagoen edo ez baieztatzeko. Bigarren definizioa da benetazko demokraziari dagokiona.

Lehenengo definizioa: Honen arabera aukeraketa demokratikoa hauxe da: kargu publikoak sufragio unibertsalaz aukeratzen dira, hauek betetzeko dauden hautagaien artean herriak bere aukeraketak egiten ditu. Prozesu horretan batzuk aukeratu eta beste batzuk baztertzen ditu. Hautagaiak ez dira denak ideologi berekoak izan behar, herriak edozein ideia defendatzen duten hautagaien artean aukeratu ahal izan behar du. Hautagaiak elkarren lehian sartzen dira aldiro hauteskundeetan herriaren botua lortzeko. Horregaitik ikuspegi honi demokraziaren teoria konpetitiboa deitzen zaio.

Bigarren definizioa: Honi aginduaren teoria esaten zaio. Teoria hau demokraziaren kontzepzio klasikoetan oinarritzen da. Honen arabera herria da benetazko subiranua. Herria da benetan gobernatzen duena bere ideien arabera. Horrela, herriaren ordezkariak herriarengandik jasotzen dituzte aginduak eta ez alderantziz.

Lehenengo definizioa betetzea beharrezkoa da demokraziaz hitze-gin ahal izateko, baina ez da nahikoa. Bigarrena da benetan demokrazian gaudela eta ez diktadura baten menpean ziurtatzen diguna. Baina bigarren hau ez da lehenengotik ondorioztatzen. Konpetentzia politikoak ez du ziurtatzen benetazko prozesu demokratiko osasuntsu bat ematen denik eta ez manipulazio prozesu bat.

KUESTIO DESBERDIN BI

Bi kuestio desberdin daude. Hontaz jabetzeak mesede handia egingo liguke. Nork hartu behar ditu erabakiak? eta bigarrena: nola kontrolatuko ditugu boterearen erabakiak? Hau argitzeko har dezagun pilpilean dagoen adibide bat: Irurtzun-Andoain autobia edo Lemoizeko zentral nuklearra.

Nork hartu behar du Irurtzun-Andoain autobia aurrera eramateko erabakia? Gaur egun erabaki hauek hauteskundeetatik irtendako herriaren ordezkariak hartzen dituzte. Arazo bat sortzen da: ordezkari hauek lau urterako bakarrik aukeratzen dira, hartzen dituzten erabaki hauen ondorioak berriz hamarkadetan hipotekatzen dute lurraldearen antolaketa. Demokraziak dinosku herria dela erabakiak hartu behar dituena. Egia da gauza txiki

bakoitza erabakitzeko ezin dela erreferendum bat egin, kasu hauetan herriaren ordezkariak hartuko dituzte erabakiak. Baina traszentalak diren erabakiak ezin dituzte lau urterako dauden politikoei hartu. Konponezinak diren kalte ekologikoak gerta daitezke, horrelako obra bat gaur eraikitzea eta bihar botatzeak kostu ekonomiko izugarria suposatzen du..., Erreferenduma behar da, herri askotan egiten den bezela.

Bigarren kuestioa eta oraindik garrantzitsuagoa dena hauxe da: nola kontrolatuko ditugu boterearen erabakiak? Politikoei herriari informazioa eman behar diote. Ez du balio esateak, egiten den bezela, gaia eztabaidatu dela behar diren artean eta behar den lekuan, hau da, lau politikari gela baten barruan. Herriarengana jo beharra dago, herriko udaletxeekin, instituzioekin, profesional eskolekin, sindikatuarekin, talde ekologistekin, hauzok elkartekin eta abarrekin eztabaidatu behar da. Dauden problemak eta berarekin konpontzeko dauden alternatiba posibleak azaldu behar zaizkie. Hauek ezaguna dute euren herria eta proposata interesgarriak egin ditzakete. Horrela bakarrik izango da posible boterearen kontrol demokratikoa. Jendeak jakin ahal izango du zeuden alternatiben artean zergaitik aukeratu izan den hautatua izan dena, ze erizpiderekin eta zeri emanek lehentasuna. Horrela jakingo dute nori eman botua hurrengo hauteskundeetan.

Gaur egun politikoei demokrazia aldarrikatuz instituzio demokratikoei hartu behar dituztela erabaki hauek esaten dute. Praktikan herriarekin batere eztabaidatu eta informaziorik eman gabe. Alternatiba bat, gauzak egiteko modu bakar bat balego bezela inposatzen digute. Gero, gizartearenak diren lorpenak, eurenak izango balira bezela aurkezten dituzte, eurak gestore huts batzuk baino ez direnean. Jendeari kendu nahi zaio berezkoa duena, aktore soziala izatea. Horren kontrako borroka demokraziaren aldekoa da eta ez kontrakoa.

INFORMAZIOA ETA MANIPULAZIOA

Esan dugu benetazko demokrazia egoteko, herriak agintzeko, informazio ona behar duela. Informazio manipulatu baldin bada, nahiz eta hauteskundeak egon ezin daiteke demokrazia hitzegin. Imagina ezazue fisikan doktorea den batek gezur galantak esaten dizkizuela eta bere gaitasun intelektualean fidatuz nuklearren aldeko botua ematen duzuela, demokrazia al da hori?

Demokraziak zerbait eskatzen bada egia eta argitasuna dira. Euskadiko adibidea erabiliz, botua eman baino lehen informazio ona behar dugu. Zein da Euskadiko benetazko egoera soziolinguistikoa? Estatutua lehenengo pausua bekela planteatzen bada, jakin behar da zein izango den

bigarrena, hirugarrena. Argi. Ez du balio orain esateak Europa osoan ez dagoela inun horrenbesteko autonomia mailarik. Jendeari hauteskondeak baino lehen esan zaio lehenengo pausua zela. Jendeari hauteskondeak baino lehen esan zaio lehenengo pausua zela. Demokrasiak eskatzen duen argitasun eta printzipio guztien kontra doa jende askori entzuten zaion argudioa: «alderdi honek independentzia nahi du baina ezin du esan bestela Madrildik ez ligukete ezer emango». Demokrasi gabeziaren onarpena da, ez bait da Euskal Herria horren arabera bere buruaren gain agintzen duena. Demokrasi dagoela esaten dutenek manipulatzan dute edo manipulatu daude.

Jendeak informazio ona dauka ala manipulatzen dago? Gaur egun demokrazian gaudela esaten dutenek baieztatu beharko dute armamentuen karrera, gudak, e.a. herrien (etxeoandreen...) borondatea direla. Zaila, ezta?

Bertrand Russell-ek demokrazien baitan propaganda bideen izkutuko erasoak salatu zuen. Bera gaur eguneko aurrerakuntza eta zientzizale amorratua izanik ezin erakusgarriagoa da bere salaketa. Bere hitzetan: «Gaur eguneko gobernu bat beste aroetako edozein gobernu baino zapaltzaileagoa izan daiteke. Propagandak eragiten du gobernuarentzat persuasioa askoz errezagoa izatea; kontrapropaganda zailagoa egiten da, papera jabeago publikoa baita; herri iraultzak ezinezkoak dira, armagintza modernoek efektibitateagaitik».

Guzti honi aurre egin ahal zaiola dinosku Popper-ek: «Demokrazien babeserako legeek oso garapen eskasa dute. Asko egin ahal eta egin behar da. Prentsa askatasuna exigitzen dugu, adibidez, gure helburua jendeak informazio ona jasotzea bait da; baina arazoa alde honetatik begiratu ikus dezakegu helburu hori ziurtatzeko oso garantia instituzional eskasak ditugula. Periodikoek berez egiten dutena gaur egun, hau da, dauzkaten informazio garrantzitsu guztiak jendeari eman, derrigorrezkoa egin beharko litzateke, horretarako eraikitako legeen bitartez edo arau moral batzuen ezarpenarekin, eritzi publikoaren epaiketarekin. Zinovief-en karta bezelako kontuak, esate baterako, agian kontrola daitezke «zilegi ez diren bideen bitartez irabaziak izan diren hauteskondeak atzera bota ahal izateko lege» batekin... Hemen ezin dugu zehaztasunetan sartu baina ziur nago erreza izango litzatekeela hauteskondeak gidatzeko helburua lortzeko ditugun zailtasun teknologikoak gainditzea, grinei dei egin beharrean arrazoiari dei eginez. Ez dut eragozpenik ikusten, adibidez, hauteskunde panfletoei tainu, itxura, e.a. berdin bat inposatzeko, kartelak baztertuz. (Honek ez du askatasuna arriskuan jartzen, justizia epaitegi batetan parte hartzen dutenei ezartzen zaizkien mugaketak askatasuna erasotu beharrean askatasuna babesten duten bezela). Gaur eguneko propaganda bideak irain bat dira publiko eta hautagaiatzat. Inoiz ere ez litzateke erabili behar xaboa saltzeko aproposa izan daitekeen propaganda bat hain gauza serioetan».

Gaur egun, Marcuse-k erakusten digunez, publizitatean erabiltzen diren teknika berak erabiltzen dira hauteskundeetan ere, izen bat, esate baterako, beti adjetibo berei lotuta agertuz, horrela, efektu hipnotiko baten bitartez «irudiak finkatzeko».

UNIBERTSITATEAREN PAPERA

Unibertsitateak manipulazioaren kontrako burrukan parte hartu behar du. Gaur egun ez du inolaz ere paper hau jokutzen. Guk honelako kritikaren bat egiten dugunean unibertsitateak erantzuten zaigu unibertsitariok-teknikariak gabela eta horretara mugatu behar dugula, inolako balorazio moralik egin gabe. Gure lanean printzipio hori errespetatu dezagun arrazoi garrantzitsuak daude. Gu teknikariak gara eta ez gara nor herriari dagozkion erabakiak guk hartzeko. Guri herriari informatzea dagokigu, une konkretu bakoitzean egoera soziolinguistikoa, ekonomika, e.a. zein den azaldu eta herriak nahi dituen helburuak hurbiltzeko ekintza mailan ze alternatiba desberdin posible diren argitzea. Beraz, horretara mugatu behar badugu, demokraziaren eskakizunez, ahalegindu behar dugu jendeari informazio ona ematen, manipulaziorik gabekoa. Horretarako informazio horretan ez dute teknikariaren ideologia edo balioztapen moralek sartuta egon behar. Ekonomilari batek, adibidez, ezin dio herriari alternatiba bat izkutatu atsegin ez zaiolako edo interesatzen zaion alternatiba baten ondorioak, direnak baino hobeto bezela aurkeztu, horretarako gezurrezko lengoai sasizientifiko sofistikatu bat erabiliz. Horregaitik askok proposatu dute herriari zuzendu baino lehen zientzialariak euren artean akordio batera iritsi daitezela. Nuklearren gaineko debatean, adibidez, fisikan doktorea den batek esaten dizue nuklearrak arriskutsuak direla eta aurrekoa bezain doktorea den beste batek berriz ez direla batere arriskutsuak. Jendeak zer pentsatu behar du?

Baina unibertsitateak berea duen printzipio ofizial hau ez du batere zaintzen. Ez ditu herriak jasotzen dituen manipulazioak salatzen. Egia da askotan lan zaila dela hauek detektatzea. Puntu askotan gutxienez adostasun zientifikoa badago baina beste puntu askotan berriz ez. Hala ere, metodo zientifikoari gauza bat gutxienez zor diogu, gure jakintzak mugak dituela erakutsi digu. Salatzeko moduan gaude kasu askotan egiten diren manipulazioak esku gutxitan dauden telebista eta gainerako propaganda bideen bitartez, hipotesi bat defendatzen denean guztiz ziurra bezela, horretarako oinarririk ez dagoenean. Erreza zaie jendea liluratzea lengoai sasizientifiko-persuasibo-sofistikatu horrekin, estatistikak erabiliz... Horregaitik unibertsitateak zor hori dauka herriarekin, demokraziarekin.

Gaur egun unibertsitateak ez du paper hau betetzen. Bertrand Russell-ek dinoskunez, zientzialariak bilakatzen ari dira gero eta gehiago Estatuaren presoak. Oppenheimer-ek, bere «Prisioneros del mundo atómico»-n, testigantza ikaragarria ekartzen digu: zientzialari batek zalantzak ditu bere lanaren emaitzak kaltegarriak izan daitezkeelako giza taldearentzat, hala ere botereak behartu egiten du bere lana segitzera. Azkenean kontatzen digu nola zientzialariak bere nortasun eta erantzunkizunari uko egiten dion. Unibertsitatea, nahi edo ez, benetan betetzen ari den funtzioa boterearen zerbitzuan egotea da.

KONKLUSIOA

Marcuse-k dionek, «demokrazia» faltsu hau errepresio biderik efektiboena da. Jendeak bere burua libretzat edukirik ez du askatasuna lortzeko borrokatzen. Sistema hain da sotila ze langilea tolerantziaren izenean zapalzen du. Orwell-en «1984» amets txar bat baino gehiago da.

Horren kontra borrokatu behar dugu unibertsitariok, ez ditugu gizarte honetan geure buruak integratu behar. Munduan hamaika injustizia dago, ez ditut izendatuko, buruan eukiko dituzuela espero dut. Injustizia horiek konpontzeko, ekologi ondarena zuzentzeko (hainbat arinen egin beharrekoa, berandu izan baino lehen)... dauden alternatibak ez ditut hona ekarri, baina egon badaude. Beti daude denetarako alternatibak. Gaur egun boteretsuek eskuetan propaganda bide boteretsuak dauzkate eta etikarik gabe erabiltzen dituzte, manipulatu, euren giza-ekonomi sistema posiblea den bakarra bezela defendatzeko. Guk manipulazioa salatzean, benetazko demokraziaren alde borrokatuz, aldaketa erradikal bat posible egiten ari gara. Aipatu ditudan injustizia larriak historian zehar eta gaur egunean ere, herriak boterea kontrolatu ez duelako gertatu dira eta. Beraz, kontrol demokratiko hori ahalbidetzeko pausuak eman behar ditugu.

DEMOKRAZIA ETA EUSKADI

Euskadin ez dago demokraziarik. Autodeterminazioa hainbat arinen lortzea ezinbestekoa da, Euskadiren etnozidio legala geldiarazteko berandu izan baino lehen.

Hona hemen aplikagarria zaigun animalien erreinuko adibide harri-garri bat, txinaurriena hain zuzen ere. Ez naiz oroitzen zehazki zeintzuk di-

ren txinaurri mota horiek eta nungoak diren, baina zoologo batek egiazta dezake adibidearen zuzentasuna. Mota askotako txinaurriak daude, ez bat bakarra. Naturan handiak txikia menperatzen duena ez da gauza berria. Txinaurri mota indartsuek ahulak erasotzen dituzte. Hor doaz «esklabu lapurrak» direlakoak txinaurritegi arrotza erasotzen. Bertako txinaurri gudariak, euren txinaurritegiaren babesean bidera irten zaizkie. Borrokan hasi dira erasotzaileak eta erasotuak. Erasotzaileek matel-hezur sendoak dauzkate eta horiekin gudarien burmuinak apurtu dituzte, hauek berehala hil direlarik. Baina gudari babesleak asko dira eta nahiz eta ahulagoak izan badirudi eurak izango direla irabazleak. Orduan esklabu lapurrek substantzia bat segregatzen dute, biologoek «propaganda substantzia» deitzen dutena. Substantzia honek efektu bitxi bat dauka: babesleak erasotzaileak ahaztu eta euren artean borrokan hastea eragin du. Babesleak euren artean borrokan ari diren bitartean esklabu lapurrak txinaurritegira sartu eta bertako larbak lapurtu dituzte.

Amaitzeko hiru gauza gehiago:

1. Esklabu lapurrek, eurak bahitutako larbak haztean sortzen diren txinaurriengandik dependentzia absolutua daukate. Hauek gabe ez dira gai euren buruak elikatzeko ez garbitzeko ere.
2. Aurrekoarekin lotuta, erasotzaileek inoiz ere ez dute erasotutako txinaurritegia guztiz ezabatzen. Txinaurri nahikoa bizirik uzten dute etorkizunerako ere esklabuen ornidura ziurtatuta edukitzeko.
3. Bahitutako larbak haztean eta txinaurri bilakatzean, hautematen dituzten lehenengo usainak bahitzaileenak dira. Horren ondorioa, eurak ere haietakoak direla uste dute eta esklabu lapurrentzat lan egiten dute esklabu bezela.

APENDIZEA: EKONOMIAZ BERBA BI ETA GALDERA BAT

Ziur nago idatzi ditudan salaketak irakurtzean zuetako asko harriturik geratu zaretela. Behar bada gehiegizkoa dela pentsatzen duzue. Normala da pertsonengan fede ona duen batek hori ustea. Gure politikoak, teknikariak, herriarengandik irten dira, hemengoak dira, batzu euskaldunak dira. Nola da posible horiek euren herriaren kontrako konplot batetan sartuta egotea? Nik ere hori galdetzen diot neure buruari eta askoren intenzioa ona dela uste dut, baina botere faktikoen eraginpean daude.

Azaldu dudanez, agintariengan fede baina gehiago euki behar da. Informazioa behar da, boterearen kontrol demokratikoa. Eta hau gaur egun

ez da existitzen, jendeak ez dauka informazio onik. Har dezagun ekonomiaren adibidea. Ekonomilariak ez dute zaintzen lehen azaldu dudan erizpide etikoa. Eurak teknikariak dira eta ez dira nor herriari dagozkion erabakiak hartzeko. Manipulazioa batez ere esaten ez dituzten gauzetan dago. Euren arrazamenduak supuestu konkretu batzutan oinarrituta daude: gizartea norberekerian bakarrik oinarritu daitekeela, dagoen jabego estruktura zaindu behar dela, e.a. Horrela bakarrik posible omen da ekitate eta efizientziaren arteko gatazkari aurre egitea. Honen azalpena emango dut:

Efizientziaz hitzegerakoan merkatuaz hitzegin behar da. Merkatuaren funtzionamenduan ematen den konpetitibitateak eragiten du gure baliabide urriak efizienteki erabiltzea. Langile asko lur gutxi eta txarrean daukan enpresa bat ondoratuko da. Efizienteenak iraungo dute. Merkatuak lortuko du gure baliabideen erabilera egokia. Baina merkatuaren efizientzia honek ez du esan nahi berak determinatzen duen errentaren banaketa etikoa denik, ekitatea zaintzen duenik. Merkatuaren funtzionamenduak determina dezake aberatsen zakurrak lodi egotea eta hirugarren munduko umeak gosez hiltzea.

Ekitate eta efizientziaren arteko gatazka honela planteatu daiteke: Estatuaren botere politikoa erabiliz, merkatuaren legeak determinatzen duen errenta banaketaren ekitatea hobetu nahi baldin badugu (neurri batetan ezinbestekoa da), enpresagizon aberatsei zerga handiagoak ezarriz txiroen artean berbanatzeko, lortuko duguna haxe izango da: efizientzia galduko dugu, enpresagizon horiek pizgarri gutxiago eukiko dituzte euren inbertsio eta enpresak aurrera eramateko, lanpostu gutxiago sortuko dituzte, aberastasun gutxiago egongo da gizartean. Jendeak, txiroek pizgarri gutxiago eukiko dituzte lana bilatzeko gutxieneko alokairu bat ziurtatuta baldin badute. Orduan, gerta daiteke ekitatea hobetzeko egiten ditugun ahaleginak antsuak izatea. Behartsuei lagundu beharrean behartsu gehiago sortzen dugu, gizartea txirotu zaigu eta.

Gizarte hau arrazamendu horretan oinarrituta dago. Ba dirudi norberekeriari ezin zaiola kritika moralik egin, hori omen da gizartearen ongi-zatea dakarrena. Badirudi ere, teknokraten gobernu soil batekin nahikoa dela gizarte hau aurrera eramateko. Gandhi guzti honen kontra azaltzen zaigu, berak ez zuen bat ere sinisten sistema hain perfektu horietan, zeintzuetan inork ere ez dauka ona izateko beharrik. Baina arazoa ez da inoiz ere terminu hauetan aurkezten. Arazoa ez da inoiz ere arazo moral bezela aurkezten. Ez saio jendeari beste balore batzuetan oinarritutako gizartea posible dela esaten, denok, klaserik gabe, leku bat euki dezakegun gizarte bat. Alderantziz, ekonomilariak, guzti hau explizitatu gabe honelako gauzak esaren dituzte: inflazioa kontrolatzeko hau egin behar dugu, Europan konpetitiboak izateko beste hau..., Non dago hor demokrazia? Nork hartzen ditu erabakiak? Teknokraten diktadura da. Ez da herria bere etorkizunaren jabea.

Esan dut gure agintari eta teknikari batzuen asmo onean sinisten dudala, baina gero eta gutxiago. Esaerak dinoenez: «Bihotza zerez beteta, ahoa horrexetaz mintzo da». Eta ez dute hitzegiten munduan gosez hiltzen direnei buruz. Ze efizientzia de montre galduko genuke gosearekin amaituz horretarako nahikoa bada armagintzara dedikatzen den diruaren ehuneko bosta? Hauxe da nire galdera: nola ez da arazo hori konpontzen demokraziarik baldin badago? Herriko pertsonen borondatea al da hori? Euren borondatea al dira esplotazio guztiak, herri zapalduen egoera, langabezia...? Ez, ez, bait da herria bere buruaren jabe dena. Askatasuna lortzea ezinbestekoa da justizia lortzeko. Gauzak azalduz gero, herriak ez lieke Nazio-arteko Moneta Fondoari eta Banku Mundialari hirugarren munduan daramaten politika esplotatzailea aurrera eramaten utziko.

Beraz, hori da, gaurko joeraren kontra, gu unibertsitariontzat bidea, demokraziaren alde borrokatzea. Gaur egun manipulazio handia dago. Carlos París-en hitzetan: «propaganda bideek personari bere askatasuna kenduz doaz izkutuko eraso baten bitartez. Batzutan kontsumo produktu bat inposatzeko, kasurik onenean, baita ere bere bizitzako arlo batzutan, bidai bat, dibertsio bat, kitzikapen baten erabilera. Beste arlo erabakikorrageotan, bere botua hauteskunde batzutan erabakitzeko, giza taldearen etorkizuna jokoan dagoenean». Bertrand Russell-ek dinoskunez: «Zergaitik sinisten ditugu sinisten ditugun gauzak? Lehengo filosofoek esango zuketen Jaungoikoak gure baitan argi bat jarri zuelako zela, zeinaren bitartez egia ezagutzen dugun. XIX. mendearen hasieran esango zuketen epaiketa osagaiak konparatu eta alde batekoak nagusiak zirela aurkitu dugulako zela. Baina publizitate agente bati edo propagandista politiko bati galdetuz gero erantzun zientifikoa eta tristeagoa emango liguke. Gure sinismenen proportzio handi bat ohituran oinarritzen da, ergelkeria, norberekeria eta errepikapen konstantean. Publizitate agenteak batez ere azkenekoan dauka konfidantza, baina azkarra bada beste hirurekin elkartuko du. Sinismenaren psikologia ikasiz gero.








ZEBERIO HARANEKO GALDE- HITZ, *izenorde eta erakusleen deklinabideaz* JUAN MANUEL ETXEBARRIA AYESTA

SARRERA GISA

GAUR EGUNEKO EUSKARAREN IRAKASKUNTZA orokorrean, sarri askotan gramatika liburuei lotuegirik irakasten dela esan genezake. Baina bada «liburu» bat, salgai es dagoena, jakina, derri-gorrez kontutan izatekoa: Herriaren liburu bizia. Hor dago sakabanaturik, zahartzen baina oraindik zorionez bizi bizirik. Belaunaldi gazteok erreleboa egiten ez badiogu, gure aurrekoen euskara biziak egin du! Baina ez, ezin dugu holakorik egin. «Gurasoak dana dotza sor semeari» (lit. gurasoak dana deutso zor semeari) dio herri-esaera zahar batek, ba geuk be zor diogu etorkizunari gure aurrekoek emandakoa.

Gaurko lan honetan, herri-liburu biziko orrialdetxo batzuekin nator-kizue, galde-hitz, izenorde eta erakusleen deklinabideaz, hain zuzen; irakurri, aztertu eta, era dena, etorkizunera bideratzeko. Era honetara jarraitu egingo du egin ere aurrekoengandiko «hageak», bestela, «Balizko oleak burdinarik ez».

DISTRIBUCION DE MUNICIPIOS POR COMARCAS



GALDETZAILEA: «ZER» «ZERTZUK»

<i>Sing.</i>	<i>Plur.</i>
1. ser	sertzuk
2. serik	—
3. sek	sertzuk
4. sen	sertzuri
5. sen	sertzun
6. sereko	—
7. sen ganean	sertzun ganean
8. segas	sertzukas
9. segaitik	sertzukaitik
10. sentzat	sertzuntzat
11. sertzat	sertzutzat
12. setan	sertzutan
13. setatik	sertzutatik
14. setara	sertzutara
15. sereraño	sertzutaraño
16. sererantza	sertzutarantza
17. sererako	sertzutarako

OHARRA: Laburtasunari begira, kasuak zenbakiz jarri dira:

1. Nominatiboa	10. Destinatiboa
2. Partitiboa	11. Prolatiboa
3. Ergatiboa	12. Inesiboa
4. Datiboa	13. Ablatiboa
5. Genitibo edutezkoa	14. Adlatiboa
6. Genitibo leku-denporazkoa	15. Adlativo bukatuzkoa
7. Instrumentala	16. Adlatibo bide zuzenezkoa
8. Soziatiboa	17. Adlativo destinatiboa.
9. Motibatiboa	

GALDETZAILEA: «ZEIN» «ZEINTZUK»

<i>Sing.</i>	<i>Plur.</i>
1. sain	saintzuk
2. sainik	—
3. sainek	saintzuk
4. saineri	saintzuri

<i>Sing.</i>	<i>Plur.</i>
5. sainen	saintzun
6. saineko	—
7. sainen ganean	saintzun ganean
8. sainegas	saintzukas
9. sainegaitik	saintzukaiatik
10. sainentzat	saintzuntzat
11. —	—
12. sainegan	saintzukan
13. sainegandik	saintzukandik
14. sainegana	saintzukana
15. saineganaño	saintzukanaño
16. saineganantza	saintzukanantza
17. saineganako	saintzukanako

OHARRA: «-AI-» idatzi dudan arren, «-EI-» ere entzuten da alternantzian.

GALDETZAILEA: «NOR» «NORTZUK»

<i>Sing.</i>	<i>Plur.</i>
1. nor	nortzuk
2. —	—
3. nok	nortzuk
4. non	nortzuri
5. noin	nortzun
6. —	—
7. non ganean	nortzun ganean
8. nogas	nortzukas
9. nogaitik	nortzukaiatik
10. nointzat	nortzuntzat
11. nortzat	nortzutzat
12. nogan	nortzukan
13. noingandik	nortzukandik
14. nogana	nortzukana
15. noganaño	nortzukanaño
16. noganantza	nortzukanantza
17. noganako	nortzukanako

IZEN ORDEA: «NI» ETA BERE INTENSIBOAK

	<i>Int. (I)</i>	<i>Int. (II)</i>
1. ni	nau	ninau
2. —	—	—
3. nik	nauk	ninauk
4. niri	nauri	ninauri
5. nire	naure	ninaure
6. —	—	—
7. nire ganean	naure ganean	ninaure ganean
8. niges	nauges	ninauges
9. nigaitik	naugaitik	ninaugaitik
10. nitzat	nautzat	ninautzat
11. nitzat	nautzet	ninautzet
12. nigan	naugan	ninaugan
13. nigandik	naugandik	ninaugandik
14. nigana	naugana	ninaugana
15. niganaño	nauganaño	ninauganaño
16. niganantza	nauganantza	ninauganantza
17. niganako	nauganako	ninauganako

OHARRA: «-EU-» intensiboa entzuten da baina «-AU-» zabalago dabil Horregatik zabalena idatzi dut, hemen eta gerokoetan.

IZEN ORDEA: «HI» ETA BERE INTENSIBOAK

	<i>Int. (I)</i>	<i>Int. (II)</i>
1. i	au	iau
2. —	—	—
3. ik	auk	ikauk
4. iri	auri	iauri
5. ire	aure	iaure
6. —	—	—
7. ire ganean	aure ganean	iaure ganean
8. iges	auges	iauges
9. igaitik	augaitik	iaugaitik

	<i>Int. (I)</i>	<i>Int. (II)</i>
10. itzat	autzat	iautzat
11. itzat	autzat	iautzat
12. igan	augan	iaugan
13. igandik	augandik	iaugandik
14. igana	augana	iaugana
15. iganaño	auganaño	iauganaño
16. iganantza	auganantza	iauganantza
17. iganako	auganako	iauganako

IZEN ORDEA: «GU» ETA BERE INTENSIBOAK

	<i>Int. (I)</i>	<i>Int. (II)</i>
1. gu	gau	gugau
2. —	—	—
3. guk	gauk	gukauk
4. guri	gauri	gugauri
5. gure	gaure	gugaure
6. —	—	—
7. gure ganean	gaure ganean	gugaure ganean
8. guges	gauges	gugauges
9. gugaitik	gaugaitik	gugaugaitik
10. gutzat	gautzat	gugautzat
11. gutzet	gautzet	gugautzet
12. gugan	gaugan	gugaugan
13. gugandik	gaugandik	gugaugandik
14. gugana	gaugana	gugaugana
15. guganaño	gauganaño	gugauganaño
16. guganantza	gauganantza	gugauganantza
17. guganako	gauganako	gugauganako

IZEN ORDEA: «ZU» ETA BERE INTENSIBOAK

	<i>Int. (I)</i>	<i>Int. (II)</i>
1. su	sau	susau
2. —	—	—

	<i>Int. (I)</i>	<i>Int. (II)</i>
3. suk	sauk	susauk
4. suri	sauri	susauri
5. sure	saure	susaure
6. —	—	—
7. sure ganean	saure ganean	susaure ganean
8. suges	sauges	susauges
9. sugaitik	saugaitik	susaugaitik
10. sutzat	sautzat	susautzat
11. sutzet	sautzet	susautzet
12. sugan	saugan	susaugan
13. sugandik	saugandik	susaugandik
14. sugana	saugana	susaugana
15. suganaño	sauganaño	susauganaño
16. suganantza	sauganantza	susauganantza
17. suganako	sauganako	susauganako

IZEN ORDEA: «ZUEK» ETA BERE INTENSIBOAK

	<i>Int. (I)</i>	<i>Int. (II)</i>
1. surok	saurok	surosaurok
2. —	—	—
3. surok	saurok	surosaurok
4. surori	saurori	suonsaurori
5. suron	sauron	suonsauron
6. —	—	—
7. suron ganean	sauron ganean	suonsauron ganean
8. surokas	saurokas	suokassaurokas
9. surokaitik	saurokaitik	suokaitisaurokaitik
10. surontzat	saurontzat	surontzasaurontzat
11. —	—	—
12. surongan	saurongan	surongansaurongan
13. surongandik	saurongandik	surokandisaurokandik
14. surongana	saurokana	surokanasaurokana
15. surokanaño	saurokanaño	surokanasaurokanaño
16. surokanantza	surokanantza	susurokanantza
17. surokanako	surokanako	suronsurokanako

ERAKUSLEAK (sing.)

au	ori	a
onek	orrek	ak
onen	orren	aren
oneri	orreri	areri
onegas	orregas	aregas
onetan	orretan	aretan/atan
onetako	orretako	aretako/atako
onetara	orretara	aretara/atarra
onetatik	orretatik	aretatik/atatik
onen ganean	orren ganean	aren ganean
onegan	orregan	aregan
onegana	orregana	aregana
onegandik	orregandik	aregandik
onegaitik	orregaitik	aregaitik/agaitik
onentzat	orrentzat	arentzat
ona	orra	ara
onango au	olango ori	alango a
onen ganean	orren ganean	aren ganean
onan	olan	alan
onango	olango	alango
emen	or	an
emengo	orko	ango
emetik	ortik	andik

ERAKUSLEAK (plur.)

onik	orrik	aik
onik	orrik	aik
onin	orrin	ain
oniri	orriri	aieri/airi
onikas	orrikas	aikas
onitan	orritan	aietan/aitan
onitako	orritako	aitako
onitara	orritara	aitara
onitatik	orritatik	aitatik

onin ganean	orrin ganean	ain ganean
oningan	orringan	aingan
onikana	orrikana	aikana
onikandik	orrikandik	aikandik
onikaitik	orrikaitik	aikaitik
onintzat	orrintzat	aintzat
onin ganean	orrin ganean	ain ganean

BIRRITAKO ERAKUSLEAK (SING.) (ATE-UME)

au ate au
 onek ate onek
 onen ate onen
 oneri ate oneri
 onegas ate onegas
 onetan ate onetan
 emeko ate onetako
 ona ate onetara
 emeti ate onetatik
 onen ate onen ganean
 onegan ume onegan
 onegana ume onegana
 onegandi ume onegandik
 onegaiti ume onegaitik
 onentzat ume onentzat

BIRRITAKO ERAKUSLEAK (SING.) (ATE-UME)

ori ate ari
 orrek ate orrek
 orren ate orren
 orreri ate orreri
 orregas ate orregas
 orretan ate orretan
 orko ate orretako
 orra ate orretara

ortik ate orretatik
orren ate orren ganean
orregan ume orregan
orregana ume orregana
orregandik ume orregandik
orregaiti ume orregaitik
orrentzat ume orrentzat

BIRRITAKO ERAKUSLEAK (SING.) (ATE-UME)

a ate a
ak ate ak
aren ate an
areri ate ari
aregas ate agas
an ate an
ango ate ko
ara ate ra
andik ate tik
aren ate an ganean
aregan ume agan
aregana ume agana
aregandi umea gandik
aregaiti ume agaitik
arentzat ume antzat

BIRRITAKO ERAKUSLEAK (PLUR.) (ATE-UME)

onik ate ok
onik ate ok
onin ate on
oniri ate ori
onikas ate okas
onitan ate otan
onitako ate otako
onitara ate otara

onitati ate otatik
onin ate on ganean
oningan ume ongan
onikana ume okana
onikandi ume okandik
onikaiti ume okaitik
onintzat ume ontzat
onin ume on ganean

BIRRITAKO ERAKUSLEAK (PLUR.) (ATE-UME)

orrik ate ok
orrik ate ok
orrin ate on
orriari ate ori
orrikas ate okas
orritan ate otan
orritako ate otako
orritara ate otara
orritati ate otatik
orrin ate on ganean
orringan ume ongan
orrikana ume okana
orrikandi ume okandik
orrikaiti ume okaitik
orrintzat ume ontzat
orrin ume on ganean

BIRRITAKO ERAKUSLEAK (PLUR.) (ATE-UME)

Aik ate ak
aik ate ak
ain ate an
airi ate ari
aikas ate akas
aitan ate atan

aitako ate atako
aitara ate atara
aitati ate atatik
ain ate an ganean
aikan ume akan
aikana ume akana
aikandi ume akandi
aikaiti ume akaitik
aintzat ume antzat
ain ume an ganean

GALDE-HITZAK ETA ERANTZUNAK ESAMOLDE EGINIK

Deklinabideko kasuei jarraituz, baina ia ia esaera antzeko egin dira galdehitza eta euren erantzunak. Adibide bezala era ezberdinetako batzuk jasoko ditut Zeberioako euskeratik.

«ser? eta bera»
«segas? eta beragas»
«nor? eta Urlie»
«nointzat? eta Urlientzat»
«nondik? eta andixik»
«nora? eta bertara»
«sainbet? eta onenbeste»
«nos? eta orduxeam»
«nos arte? eta orduserarte»
«sergaitik? eta axegaitik»
«etab... etab...

Galde-hitzaren erantzuna aldakorra da behar den kasuan erara datorrena esateko baina aurrean esan dudanez «esamolde» egin dira: *Galdera* + *eta* + *erantzuna* aparteko bizitasun eta adierazkortasuna emanaz eguneroko hizketari.

ERAKUSLEAK KOMENTATUZ

Jasoketan ikusi ahal izan denez, Zeberioako euskeran erakusleen errepikabidea aberatsa dugu baina badira han, hor, hemen, fenomeno aipagarri batzuk.

Erakuslea izenaren aurretik eta atzetik erabilteko joera daukagu baina Genitibo Leku-denporazkoa, Adlatiboa eta Ablatiboa egiterakoan, aurreko erakuslea, «emen, or, an» lit. hemen, hor, han, adberbioen bidez agiten da. (Ikus, jasoketa)

Pluralera bagoaz, hor ere fenomeno kurioso bat gertatzen da eta oraingoan bigarren erakuslean.

Bigarren erakuslearen ordez, plural hurbila darabilgu konstante bezala.

Egia esateko gogor egiten da sarritan erakusle biak ahozkatzea eta baliteke ekonomiaz edo, bigarrena plural hurbilez egitea. (Ikus, jasoketa)

Kasu batzuetan eta adierazkortasuna bitarteko delarik, singularrean ere bigarren erakuslearen ordez artikulo hutsa entzuten da:

«au gixona»
«on gixona»
«auxe gixona»
etab...

Kasu hauek, irakurkera baten gogor egiten bazaizkigu ere, entzutean ez dira hain gogorrak balio adierazkorra kontutan hartzen badugu eguneroko bakoitzaren mintzaeran.


Adibidez:


«au gixona... esta gausona gero!»
«ori burue... nos garbitukosu ba?»
«au txarrie... irusi de urrean!»

BERRI-EMAILEAK: Patxi Etxebarria Arroita. Nekazaria, Undurra auzunekoak. 70 urte.

Leonor Ayesta Goikoetxea. Nekazaria eta etxeko-andrea. Uriondo auzunekoak Undurrara ezkondua. 68 urte.

OHARRA: Inkesta hau 1986-87an agina da eta berri-emaielen adina ordukoa da.





GALIZIAKO ETA KATALUNIAKO LITERATURA

FELIPE JUARISTI

*RUDYARD KIPLING IDAZLE INDIAR-BRITANIA-*rrak jendea bitan banatzen zuen: bidaiak egiteko ohiturak zituztenak eta horrelako joeradunak ez zirenak.

Nire lagun optimista batek esaten duenez, eta beti dago lagun bat ofizioz optimista dena, zeinak zera dioen: oso onak dira liburuak, asko ikasten da beraietan irakurtzen. Mundua nolakoa den erakusten dute baina beti badaezpada ere hobea da mundua bertatik ikustea, eta horretarako bidaiatzea beste modurik ez da. Nire lagun pesimista batek esaten duenez, eta beti dago lagun bat pesimista dena eta gainera bere aholkuak emateko prest legokeena. Horren eritzian bidaiatzea txorakeria da, alferreko zeregina. Zerbait ezagutzeko ez dago inora joan beharrik. Nahikoa da etxetik ez mogitzea. Esan beharra dago bigarren laguna Pessoa idazle portugaldararen zalea dela eta berak gehien maite duen liburua «el libro del desasosiego» dela. Aldiz, lagun optimistari izugarri gustatzen zaio Bruce Chatwinen «Los trazos de la canción».

Behin, orain dela urte bat edo gehiago Galiziara joateko asmoa nuela azaldu nion, eta harrিতa bezala begiratu zidan. Galizian hemengo antzean edo okerrago biziko zirela esan zidan. Ez nion kasorik egin. Hala ere itzuli nintzenean aitortu behar izan nion arrazoia zuela.

Has nadin ordea arrazoia arrazoinamenduz arrazoinatzen, nahiz eta jakin Galiziako gaurrengungo literaturaren ezaugarria arrazoia baino gehiago sentimendua izan.

Galiziako liburugintzak arazo ugari dauzka bere barnean. Alde bate-tik liburuak estadu osoan dituen berberak: irakurketa-indizea txikia da, li-burutegi ugari ez dago eta ezin daiteke esan jendeak gehiegitxo erabiltzen dituenik. Gobernuak ez du laguntza ugari ematen liburuak argitaratu ahal izateko, eta ematen duenean baldintzatua izan ohi da (esate baterako diru laguntzak jasotzen dituzten liburuak normatiba ofiziala betetzen dituzte-nak dira, Euskal Komunitate Autonomoan eta Euskadiko marko geografi-koan gertatzen ez dena). Eta noski argialetxeak urriak dira, nahiz eta argi-taritzen dituzten liburuak, batez ere poesiakoak, ezinobeak izan bai forma zein edukiari begiraturaz gero.

Esan behar da gizarte galiziarra (eta euskalduna eta penintsulakoa) ez dela liburu-kulturan oinarritu, gizarte frantsesa izan den moduan eta eman duen pausoa sekulakoa izan bada ere, nahiko aldrebesa izan da. Ahozko komunikazioan oinarritutako literaturatik bideo eta telebista-litera-turara pasa bait dira, bitartekorik gabe.

Eta guzti honi erantsi behar zaio hizkuntza bera, galiziarra, marjina-tua eta zigortua izan dela mendetan zehar eta hori kontutan harturik jakin dezakegu Galiziako liburugintzaren egoera nola dagoen eta kultura berak, galiziar hizkuntzan adierazten denak, zenbat oztupo jasan behar izan di-tuen aurrera egiteko.

Eta hala ere Galizian egiten ari da une honetan estadu eta penintsula osoan poesia mailan egiten ari den literaturarik ederrena.

Baina has gaitezen historia apur bat eginez.

Tradizioari dagokionez oso aberatsa da Galiziako Literatura. Erdi Arotik datorren tradizioa bait da, hizkuntza kultoa izan zen garaikoa.

Aurrera eginez XIX mendean Rosalía de Castrorekin egiten dugu topa. Bi liburu idatzi zituen galizieraz «Cantares gallegos» (1863.ean) eta «Follas Novas» (1890.ean)

Lehendabiziko liburuak zera suposatzen du: galiziera eta galiziar lite-ratura aro modernoan sartzen dela eta ate handitik sartu ere. «Cantares ga-llegos» liburuan herri-kantaren glosa egiten da. Truebak garai hartan mo-dan jarri zuen joera bestalde. Esan nahi dut Rosalíak herriko elementuak hartzen dituela, herriko formak, joskera eta sintasia eta haiek direla medio bere poemagintza sortzen duela.

Liburu horretako kanturik gehienak maitasunezkoak dira, baina nire eritzian ez dira onenak. Onenak Rosalíak Galizia eta Gaztelari buruzko sen-timenduak adierazten dituenen gertatzen dira: herri mina, saudadea dira ezaugarriak, eta Gaztelarentzako gorrotoa.

Irakurri bestela poema hau:

Entzun Gaztelako jendea.
Jainkoaren nahia izan bedi
hil daitezen lehenago galziarrak
zuei janari eske ibili baino.

Hurrengo liburuan «Follas Novas»en areagotu egingo da halako joera.

xix mendeko literaturan izen handia da Curros Enríquez ere, La Habana 1908.ean hil zena. Bere kantuak oso ondo sustraitu dira galziaz gogoan, eta oraindik jende asko da beraiek ahora ekartzen dituen bai penintsulan eta baita Cubako lurraldeetan ere. Aipagarria da berarengan zuen umorerako joera eta hori gutxi balitz bere antiklerikalismoa, Inazio Loiolakoari egindako poeman ikusten den legez. (Ikus azkeneko folioetako gehigarria).

xx mendean izen ugari dago aipatzeko moduan. Adibidez: Ramón Cabanillas, Cuban zegoela «Atzerrian» izeneko liburua argitaratu zuena, eta Galizara bueltan talde politiko baten sortzaile izan zena. Aipatzekoak ere Vicente Risco eta Ramón Otero Pedrayo NOS izeneko taldearen sortzaileak. Eta talde hori euskaraz GU edo esango lukeena Galiziako kulturaren suspertzaila izan zen. Biak intelektual handiak ziren, hizkuntza askotxoren jabeak eta Otero Pedrayok «Ulisses» James Joyceren nobelaren zatiak itzuli zituen galziaz gatzelerara itzultzea inoren buruan sartzen ez zenean.

Biak bidaiari apartak gainera.

Baina behar beharrezkorik baldin badago horixe da Alfonso Rodríguez Castelao. Eta berarekin batera Rafael Dieste. Edo Eduardo Blanco Amor, biak esiliotik idazten dutelarik.

Poesiarena gogorragoa da, batez ere gerra ondoren. Hala ere poeten belaunaldi bat agertzen da. Aipatzekoak: Luis Pimentel, Manoel Antonio, Aquilino Iglesia Alvariño, Álvaro Cunqueiro (benetan maixu), Luis Seoane, Celso Emilio Ferreiro.

Eta guzti horiek hilda daudelarik. Beraz bizirik daudenekin hasteko garaia da. Gaurregun Galizian egiten den literatura ez litzateke ulertuko Méndez Ferrín gabe, bere eragina handia izan baita prosan nola poesian, eta dudaezinezkoa bihurtu da belaunaldi gazteengan.

Galiziako kritikariek diotenez, orkestra-gizon gisara hartu behar da. Ferrín izan da galziaz narritiba berriaren sortzaile, errealismo majikoa dei daitekeen jenero horretan mogituz. Izenburu batzuk: «Amor de Artur», «Bretaña», «Esmeraldina». Poeta moduan «Com polvora a magnolias» liburuak arrakasta handia izan zuen, poesiak bizi izan zuen impassea apurtuz. Horretaz landa gizon konprometitua izan da, UPG taldearen sortzaile, Dueso, Carabanchel, Segoviako kartzeletan bere larrua utzitakoa ia. «com polvora e magnolias» liburu klasikoa da.

Galiziako literatura eta batez ere poesia une honetan egoera itxaropentsuan bizi da. Bertan intimismoa eta probokazioa, surrealismoa eta kulturalismoa, erotismoa eta tradizio sinbolikoa, epika eta «collage» teknika, eta errealismo soziala batzen dira. Beraz kolore aniztuna dela esan daiteke, baina ezaugarri bat baldin badu hauxe da: hemeretzigarren mendeko erruralismoarekin apurtu duela, eta aintzinako oihartzun erreibindikatioa galdu duela poesiaren doinua. Aipagarria ere hizkuntzarekiko duten lilura, batzutan ene eritzien esajeratuegia, manierista ia.

Dena den, irakur Ramiro Fonteren eritzia, gehigarriko folioetan dakardana, bera bertako poeta eta kritikoa bait da.

Ondoren geratzen zaidana neri gustatzen zaizkidan poetak aipatzea da.

MIGEL ANXO FERNÁN VELLO poeta gazte bezain interesantea, benetako iraultza galiziar literaturan. Liburuak: «Seives de amor e transito», «Do desejo en corpo e sombra», «Memorial de brancura», «Livro das paisaxes vivas» eta «Entre agua e fogo». Berari buruz kritikariek zera diote: «Fernán Vello poeta liriko da, poeta liriko hutsa, parerik ez duena hizkuntza erromanikoetan idazten dutenen artean». Poeta gizon bakartia gisa hartuta uler daiteke bere poesia, eta bere sinbologia oso da klasikoa, greziar filosofian oinarritutakoa, Espainiako Urrezko Mendean egiten ez duenean.

Poesiari buruz hauxe idatzi zuen aspaldi batez: «Poesia ezerezatik sortutako gorputza da. Gorputzetako zentzumen guztiak dira barne-mogimenduan, gauzak izendatuz. Eta gauzak amodio edo heriotzak dira, barne eta kanpo-paisaiak, betirako bakardadeak, entzunezineko emozioak».

XAVIER RODRÍGUEZ BAIXERAS sorpresa handiko poeta da, erdi katalana erdi galiziarra. Gazteleraz idazten hasi zen eta hizkuntza horretan lehen liburua atera ondoren galiziarrez besterik ez du idazten. Oso ezaguna bere «Anos de viaxe». (Irakur bere poemak gehigarriko folioetan).

Beste poetak Xosé María Álvarez Cáccamo, Ramiro Fonte, Antón Reixa (ikus bere poema), Louis Pereiro, Uxío Novoneira, Xesús María Valcárcel, Manuel Forcadela (ikus bere poema).

KATALUINAKO LITERATURA

Orain dela urte batzuk Kataluina ezagutzeko gogoia nuela eta, asmo hori jakinarazi nion nire lagun optimistari eta berak esan zidan herri horretan gu baino hobeto bizi direla, hizkuntza arazorik ez dutela, eta gainera une honetan potentzia kulturala dela. Ez nion ezertxo ere sinistu, optimistek gaixo jartzen bait naute eta gainera mundua gaizki baldin badoa horien erruagatik delako ustea nagusitu bait da nigan aspaldi honetan.

Itzuli nintzenean arrazoia eman behar izan nion eta arrazoia arrazoiz gainera Kataluinako literaturan arrazoia sentimendua baino nagusiago bait da.

Iazko urtean estadu espainolean argitaratu ziren liburuen ehuneko hamarra Katalunian gertatu zen eta katalanez gainera. Katalana da dudarik gabe gehien argitaratzen duen hizkuntza autonomikoa. Hala ere bertakoak kexu dira, merkatu arazoak dituztela diote, baina jakina katalanak beti ari dira diruarekin lehian. Katalanezko argitaldarien elkarteak kalera-tutako txosten batek dioenez 1975-1984 bitarteko garaiarekin konparatuz, 1985 eta 1986ean salmentak matendu baziren ere liburu bakoitzeko tirada jaitsi egin zen.

Dena den ez dugu ahantzi behar katalanaren biztanle-potentziala, bost miloi pertsona bizi bait dira bertako Komunitate Autonomikoan.

Egin dezagun historia apur bat:

Gerra ondoren, berrogei urtetan, Kataluniako literatura saiatzen da ezer baino lehen irauten, eta ondoren bera bizi-eremua mantentzen, izan ere debekatuta egon bait zen irakaskuntzan eta kalean. Poesia izango da jenerorik nagusia urte hauetan, Kataluniako tradizio poetikoarekin lotura eginez.

Eman ditzagun datu batzuk euskaldunen enbidiarako.

1914.ean, hizkuntza-normalizaziorako proposamena.

1918.ean, Diccionari Ortografic (arauemalea)

Carles Riba 1943.ean esiliotik itzultzen denean hasten da animatzen katalanaren egoera, poesiari dagokionez ari naiz, gerra aurrean idazten zutenen eta gerra ondoren idatziko dutenen arteko zubia eraikitzen bada.

Ez da arraroa izango hasiera batetan idazten dutenak idazle trebetuak izatea, IV. Foiz, Josep Maria de Segarra, Pere Quart (ikus gehigarria), Juan Teixidar eta Joan Vinyoli, azken hau neoerromantizismoaren aldarrikatzaile.

Baina Kataluniako poesian maisutzaz hitzegin behar baldin bada, maisutza hori inongo ezta baidarik gabe Salvador Espriuren poesian dagoke.

Bere libururik *ezagunean* «La pell de bau» (Zezenaren larrua, 1960) heriotzari buruzko obsesioez dago baterik, ikutu judutar batez, kosmogonia eta sinbologiari dagokionez, baina ez da kristaua. Kontrapundua jartzen dio hizkuntza mehatxatutako bati.

Espriu da Kataluniako literaturako ahots kritikoa, azkenean katalanen kontzientzia bihurtuko dena. Berak hartu bait zuen hizkuntza mehatxatutako baten lekukoa eta berak eraman zuen bere testuetan, hizkuntza hori maila altuetara. Espriu, Celso Emilio Ferreiro zeinak 1962.ean «a langa noite da pedra» idatzi zuen, eta Aresti bezala, honek 1964.ean «Harri eta Herri» idatziz, da gerra ondoren literatura periferikoek eman duten poesia-aren eredu.

Gaurregungo poeten artean aipa nitzakeen Joan Brosea, Gabriel Ferrater, Miguel Martí i Pol, Vicent Andrés Estellés, Joan Margarit, Pere Gimferrer, Narcís Comodira eta Alex Susana.

GEHIGARRIAK GALIZIAKO LITERATURA

INAZIO LOIOLAKOAREN IRUDI BATEN AURREAN Curros Enríquez

Aurpegian poz mistikoa,
amorrua bularrean, begiradan bakarrik
ezagutzen zaitut ondo, Eumenide sakaratua,
bertute itxia, katoliko lapurra.

Ebangelioari traidore,
Kantutegiko Emazteak tratua
izan zuen deabruarekin eta handik
sortu zinen, arkakuso irabazle.

Baina zer egiten duzu aldare horretan limosnak lapurtuz,
intolerantziaren jenio nagusia,
biraoak besterik merezi ez dituzun horrek.

Zuk, zeren Kristo tirano bihurtu zenuen,
borreroak epaile,
eta Jainkoa giza-pentsamenduaren iturri.

RAMIRO FONTE

Ez da arraroa, gaurregun literaturaren lekua poesiak betetzea. Ez alferrik, gure literatur-modernidadea ahots lirikoek eraiki dute hemeretzigarren mendea ezker. Nire ustez, hamarkada honetako poeta gailegoek jakin izan dute literaturaren galderari erantzuna ematen, eta erantzun hori milenioa amaitzen den aro honetan ematen da eta hizkuntza mehatxatutako batetan, hainbeste non ia krepuskulartzat jo daitekeen hizkuntzaz hitzegin dezakegun.

Larogeiko hamarkadako poeta gailegoek galdera garrantzitsuak egi-teaz aparte jakin izan dute literatur lanekiko konpromezua aldarrikatzen, eta konpromezu hori sakonekoa, erreflesiboa da eta modernidadeko ekin-

tza legez konpromezu horrek kritika eta ezatsegina dakartza, entusiasmoa azken finean.

Hamarkada honetako poesia kontzeptu honekin izendatu dezakegu, aniztasunaren edo pluralidadearen kontzeptuarekin. Ahotsak ugariak bait dira, ugariak ere poetikoak eta hala ere poeta eta poesien irakurlearen lana de ahotsak eta oihartzunak bereiztea.

Nire ustez, konposizioko erantzuna atsegina izan da, itzulera bat poesiaren emotibitatera, hitzarekiko konpromezua hartzera, hitza bait da poemaren baliorik nagusia.

Aniztasunera itzuliz hamarkada honek norabide ezberdinak ditu, poeta oinarrizkoak irakurritz susma daitekeena.

Adibidez, klasizismoa eta modernitatea kontrajartzen ez direnean, Xabier Rodríguez Baixeiraren «Anos de viaxe». Edo norbide kulturalista, fragmentoz fragmento egindako literatura, Manuel Forcadelaren kasua, eta bere «O varredor en outono». Edo, abangoardiaren berrirakurketa, Xosé María Álvarez Cáccamoren eskutik. Eta maitasunerako deia, erotismorako bidea Fernán Vello eta «Memorial de brancura» liburuarekin. Neointimismoa adibidez Xulio Valcárcelen «bispera do dia» liburuarekin.

Izen ugari eman dezaket, gaurregun Galizian ofizio txoro hau hartu dutenena, aro nahasi hauetan poeta izatea aukeratu bait dute, errelatoak mutu direla diotenean poema eta poesia buruz gogoeta egiten ari direnak ugariak bait dira.

Aipa nitzakeen Xabier Seoane, Manuel Rivas, Román Braña besteak beste. Kantuaren ofizioa horiek egiten bait dute.

PORTUGALEKO BEGIAK

Xabier Rodríguez Baixeras

Hemen behean sulezeak neurtzen ditugu
baina ahotsaz, ahots erraldoi batez.
Begi beltzak dira iragaiten, hausnarketan, ajolagabe,
zeharkatzen dituzte hormak. Itsasoak gogor kolpatzen du.

Hemen behean mahasti artean galdutako usoak,
pinuen aurrean urrumaka,
itsasoa gogor kolpatuz,
guregatik uluka.

Eta gogoratzen dugu baten batek hormak eta
goroldioak beheratzen dituela,
etxe berde-urdinak suntsitzen dituela

baten batek azkenetako iratzea irensten duela,
gauzak bezalakoak gara, udazken beherako arbolak.

Gogoratzen dugu eta hemen behean
sulezeak neurtzen ditugu
hormen aldera doazen begiena,
begi ajolagabe, gogor horiena,
non bizi izana nahi nukeen.

GAIZKI IRISTEN DA AHOTSA

Xabier Rodríguez Baxeiras

Gaizki iristen ahots hura izan nintzenaren
intzentsu urrutiaren artetik, gutxi entzuten dut
musika haren kea, gorpu amatatua
itsaso sekulako haren lainopean.

Nahiz eta ahots batek, haize sakon batek
ihazinto eta magnolioen usaina
dakarten, badakit itsasoa ezberdin zela,
eskuak ihez dagiela. Eta pentsatzen

pentsatzen dut behin ere ez dudala itsasoratzen,
ur berde hori zatitu arte biratzen ikusiko,
ez dudala goratarrea, bor-borra sentituko.

Hondartza batzuk goraka besterik ez
eta zurrut horretan, itsas adar ahituan
galtzen den gezal-usaina.

NO TIME

Antón Reixa

no time for hortz ikuzgailuentzat ikuzgailu
zentrifugadorekin eta fellatio bat kutrea erreberberazioa
azido sulfurikoa litro ka boteilatan
garixtuak azpitoluetan hitzegin eta trabatzea
arratsalde tristea eskimal inmigratu batena igandea
musu insektizidak marmoraren gainean positiboa txinpantze baten

irribarrea treni buruzko trenak stopen trenak stopen izan
no time hartz ikuzgailuentzat txino bat emakume bihurtzen da
stopen bitrizida gaseosatan zentral nuklearrak.

NEGUAREN SORRERA

Manuel Forcadela

Uda aldean hasi ziren jaisten
untzi batek helmugatik bereizten duten uhinak bezala,
hegazti gris, iheskor batzuk,
bizkarrean urriko ahanztura zeramatarik,
eta, urdinska lorategia ederresten zuten hondamendietan
euriak babes eman zien
intxaurrondo, makal, zuhaitzen sustraiei,
udazken-haizeak zauritu bait zituen.

Etxean egutegiek, armairuek,
bolumen hautsezatuek, kartulina nekatuek
oihartzuna bailitzan hartzen zuten erlojuetako orduen azkarra,
mendeko hobien gisa paretak,
sekulako usaindun intzentsuak bustiak,
memonaren isurian noraezean,
hitzeko ibai batetako naufragoen gisa, eroriak.

Eta Iparretik untzi bat itzultzen zen lainoz eta elurrez beterik,
zuria.

Estatuek begiratu zieten beren beso galduen
urezko eta beldurrezko ispilu batetan
paisaiaren dirdiran zilarbizia aurkitu nahian,
lainopean aintzinako gloria berreskuratu zuen
hiriko biztanleak izanik,
eta itxura oneko dorreek ere
denboraren aurkako lehian askatzen zuten beren harria.
Nola arratsak misterioski erortzen diren
horizonteko lerrorik urrunean,
agoniazko eguzki baten kriseiluetan ezarririk,
itsaso gris baten uhinetan zilarra eta errautsa zabalduz,
halaza hegaztiak, berunezko urdinez
bizkarra zarrastaturik

ordu itzali hori zeharkatuz.

Eta Iparretik untzi bat itzultzen zen lainoz eta elurrez beterik, zuria

Denboraren basoan sortuak ziren sustantziak
munduaren gaineko itsasoaren hondarrea dastatuak,
kristalezko ezpata hutsa.

Eta kriseiluen beira grisean dagoen hats beheran
zure ahoa etxe bat zen,
tenploen sabai zuta ehuntzeko lekua,
lakua, atea bezalako ideia,
argitasunari, laizeei, arratsari gu lotuaz,
zeruak dalia beltzei irabazten zien bitartean
eta gauak, itzalen kalizak,
zipresen tuneletik irabazten zuen bitartean.

Eta Iparretik untzi bat itzultzen zen lainoz eta elurrez beterik,
zuria.

Ai, poeta,
haragizko hilobi batetako lili eroria,
itzultzen dakusagun mende hau horizonteko lerroa izan dadinean
eta beste untzi batzuk deseoren bidea zeharka dezatenean
zer egingo dugu zuk eta biok,
besarkadetan zauritutako membru beroetako lejjioa,
ahantzuraren eremuetatik barna,
laino urrun batetako hausta malban?

Salvador Espriu

—zeinen nekaturik nagoen, oso nekaturik,
ene herri zahar, koldar eta basati honegatik.
Zenbat gustatuko litzaidakeen
Iparraldera urruntzea,
non, esan didatenez, jendea
garbia eta noblea, kultoa, aberatsa eta librea,
lasai eta zorionsua den.

Orduan anaiek gaitzetsiz
esango dute: «Bere kabia uzten duen txoriaren
antzekoa da bere sorterritik aldegiten duena»

baina nik urrutiko lurraldean
barre egingo nuke
ene herri elkor horren jakituriaz trufatuz.

Ezin dut ordea halako ametsik burutu
eta hementxe geratuko naiz heriotzeko ordura arte.
Ni era basatia bait naiz, eta koldarra oso
eta gainera, maite dut
erraiak pitzatzen dizkidan min batez
herri pobre,
zikin, triste, zorigabe hau.

PLAJIATZEKO SAIOA TABERNAN

Pere Quart

Bat nator, ezin dezakezue pentsa ere noraino,
ene herri esklabu, zorigabearekin
eta minduko nindukeen oso
Hegoaldera joateak,
bere aldetik ihes egiteak,
esan didatenez han jendea zikina
eta pobrea da, ezjakina eta zarpaila,
etsia, dirugabea.
Orduan taberna berrian lagunek esango lukete
niri adarra jotzekotan: «Itsusiaz maitemintzen denaren antzekoa
da haragirik gabeko amua jaten duena»
eta bitartean, gertutik, pentsatuko nuke
herri burugogor honen gabezia eta konfidantzaz.
Eta horrela dena neurtuz gero atzera egingo nuke,
hemen hil arte geratzeko asmoak indarturik,
izan ere, azken finean, ez naiz horren astoa
eta maite dut
zatiezinezko maitasunez
hau nire —eta gure— herri
nahiko garbi, enbidigarri eta ederra.

LAGUNAREN TXERKA

 sudur ttikidun ene
 lagun horri

Zori onaren lurralde antxina ahantzira
hi eramango hauen zaldi txuriaren bila
betira haiz ibili...
baina aurkitu duna?
hain errez diri erideiten
maitale batek
duena maite?

Bai,
jadanik ez badaukan
aurki kausituren dun,
ez dudarik jar,
nik ez bait dinat jartzen
eta ez dinat jarriko.

Eta hire buruari dion eginen beha
beti zaldiaren soin txuri horren gainean
zilarrezko lepoari ederki helduta
hausnartzen bezela...
«Hola egongo naiz beti
lagunen artean
hola egongo naiz beti
haien babesean.»

J.L.



ZENBAIT GOGOETA GAZTELE- RAZ EGINDAKO NOBELAREN GAINEAN (1936-1981)

ROBERTO MANJÓN

*MENDE HONEN AZKEN URRA*tsetan sartu gara dagoeneko. Mendebaldeko gizartean izaten den antzera, aktibitateak erregularizatu dituen gizarte demokratiko batetan bizi gara. Aktibitate horietariko bat literarioa da. Azkenez, bada, erabat amaiturik dauden prozesuak, hurrean badaude ere, aztergarri zaizkigun puntu batetaraino heldu gara, halako moduan ezen, behar den gutxienezko tarte dagoelarik, 1936.eko gerla zibiletik postgerlaren amaiera artean (transizioa) egindako nobelaren historiaz mintzatzen hasi baikaitezke.

Gaian murgildu bezain laster zenbait galdera sortzen da. Zeintzu ote dira nobelagintza honen ezaugarri orokorrak? Zertan jarraitzen dio bertoko aurreko tradizioari? Ba ote dago hemen, nobelagintza honi dagokionez ere, berezko intertestualitatearik? Ez da, noski, diferentzia beharrez aurkitzeko grina, zein baita herri honetan dauden tradizioarik errotuenetariko bat, baina interesgarri deritzat paralelismoak eta dibergentziak aztertzeari, gure literatura zertan den ezagutuko badugu.

Has gaitezen, honenbestez, literatura eta kultur-marko zabaletara eramanez, gure nobelaren berezitasun eta unibertsaltasunaren sustraietan egon daitezkeen tradizioak agertzen.

Literatura erromantiko-fueristak euskaltasun eta euskaldunaren arketipo bat sortu zuen. 98ko euskal idazleek, Unamuno eta Pio Barojak, kontra egin eta literatura hau parodiatu zuten arren, azken finean, beraren intertestualitatea barneratuz, euskaltasunaren estereotipo berberari eutsi zioten¹. Horregatik, bilbotarraren obran eta are argiago donostiarrarenean desdoblamentu edo eskizofrenia literario bat gertatzen da, produkzio era bi ematen baitira, hala forma mailan nola konzeptualizazioari dagokionez, segun lehengai tematikoa bertan edo bertatik kanpo hartu duten, are gehiago, era bi horiek kontrajarriak ere izan daitezke:

- Batetik, existentziaren barne arrazoiaren bila diharduen heroi agonista duen garaiko nobela modernoa, berriztapen formal eta esperimentaziora lerratzen dena.
- Beste aldetik, aberriaren esentziak aurkitu nahi diren heroi epikodun nobela, beraz, konzepzioz protonobeleskoa dena.

Modernidadearen azken aldian, jadanik Erromantizismoan, Octavio Pazek esanari bagagozkio², fedek edo arrazoiak sostengaturiko irmotasun existentzialak porrot egin zuen (ez kasu guztietan noski), honela, mundu absurdo baten koherentzia eta existentziaren sentido a antzeman nahi zituen «moderno» deritzadan literatura mota bat sortu zen³. Kaoserantz egiten ari zen bidea isladatzeko forma nobelesko berriak behar zirela medio, nobela bide jorratu gabeak lantzen hasi zen, bereziki, mendearen lehen hiru hamarkadetan eta bigarren gerla mundialaren osteko lehendabiziko literaturan. 98koek ere, Pío Baroja egitura episodiko eta irekia duen nobelarekin⁴ eta Unamuno bere «nivolekin»⁵ buru zituztela, malda honetan gora ihardun zuten.

Eztabaidagarri da Pío Barojaren nobelagintza noraino den berriztatzailea. Zihur aski xx.mendeko nobela errealistaren epigonoa dugu, eta bere «berrizaleatasuna», duen genialitatea ukatu gabe bera izan baita bi mende hauetako lumarik gailenduenetariko bat, konzientzia ala zabarke-riaren emaitza ote den galde daiteke, alegia, egitura «irekia» duketen nobela horiek ez ote diren axolezaz atondu gabe utzitako lanak. Axoleza ho-

¹ JUARISTI, J.: «Cien años de literatura española en el País Vasco», pp. 12-16, *Letras de Deusto*, n.º 40. Enero-abril 1988.

² PAZ OCTAVIO: *Los hijos del Limo*. Seix Barral. Barcelona, 1986.

³ SHAW D.L.: *H.ª de la literatura española. El siglo XIX*, pp. 245-246. Ariel.

⁴ BENET J.: «Baroja y la disgregación de la novela». *Pío Baroja*. Taurus, Madrid, 1979.

⁵ AMORÓS A.: *Introducción a la novela contemporánea*. Cátedra. Madrid, 1985.

rrek berorrek, bere maila altuan, diogun bezala gertatu balitz, jarrera berri samar bat erakutsiko luke noski, Pío Baroja nobelagintza berriztatu «nahi» izan zuen idazlea dela esaterik ez bagenu ere.

Hala eta guztiz ere, autoreoi gizartearen modernotasun urbano, masi-boa eta industrialia ahazten zaie Euskal Herriaz diharduten gehienetan.

Paz en la guerra-n sortu zuen Unamunok geroago ere sarritan erabili-ko zen eskema ezabatun: baserria/hiria, bere barrura bildutako Baskonia bat eta mundu zabalera ireki nahi duen Baskonia hiritar burgesa. Borroka kosmiko bat da, denporaren sortze beretik datorren indar mitikoen arteko liskarra non baserritarra naturalezaz bat eginik sakralizatu den esentzia eternoen gordailu baita, Intranhistoriaren lehen sujetoa. Intrahistoriaren konzeptuak bultzaturik, nazioaren esentziak baserritar eta gizarte tradizio- nanean aurkitzeko nahian ibili ziren idazleak. Barojak, urrunago, jatorrizko esentziok denpora eta historiatic kanpoko denbora eta iragan mitiko bate- tan kausitu nahi izan zituen, endekatzea eragin duen prozesu latino-zibi- lizatzailea baino lehen: *La leyenda de Jaun de Alzate* besteak beste, dugu adibide.

Ramón Buckley-k⁶ bertoko nobelak nobela modernoarekiko nolabai- teko erresistentzia bat duela adierazi du bai eta genero protonobeleskoeta- rako halako joera bat non Ramiro Pinillaren *Las cigas hormigas* (1961) eta *Seno* (1966) elaberrietaraino ere heltzen baita.

Hortaz, tradizioz behintzat, nobela berriari heldu zaizkion tentsioak honako hauek lirateke:

- Existentzialismoa eta natibismoa⁷ (baserritar giro eta tradizioare- kiko mirespena, menpekotasuna, esentzien altxorra den neurrian, bide batez, hiritar giroari eta modernidadearen azken aldiari da- gozkion larridurak eta kezkek baztertzea).
- Nobela eta protonobela epopejikoaren arteko alternantzia; nobela- rekiko erresistentzia.

Unamunoren intrahistoriaren eraginpean ikuspegi dualista bera jaso zutelarik, *Hermes* (1917-1922) aldizkari eta *Escuela Vasca del Pirineo-ren* inguruan bildu ziren bertoko nobezentistak ditugu. Hala ere, eskema dua- lista horri jada eusterik ez zegoen J. P. Fusik adierazi duen bezala⁸ gerla aurreko Bizkaia hartan, jadanik, etno-kultura eta hiriko kultura burges tra-

⁶ BUCKLEY, R.: *Raíces tradicionales de la novela contemporánea en España*. Península, 1982.

⁷ Natibismoaz ikus bedi Juan de Aranzadiren saiakera: *Milenarismo vasco*. Taurus. Ma- drid, 1982.

⁸ FUSI, J. P.: «El Sitio» y el pluralismo cultural vasco». Conferencia inugural de la rena- cida sociedad «El Sitio». Bilbao, 28-1-81.

dizionalen gainean masa-kultura bat nagusiturik baitzegoen. Idazleok be-
rebiziko garrantzia izan zuten literatura falangistaren sorreran⁹: José Mou-
lane Michelena, De la Cuadra Salcedo, Rafael Sánchez Mazas, Jacinto
Miquelarena, José María Salaverría. Hauetako batzuk gerla denboran eta
lehen postgerlan zenbait nobela argitaratu zuten (Salaverría, Miquelarena,
Sánchez Mazas).

Salbuespenak salbuespen, gerla eta lehen postgerlako nobelagintza,
gainerako literatura guztiaren antzera, erabat ideologizatu, politiza tu eta
kausaren aldeko utilitarista izan zen. Hildo honetatik, azpimarragarria da
Falangeren nobelagintzan egon den agian nobelagilerik gailenduen nafa-
rra dela, Rafael García Serrano; berari zor falangismoaren nobelarik para-
digmatikoenetariko bat, *Eugenio o la proclamación de la primavera* (1938),
eta bere tankeran onenatariko bat *Plaza del Castillo* (1951).

Pío Barojaren gerla osteko produkzioa txikia izan ez arren, ez da-
kar ezer berririk: gain beheran zihoan zegoeneko. Hala ere, eraginkorrena
izan zen gerla osteko nobelagile gasteetan, ezinbesteko erreferentzia, arke-
tipoa¹⁰. Izan ere, idaztankera antirretorikoa eta lehorra izan zen, aldi bate-
tan, euskal idazlearen berezko estiloz hartzen zena.

Ricardo Barojak ere, sasotik kanpo, argitaratu zituen hiru nobela
historiko, 1936.etik 1941. arteko tartean.

Gerla osteko lehen literatura ez polarizatu (ez erabat behintzat),
aurrekoari «de guerra» baiteritzat, errealista izan zen baina xix.mendekoa-
ren ereduan. Portugaleteko idazle bat nabarmentzen da Miguel de Delibes
eta Camilo José Celaren atzean, historialdi honetan, aipaturiko idazle bion
mailan izan ez arren, lekurik garrantzitsuenetariko bat merezi duena: Juan
Antonio Zunzunegi. Eskumatarra, José Antonio Primo de Riverak parte
hartzen zuen gerla aurreko madrildar tertulietan ibilia, baina beste aber-
tzale eta iraultzaile askoren antzera, klase burgesak dezepzionaturik idatzi
zuen. Kontserbadore eta moralista da; prinzipio guztiak alde batera utzita
arin aberastu den burgesiaren kronika eskaintzen digu, baita gizarte fran-
kistaren ihesa morala ere. Narratiba oso luze bat du, ikutu naturalistekin.
Bere tradizionaltasunagatik, axolagabekeria teknikoagatik, gaien erreku-
rrentziagatik ez ezik, bere klasekide nahiz ezkertiarren etsaigoagatik baz-
terturik eta gaitzetsirik gelditu da aspaldi honetan. Badu meritorik: garaia-
ren testimonio aparta utzi digu bere obserbazio ahalmen indartsuari esker;
fabulaziorako erraztasun handia eta irakurle xehearengana heltzeko trebe-
tasuna.

⁹ MAINER, J.C.: *Falange y literatura*. Labor. Barcelona, 1971.

¹⁰ GUERRA GARRIDO, R.: «La literatura vasca en castellano» (1939-1984). *R.I.E.V.*, 1985.
Año 33, tomo XXX, n.º 1.

Gazteleraz idatziriko nobelaren historiako beste balio bat ere, eta ez hutsaren hurrengoa, ezin uka dakiok. Ez ote da Zunzunegiren nobelagintza begi burges-errealistek ikusita, Bilbo industrial eta finantzieroaren lehen azalpen nobelistikoa? Berau dateke, nonbait, erabat hiritar eta burgesa den narratiba baten agerpena gure literaturan, baldin Pío Barojak idatzi zuen «La lucha por la vida» trilogia kontutan hartzen ez badugu, azken batez, Madrid baitu eredu eta ez Euskadiko hiri bat.

Ez dezagun bistatik ken ezen gerla osteko espaniar lehen errealisismoan korronte bi alternantzia ditugula, batetik baserri girokoa (*La familia de Pascual Duarte* eredu), bestetik hiritar girokoa (*La colmena*, besteak beste eredu). Portugaleteko idazle batek, ordea, nagusitzen ari zen Espainia hiritar-industrialak erabateko lehentasuna duen nobelagintza bat bultzatu zuen. Halatan, badirudi hasieran aipatzen nuen dialektika gainditu zuela.

Zunzunegiren antipodetan, Rafael Sánchez Mazasen *La vida de Pedrito de Andia* (1951), lan poetikoa, formalista, bigarren hamarkadako Neguriko oligarkiaren gizaritari buruzko ikuspegi idealizatu bat, apologia garbia.

Euskal idazleen obra zabalak badu kalitate handiko elementurik. Mende erdian idazle gazteek errealisismoaren bidean iraun zuten, orohar, baina bi ardatz zeudelarik: humanista eta kritiko-soziala. Egia esan, korronte biak ziren kritikoak eta konprometituak, baina konpromisoa gizakiaren sufrimendurekin orokorrean hartuta, etikoki, izan zitekeen, edo-ta klase edo «herriarekin», politiko-ideologikoki, kasurako.

Honetaz gainera, gerla amaitu eta triunfalismoak iraungi orduko, zein Europan zein Espainian tradizioa zuen kezka eta larridura existentzialaren ziztada berriro agertu zen, berez, Modernidadearen azken aldiko joera hau ez baitzen itzali estalirik gelditu baino. Autore batzuetan larridura hau nabariagoa da noski, beste batzuetan, aldiz, izpi bakanetan barreiatzen da. Oraingo honetan enbata dugu eta ez erauntsia. Jakina, gizakiaren gorabehera orokorrak aztergai dituzten idazleen lanetan zeharkako korronte honek leku zabala izan dezake eta Ignacio Aldekoa Vitoriakoa adibide ezin hobe da.

Arabarra, Sánchez Ferlosio, Fernández Santos eta Ana María Matuteekin errealisismo humanitarioaren gailurrean azaltzen zaigu, beraz, gerla osteko narratibaren idazlerik inportanteenetariko bat da, zoritxarrez, heriotzak bizitza gazterik erauzi ziona.

Estilo eta teknikari dagokionez sarritan izan da laudatua beraren obraz idatzi diren artikulu eta liburu ugarietan; ez naiz, bada, alor horretaz ibiliko. Aspektu bi baino ez nituzke azpimarratu nahi:

—Aldekoaren nobelagintzan, oso laburra izan arren, kezka existentziala argien nabarmentzen den gerla osteko idazleetariko bat da; hortaz, gerla aurreko 98ko tradizioarekin lotuz eta bide batez postgerlan sortu zi-

ren forma foxilizatu eta ideien autarkiatik urrunduz, gizon modernoaren bila doan nobelaren bultzatzaile aparta dugu, garaikide zen europear existentzialismoarekin bat eginik.

Ignacioren lana atzera begira dago, baina bidenabar, datorrenari bidea zabaltzen dio.

—Aldekoa, zeren egunerokoari begiratzen baitio, garai berri bati ateak zabaltzeaz batera, Intrahistoriarekin loturik irauten duela, beste garai baten epigonoa da¹¹, laugarren hamarkadan ere indarrean ibili zen ideologia antihistoriko barruan izanik.

Ignazio Aldekoaren obra bidegurutze bat bide da. Izan ere, lanbideen epika bat egin nahi zuen errealitatearen mailarik xeheena agertu nahian, baina egitasmoan zuen trilogiari «La España inmóvil» tituloa jarri nahi zion.

Baliteke joera antihistorikoa eta epikoa, denboratik harantz denborarik gabeko elementuetan euskarriak aurkitu nahia, larridura existentzialaren beste aurpegia baino ez izatea, paradisoa galdutakoan, jainkomina-
ren agerpena; Carlos Parisek¹² Unamunoren intrahistoriaren konzeptuaren gainean ideia berau azpimarratu nahi duela dirudi. 98koek euskal exentzien bidez, intrahistorikoki, aurkitu nahi zuten. Aldekoak, ordea, euskal mundutik kanpo irteten du, ez du iraunkortasun ahistoriko hori Unamuno eta Barojak aurkitu nahi izan zuten baserritar eta itsasgizonen mundu tradizionalan bilatzen. Halatan, Erromantizismotik sorturiko intertestualitate eta tradizio horretatik kanpo dago. Jakina, Unamuno du iturririk hurbilnetarikoa, baina ateak itzita zituen Espainia hartan, besterik norik irakur zezakeen? Unamuno eta Baroja ziren, bada, edozein espainiar idazleren derrigorrezko irakurgaiak; Aldekoa garaiko giroarekin bat dator eta «euskal» tradizio horretatik kanpo, Unamuno hori baino unibertsalago baita. Izan ere Aldekoak dakarren mundu intrahistorikoan arrantzaleak badaude ere, edo ez dira Euskadikoak edo bertokoak direnean euskaltasunari ez zaio lekurik uzten; arrantzaleak ez badira, arma-zerbitzuaren inguruan bizi den jende xehea dakar, goardia zibilak eta beraien familiak (gogora bedi nobelaz ari garela, ez ipuingintzaz).

Seigarren hamarkadan errealismo kritikoa eta soziala krisian sartzen dira. Hiru eragile nagusi aipa ditzakegu: suposa zitekeenez, errealismo honen langilea kontzientziatuz frankismoa suntzitzeko saiakeran huts egin zuen; «Plan de Estabilización» zeritzanaren emaitza estabilizatzaileek langileriaren egoera hobetzen dute eta gabezi gorriak gainditzen hasten da;

¹¹ ARROYO, F.: «La sensibilidad literaria de Ignacio Aldecoa». Estudio introductorio a la novela *Gran Sol*. Noguer. Barcelona, 1988.

¹² PARIS, Carlos: *Unamuno. Estructura de su mundo intelectual*. Anthropos. Barcelona, 1989, p. 74.

baina literaturan barruko indarrak dira eraginkorrenak: alde batetik errealismo horren muga guztiak agortzera eraman zuten, beste aldetik, aire berri eta sarkor bat egoera estankatua zulatzen hasia zen, Hegoamerikako «boom» entzutetsua alegia. Hamarkadaren lehen urteetan, *La ciudad y los perros*, *La casa verde*, *Rayuela*, *Cien años de soledad*, besteak beste, eman ziren argitara. Kritika eta teoria literarioan hausnarketa guztiak formalismoaren bidera jotzen zuten: obra egitura linguistiko bat da, bere kalitatea duen eduki konzeptual edo ideologikotik landa dago; literaturak lengoaiaren berezko sistema bat osatzen duenez gero, ez du kanpora igortzen bere baitara baino. *Tiempo de Silencio* (1962) izan zen literatura objetibistari aurkezturiko lehen alternatiba. Gaur egun klasikoan artean aipagarri bihurtu zaigu. Hamarkada aurrera joan ahala, Martín Santosen konzeptzio irekia-goak nagusituz doaz: *Señas de identidad*, *Últimas horas con Teresa* eta *Cinco horas con Mario* 1966.ean argitara tu ziren.

Aurreko autoreen arteko askok ere (Zunzunegik ez) aukera berriztatzailea egin zuten. Idazleen kezka nagusia egitura, teknika ta lengoaiaren baliapideak garatzea zen. Hamarkadari gutxiengo batentzako nobelagintza intelektual eta esperimentalista batek buru eman zion. Esperimentalismoan sarritan gertatzen den era berean, argumentua, anekdota beraz, lurrundu zen; denbora eta espazioari dagokienez, linealitatea bekatu larri bilakatu zen; perspektibismo, ikuspuntu mota ezberdinak lantzeari lotu zitzaizkion nobelagileak; objetibitate eta subjektibitate erradikaletara ere heldu zen zenbaitetan.

Nobelaren berriztatzaileak (Joyce, Gide, Beckett, Kafka, Buttor...) gidari zirelarik, beraien aurkikuntzak berreskuratu ziren. Honela bada, barruko tradizioari ere eutsi zioten, Unamunok, Barojak, eta 98ko gainerakoek zabaldutakoari hain zuzen, Gipuzkoako gizon bat, Martín Santos, aintzindari zutelarik. *Tiempo de Silencio* aski nobela tradizionala da; 98koek duten konzeptzio nobelistikoa erakusten du: heroi intelektual baten perfekzio bidea, baina beti ere zapuzturik suertatzen dena. Helburu sozial-testimoniala ere hortxe dagoenez gero, aurreko hamarkadan nagusi izan zen nobelagintzarekin lotzen da. Oraingoan ere euskal idazle baten obra bidegurutze historiko literario batetan dugu, nobela nabarmen askoren antzera.

Nobela errealistaren sarritako gai bat «hemen ez da ezer gertatzen» izan zen, garaiko erregimenaren salaketa subliminala: *Tiempo de Silencio*-k gai kritiko honi jarraitzen dio, baina bide batez, pertsonaia nagusia, ingurune zientifiko batetan isolaturik, frakasoak eta ahalmen ezak obsesionaturik, sujeto agertzen da, halako moduan ezen ikuspegi objetiboa alde batera utzita, gerla aurreko 98ko nobelaren mundu ikuskera subjektibora itzultzibidea burutzen baita. Nobelan Espainiaren eta heroiaren miseriaz behin eta berriz mintzatzen da, frakasoak, antza denez, amaiera posible bakarra izanik. On-

dorioz, erlazio literarioak izkutagaitz azaltzen zaizkigu, Blanco Aguinagak eta, argi baino argiago adierazi duten bezala¹³:

—«Así, *Tiempo de Silencio* enlaza directamente con el pesimismo pequeño burgués de la generación del 98; pero, a la vez —y se diría que contradictoriamente— significa para la novelística española de postguerra el primer intento radical de asimilación a las técnicas dominantes todavía en Occidente, en particular los hallazgos mayores de Joyce y Faulkner (monólogo interior, diálogo indirecto, trasposición de planos temporales).

La fusión 98/Joyce-Faulkner no es tan extraña o absurda como podía suponerse, ya que las técnicas narrativas del irlandés y el norteamericano (...), no son sino las formas particulares de una visión aislacionista del mundo, de un solipsismo que —como en los del 98— pretende trascenderse a sí mismo en la meditación sobre la inutilidad del quehacer humano y —punto particular del que arrancan— sobre el absurdo de la vida irlandesa o la del Sur de los Estados Unidos.»

Martín Santosek, beraz, kezka zaharretarako garaiko forma bat erdiesten du. Euskal 98koen tentsioaren bigarren aldeak ba ote du adierazpenik militante sozialista zen donostiar honen lanean? Ez dirudi, baina Euskadiko munduaren problematika espezifikoa ez da, erabat behintzat, bere obratik at gelditzen. Hil eta gero, zoritxarrez beste idazle nagusi hau ere gazte joan baitzen, 1975.ean *Tiempo de destrucción* nobela amaitu gabea plazaratu zen. Euskal gatazka baten agerpen zuzena dugu: burgesia industrial eta baserritar munduaren euskal kosmogonia elkarren kontra. Ondorioz, Aldekoaren antzera, espainiar literatur-tradizio zabalarekin loturik dator, bete betean, bere emaitzarik nabarienetako bat delarik, baina euskal espezifitate bat izan dezakeen aipatu intertestualitatea ez da gupuzkoar idazlerena, arabarrena ere ez zen era berean.

Badu garrantzirik arazo etno-kulturalak, Bernardo Arrizabalagaren *Los Barroeta-n* salbu, euskaltzale agertzen baita, transizio arte ez agertuak, Luis de Castresanaren *El otro árbol de Gernika-n* (1968) azalduz gero, gaingiroki, erabat, bailizateke.

Transizioa baino lehen Ramiro Pinillak *Las ciegas hormigas* (1961) Nadal saria, *El tiempo de los tallos verdes* (1969) eta *Seno* (1972) bazituen argitara eman-nak. Eztabaidagarria de noraino lotzen zaion tradizio epika proto-nobeleskoari eta zein neurritan sartu behar dugun tradizio agonista-berriztatzailean, hau da, gazteleraz egindako nobelaren tentsioan partaidea ote denentz. Buckley-k, ezbairik gabe, *Las ciegas hormigas* eta *Seno* «ro-

¹³ BLANCO AGUINAGA, C.; RODRÍGUEZ PUERTOLAS, J.; IRIS M. ZAVALA: *Historia social de la literatura española III*, p. 221. Castalia, Madrid, 1984.

mance épico» protonobeleskoan sartu ditu¹⁴, honelaxe Pio Barojak esentzia nazionalen bila idatzi zituen nobelekin batera koka genitzakeelarik. Aipatu lehenengo nobelari nabardura epikoa ukatu gabe, ez dut uste epiko-nazionala denik, natura ta gizon langilearen (= txinaurria) kanta epikoa baino, are gehiago, nobelan dagoen kezka existentzialaren zamak gaiaren planteamenduan duen pisuaren neurria zehaztu behar litzateke, txikia denik uste ez dut eta; bide zuzenean banenbil, alde honetatik lotu behar genuke esku artean darabiltzagun aurreko korronte litaerarioekin.

Seno geroago, transizioan, ugalduko diren narrazio mitiko-legendarioen lehen pisuzko azalpena da; imaginaziozko literaturak nobelagintzan duen pisuaren adibide erradikala dirudi. Kasu honetan arazo etniko-nazionaletan zehar egindako miaketa eta bidaia argiago egon daiteke, baldin zibilizazioari bizkarra erakutsiz ama-jainkosa-emaztearen bila, ama perfektua, hots, bide batez, iragan mitiko-matriarkal eta esentzial baten bila diharduen komunitate ensimismatu eta endogamiko baten arazoan islada bada (zihuraski ikuspegi kritiko batez). Hala ere, Buckleyren interpretazioari arrisku-tsu samar deritzat eta azterketa sendoago bat egin arte, hortxe gelditzen da auzia, garbitu gabe baina ezpatak zutik.

Transizioan, *Antonio B...* «*El Rojo*» *ciudadano de tercera* (1987) aurrekoetatik urruntzen da; errealismo kritikoa bistan dago oraingo honetan, hala ere, nobela labur batez *La última guerra de Doña Toda* (1978) badukegu, bereziki transizio politikoari loturik, kondaira eta baserritar euskal kosmogoniaren mitoetan oinarritzen den egungo euskal gizartearen gatazkak aztertu eta egoera kritikatu nahi duen nobelagintza pekuiliar bat; parodiatzeko balitz ere, aurreko natibismo esentzialistari amore noraino ematen dion zehaztu behar genuke, hots, bide berria zaharraren eraberritzea zein neurritan den, zein neurritan diferente. Ez da gutxiestekoa errealismo magikoak euki dezakeen ikutu sakona, hala baliapide tekniko batzuei dagokienez, elementu fantastiko eta harrigarriak errealismo gordin eta tremendistarekin kontratatuz esaterako, nola maila sakonago batetan ere, nobelaren beraren konzepzio formalean, epopeiatasunak xix.eko euskal tradizio erromantiko legendarioan ez ezik, Amerikako nobela berrian ere euki baititzake bere sustraiak.

Pinillaren Nadal saridunarekin ia batera, beste Nadal bat: *Muerte por fusilamiento* (1963) José María Mendiolarena.

Transizioan experimentalismoa gain-beheran hasten da; berriro ere anekdota, kontatzeko gogoak lehentasuna hartzen du. Experimento eta ezaugarri testimonialik ez da falta, noski, nobelagintzan baina irakurlegoa konkistatu nahi dutela bide, literaturaren izate oziosoa baliotan jartzen da

¹⁴ *Op. cit.*

eta berarekin batera, frankismoan bazterturik egon diren azpigeneroak ere bai: nobela beltza, espiotzaren gainekoa, abenturazalea, magiko-fantastikoa. Noski, aipatu ditugun autore eta obra batzu garaikoak direnez gero, inguruarekiko armonian azaltzen dira.

Ez nuke amaitu nahi Raúl Guerra Garridoz zerbait esan gabe. Mende erditik hona suertatu diren forma nobelesko guztiak jorratu ditu bere obra erregular eta aberatsean. Anekdotaren interesari eusten dio gogoz baina arazoan azterketari muzinik egin gabe. Euskadi da bere eskenategirik kutunena, baina zilberrari beha egotea maite ez baitu, ez dihardu zeruertz mugatuegidun gorabeheretan, aldiz, garaiko problema larrien inguruan dabil (hemengoak eta kanpokoak); euskal gizarteari zein orokorrari dagozkien egungo arazoak ditu aztergai, batzutan oso zehatzak izan daitezkeenak *Lectura insólita del Capital*¹⁵ bere Nadal sarian gertatzen den bezala, bertan, transizioan euskal gizartean terrorismo, sektore abertzale diferente eta berauekin loturik dagoen jatorri tradizionala duen kapitalismo espezi-fiko bat eta, hauetatik kanpo baina neurri batetan kontrajarririk, protagonismo handia duen langileriaren arteko gatazka aztertzen baita.

Laburbilduz, esan dezakegu ezen gerla osteko euskal idazlerik nabarmenenak, espainiar literatura gehien nabarmentzen direnetakoak ere badirela, Euskadik Espainia modernoan duen eragin eta leku zabalarekiko koherentea dena (bere estruktura sozio-ekonomikoa dela medio, kultura eta literaturan ere ondorioak izan dituen); kasu bitan, edo hirutan, literatura horren gailurrean azaltzen dira. Berriro ere, bertokoen aportazio hauen adierazpidea gatzelera da, 98n gertatu zen antzera. Idazleok espainiar literatur giroan bete betean murgilduta daude, bai eta beronen tradizioarekin batu ere. 98koen literatura, eta bertan Unamuno eta Pío Baroja nabarmentzen direlarik, garaiko idazleen zutabe nagusi bat da: honetan denak datoz bat, hor ez dago euskal idazle hauen espezifikotasunik. Baina Unamuno eta Barojak dituzten bi mutur (agian txanpon beraren alde kontrajarri bi baino ez direnak) horietariko bat baino ez dute jaso, beraz, euskal erromantizismoan sorturiko intertestualitatea ez dute jaso, elementurik unibertsalenak baino. Zunzunegiren hasua aparte gelditzen da. Zihur aski xx.eko tradizio nobelistiko galdosianoarekin lotu behar genuke, bere euskal emaitza berankorra delarik, baina neurri beronetan, euskalliteraturan (osoan) eraberritze bat lizateke, zeren euskeraz zein erderaz idatziriko nobelek izan dituzten intertestualitate, balio-mundu eta forma nobeleskoa gainditzen baititu. Zehaztu beharra dago izan dezakeen nobelagintza barojanoarekiko erlazioa bere eragin, konbergentzia eta dibergentzietan.

Barakaldo, 1989.eko Urriaren 1a

¹⁵ GUERRA GARRIDO, Raúl: *Lectura insólita del Capital*. Destinolibro. Barcelona, 1981.

ESAN BAIETZ

KOLDO JULE GARAI

ESAN BAIETZ

Ilargian ispilatzen
dardarka abotsa
aldarrikatzen barneko orrua
 Esan baietz,
 hala bedi
 hala dala

Ametsak egia bihurtu
arimaren hegi kikun beherantz
Arestigaz.
 Laprast errealitatean
 Alperrikaltzen esateko ordua
 egite ganorabakoetan.
Bestelakoak ziren nire ekintzak
bestelakoak nire beharrak:

jateko ez nuen gozorik hartu
—Bero gorputza
bihotz hotza—
haran goxuak berdezka
itxaso bat eginez
lotzen, elkartzen ondartzatza batetan,
 ondarra eskutartean
 zeruan begiak elkartzen
 sapaia zapalduz...

Baina argi beltza datort
 belarrietan muxuka
 eta loan ere ikusiko dugu elkar
 Hala bedi
 hala dala.

Bakartia ur bihurtu
 Zenbateraino jausi barik jazango?
 Ukango bahindut
 Esan baietz.

Munduari gorroto
 goizean goiz esnatu
 eta Munduari gorroto.
 Bakarrik,
 kolkogordean bohindukat
 ez nuke besteren beharrik.

Beharra berdezka
 hartu ekintza batetan
Bihurtu beherantz orrua
 Ilargia dardazka
 ispilatzen abotsa
 Errealitatearen ordua
 Arestigaz
 Eta loan muxukatzen

eskutarteak elkartzen
ondarra batzerakoan
sapaian lotu gozokiak.
Ondartza beltza datort,
 Illundu dula
 hala bedi
 hala dala.

89ko 12aren 29an, non eta Bermion.

KOLDO JULE GARAI





SISTEMA SEMIKO EZ-LINGUISTI-KOAK Dostoyewsky-ren *Bihotz abula*-n

ANA ISABEL MORALES

Sarrera

NOBELA BATEAN INFORMAZIOA EZ DATORKIGU bitzetatik bakarrik. Badira hizkuntzari ez dagozkion baina esanahi handiko diren beste «zeinu» mota asko, obraren sare semantikoa osotzen laguntzen dutenak. Daturik inportanteenak sistema semiko desberdinetako elementoen bitartez azpimarrtu ohi dira. Keinuak, higikerak, objektuak... denak zaizkigu mintzo *Bihotz abula*¹ nobelaren barruan. Ondorengo orrietan hizkuntzaz kanpoko «zeinu»en azterketari ekingo diogu, ikuspegi semiotikoaren arabera, i.e., beren esanahi eta funtzioak gogotan ditugula.

Berbatik ate dagoen komunikabidea, une bakoitzean erabilitako zeinu motaren arabera, hiru arlo nagusitan banatu dugu: zinesika, proksemika eta objektuak. Ikus ditzagun mailok banan-banan:

¹ DOSTOYEWski, Fedor: *Bihotz abula* Donostia, Hordago, 1984. Aipamen guztiak edizio honetatik ateratakoak dira. Kako artean birremandako esaldien osteko zenbakiak orrialdeari egiten dio erreferentzia. Azpimarka guztiak geureak dira.

1. Zinesika

—Atal honen barruan mogimendu eta espresio fisikoari lotutako zeinu guztiak sartuko genituzke. Birdwhistellek hiru taldetan banatzen ditu: keinuak, moduak eta jarrerak.

1.1. *Keinuak*

Eskutan daukagun nobela izugarri aberatsa de alde honetetik. Pertsonaien hitzak (edo ixilaldiak), begirada, irribarre, azal kolore etabarrek lagundurik datoz sarritan. Arkadii eta bere lagunaren izaera, erlazioa bera, ikonikoki aurkezten zaizkigu, etengabe aipatzen diren elemento zinesikoaren bitartez. Alperrik ahaleginduko lirateke pertsonaiak gezurra esaten edo sentitzen dutena izkututzen: beren kanpoko itxurak salatu egingo litzuzke.

Gure esposizioa sistematikoagoa izango delakoan, pertsonaia bakoitzari dagokiona banan-banan ikusiko dugu:

VASIA-pertsonaia honen eiteari buruzko berri gutxi daukagu. Dakiguna, hala ere, oso mamitsua da: hain zuzen ere, presentazio momentuan ezohizko lujoz jantzirik dator gure gaztea:» festetako trajea eta atorra txuri-txuria (...) Janzkeran, honenbestearainoko lujoak harritu egin zuen ohean zegoena», 15. Badakigu, beraz, halako dotore-zaletasun berria eragiten duen zerbait dagoela Schumkoven bizitzan. Lisarekiko maitasunak itxura fisikoari buruzko ardura berezia harrerazten dio Vasiliiri.

Bere gorputzaz datu solte baina oso inportanteak ematen zaizkigu: bere ahultasuna da lehenbizikoa: Ivanovitchek oso errez menderatzen du «arnasesturaino zanpatuz», 16, 17, eta ez dauka bestearen eskutatik askatzerik Arkadiik nahi duen arte.

Bere indar eza ez zaio zor, hala ere, gorputz ttipitasunari: «Baina hartu zuen Vasia gizarajoa besoetan, haurra bailitzan, eta bere laguna txikia ez zen arren, alderantziz baizik, haur bat lotarazten den modura, gelan paseatzeari ekin zion», 18. Jite duineko dela esaten zaigu: «Hau bere planta duina galdu gabe zihoan», baina baita akats fisiko nabarmena duela ere: «Baina akats fisikoa ere badut, sorbalda bat bestea baino beherago dut, badakizu; eta hori horrela izanda ere maite nau, naizen bezalaxe», 38; «Gorputzean izaera akats bat dut Ezelentzia. Ahula naiz, ez dut soldadutzarako balio», 101. Aipamen errekkurrenteak ezaugarri honen garrantzia azpimarratzen du. Interesgarriena, ordea, ez da akatsa bera, berarekiko jarrera eta erreakzioak baino: Arkadiik erruki dio lagunari (de facto, ikusiko denez, Ivanovitchek Schumkovi dion maitasunean errukiak papel inportantea jokatzen du, bai eta beronek sortzen duen babesteko joerak ere). Vasiaren

espirituzko ahulezia bere ahulezi fisikoan isladatzen da, eta maila bietan bere adiskidearen «zaindari» joera bera sorrerazten du.

Vasiliirentzat berarentzat bere akatsa balio aniztuna da: batetik, bes-teen maitasunerako eragozpena izan daiteke, baina halaber, baliteke aurrera egiteko tresna baliagarria izatea, emandako adibideek erakusten dutenez. Bada, makaltasun fisikoarekiko hartzen duen jarrera bikoitz berbera ahulezia espiritualarekiko ere hartuko du: besteek bera maitatzeko oztopo izan litekeela dio: «... inoiz ezin izan dut onik egin, edozeini izanda ere; ez nekien nola konpondu, ezinezkoa zitzaidan (...). Eta hala ere, denek maite ninduten... Eta halaz eta guttiz ez dut isildu besterik egiten, beti isildu...», 78. Baina, era berean, soldadutzara ez joateko bezala, bere defentsarik ho-berena da: (Mastakovitchek) «Nire malkoak ikusiko ditu eta kupidatuko da», 81.

Bere betarteaz jakinarazten zaiguna oso gutxi da, baina nahikoa neu-rrigabeko goxotasuna irudikatzen duten begi urdin hoiekkin geratzeko: «Bi begi urdin haundi, malkoz beteak, eta aurpegi ezti eta zurbila...», 91.

Beraz, parekotasun miragarria dago izaera fisiko eta psikologikoaren artean: handia (bere bihotza zabala den moduan), duina (denek maite eta errespetatzen zutela irakurtzen dugu behin baino gehiagotan), baina gain-duituz ezinezko ahulezia duena. Makaltasun honek besteen aldetik xamur-tasun berezia ekarriko du, eta Vasia gizagaixoa zaintzeko tendentzia (Arkadii, Mastakovitch, Lisa bera). Schumkovek, bestalde, aipaturiko balio diferen-teak aurkituko dizkio.

Oinarrizko ezaugarriok nobelan barna zehaztuko diren keinu eta hi-gikereren abiapuntu izango dira. Arpegi, ahots etaabarren azterketak ikara-garrizko informazioa ematen omen du, pertsonaiek beraiek ezagutzen du-tenez: «Arkadii Ivanovitchek lagunaren aurpegia aztertzen zuen, honen pentsamenduak barneratu nahiz», 92. Ondorioz, une bakoitzean Vasiaren gorputzak «esaten» duenari arretaz begiratu azkeru, bere izakera eta jo-kaeren zer-nolakoak ikasiko ditugu. Hasierako orrietatik bertatik igartzen diogu zihurtasun eza, nahiz eta zorionez beterik agertu: «Artemieva ande-reñoa!-isilkatu zuen Schumkov zorion ikarazko ahotsez», 21. Ahotsak biho-tza posez gainezka duela diosku, baina alaitasunean ere berezko duen asaldura sumatzen zaio. Arkadi «ozenki» mintza zaion bitartean, Vasiak «txurmurka» erantzuten dio. Lanerako ere espresio iluna agertzen du aur-pegian: «gero, bekokia ilunduz, (aurpegi mugimendu honetan bere lane-rako gaitasun osoa zetzala, irudi), mahai gainean barreiatu zituen pape-rak begizatzen jarraitu zuen», 27. Vasia ez dago lasai, ezagun berria duen zorionak urduritu egiten du, baina horrezaz gain, badauka beste kezka bat, oraindik aditzera ematen ez zaiguna, baina berehala adieraziko dena. Ko-pistak duen bihotzesturaren lehenengo zantzuak hemendixe hasten zaiz-kigu ematen: «Lumak aldatzen zituen, aulkian mugitzen zen, hasten zen be-

rriro idazten, baina ikaraz zuen eskua», 27. Schumkov ezinegon izugarrian dago, baina, hala ere, ihes egin nahi dio errealitateari: «Zenbat daukazu Kopiatzeko? (...) Vasiak imintzio bat egin zuen, proposa ziezaiokeen gogaikarri eta ikaragarriena balitz bezala galdera hau», 28.

Bere adiskideak lanari buruz galdetzean, Vasiliik gezurra esango du; bere gorputzak, ostera, ez daki egia izkututzen: «Vasiak, dardarka, kuaderno bat luzatu zion (...) —Gehiago ere bada oraindik, lagun— esan zuen Vasiak ahots eraitsi eta kolokaz. Zenbat? Bi... kuaderno.» 30.

Ikusten denez, narratzailea da gehienetan keinuen interpretazioa ematen duena. Pertsonaiek, askotan ez dute problemarik hitz gabeko komunikabide hau ulertzeko; zenbaitetan, hala ere, kodifikaturik ez dagoen sistema izateagatik, badaude duda-mudak: «Nefedovithek irrifarre egin zuen et begirada bihurri bat zuzendu zion lagunari; begirada lotsati samarra hala ere, larri antzekoa. Ez zekien nola hartuko zion bere adiskideak», 28.

Vasiak bidaltzen dituen «zeinu» guzti horiek egoki interpretaturik ez izatearren, hain zuzen ere, ez du Arkaschak bere lagunak oztentzen diona asmatuko. Areago, poz giro berberan murgildurik, Lisarenera joatea eskatuko dio, Schumkoven ahuleziari ateak zabalduaz. Izan ere, berehala ahaztuko —edo ahaztu nahi izango ditu— Vasiliik bere nahigabe guztiak, hain bereak dituen «ezin eutsizko hunkipenetan murgildurik», 31.

Oso interesgarri da umore aldaketa hau zinesikak nola isladatzen duen: lehenengoz opari bat erosi nahi dio bere andregaiari; umea bailitzan bere emozio guztia keinu eta imintziotan adierazten du: «—Izan ere, Arkadii-hasi zen Vasia, misteriozko keinu batez— izan ere... Ahotsa itzali egiten zitzaion, zirrara xamurregi baten zamapean. —Zer?/Opariren bat eraman nahi nioke Lisenkari!», 32. Hemendik aurrera, hunkipena, zoriona, ia infantila izango den artegatasuna nagusituko dira: «—zioen algara txikika barre egiñez»; «Maitasun gailen baten eresi guztiak dardarikatzen zirela zirudien haren hitzetan»; «Hitzegitean, ahotsa aldaerazi zioten negar zotin itoek», 37.

Vasiak sentitzen duena ez zaio bihotzean kabitzen. Malkoak ezinbestean datozkio begietara, baina bere sentiberatasunak lotsatu ere egiten du eta, obraren amaieran bere emaztegaia izandakoak —eta honen neba txikiak— egingo duen moduan, «zuen barne zirrara ezin gailendurik, burua jiratu zuen, ezkutuka begiak lehortzeko», 38. Oso jakingarri deritzogu datu honi, hiru pertsonaien arteko, batez ere senar-emaztegaien arteko parekotasuna markatzen duten adierazlerik bat baitugu, geroago sakonduko denez.

Artemieveneko ikustaldian Schumkovi dagozkion zinesika elementurik ez dugu aurkitzen. Nobelaren parte honetan beste sistema semikoek hartzen dute lehentasuna, eta gainera, nahiko lainotsuki agertzen da pertsonaia hau, gure begia besteengana doalarik. Itzulera dugu, Vasiliiri dago-

kionez, garrantzitsuago: orduan gauzatuko da bigarren aldaketa, edo hobe esateko, aurretik iragartzen zenaren leherketa.

Krisialdia:

hitzek baino gehiago edo bezainbeste behinik behin, gorputz espresioek erakusten digute Vasiaren prozesu psikologikoa. Euforia parentesia iragan eta gero (hau da, bere buruari egindako engainuaren lilura ezabatu ondoren), berriz itotzen dute ardurek: hasperenak, tristura keinuak... : «une batetik bestera betilundu eta pausoa bizkortu zuen», 50. Kontalariak ezezik, pertsonaiek ere ematen digute elementu zinesikoen berri, guk ikusi ezin duguna beren esanen bidez iradokiaz: «Uxa itzazu goibelaire horiek, Vasia», 50. Honela irakurleak parte handiagoa dauka giroaren konstruzioan, berak imajinatu behar dituelako eskenaren zertzeladak. Gainera, testua arindu egiten da, narratzailearen azalpenak desagertzen direnez. Dena dela, kontalariak batera erabiltzen ditu teknika biak, datu ekstralinguistikoak era honetan azpimarratu egiten direlarik.

Oraingo sintomak aurrekoan eukitakoen antz-antzekoak dira: «zurbil», «begi dizdiratsuak», «mugimendu bakoitzean (...) ezinegona», «dardara eskue-tan», 52. Diferentzia, lagunaren erantzunean datza: lehen, hauen moduko keinuek ez dute Arkadii *izutu*; orain, berriz: «beldur lauso batek izutzen zuen», 52. Tentsio igoera nabarmena dugu hemen. Vasili, zorionik gorenetik melankolia sakonenera igaro da jauzi batez. Arkadiiren etengabeko galderek gogaiturik, «itxuraz haserre», 52 agertzen da Schumkov. Berriro ere beste pertsonaiaren komentarioak azpimarratzen du egoeraren larritasuna, guk ikusi ezin duguna jakinaraziz: «Hori da aurpegia duzuna, Vasia!», 52.

Lehenengo lan-gauaren ostean, Arkaschak «zurbil zurbil» eta «erabat indargeturik» aurkitzen du; honek urteberri zorionsua opa dionean, Vasiak «okotza dardarka» zuen eta «begiak busti zitzaizkion». Aldapaz beherako animo egoera honek badauka, hala ere, aterraldirik. Interesantea da ba-kealdiaren eragilea aurrekoaren islada dela ikustea. Lehen, Lisaren etxera joateak uxatu dizkio kezkek; orain, neskaren neba txikia izango da tristura guztien ezabatzaile: umea ikusten duenean, Schumkovek jadanik ez du «txurtxumurkatzen», «Aldarrikatu» egiten du (61); dardarka dago, baina «hunkipenez», 62.

(Oso adierazgarria da, bestalde, Vasiak pozik dagoenean ere «dardar» egiten duela; bere alaitasunaren adierazpidea, ikara erakusten duen berbera da: pertsonaiaren oinarritzko ahulezia oso markatua dago).

Eromena:

bere problemen aurrean berriro egoteak tristezian murgilduko du Vasia. Lagunaren konfidantza traizionatuko du Mastakovitchen etxera joanaz, eta Arkadiiren galdera entzunda: «etsipenezko keinu bat egin zuen eskuaz», 65. Vasiliik «totelkatu» 66, 69, egiten du berriz, «zigarro paper bat bezain zurbil» agertzen da adiskidearen aurrean.

Egia argitu momentuan, Schumkoven aurpegiak bere bihotzestura salatzen du: «Ametsetatik esnatu zela ematen zuen. Ezpainak dardarka zituen, hitz egin nahi zuen, baina ezin zuen hitzik ere esan. Haren esku izoztuak, lagunarenak estutzen zituzten ikara bizian», 70.

Eroaldiaren atari honetan, progresioak, lehenengoan bezala, baditu bere etenak, tarteak. Ivanovitch bere laguna animatzen ahalegintzen da, eta bere indarrak batzutan Vasia zoritxarrekoa ere ikutzen du: «Irrifarre batek azaltzea bezala egin zion ezpainetan. Eta itxaropen antzeko batek zuzperzen zuen haren aurpegia», 76.

Baina nagusitzen direnak, bestelako keinuak dira. Arkadiiri bere lana egitan zein den azaltzen dionetik aurrera, Mastakovitchi huts egitearen bildurra ia fisiko bihurtzen denean, izugarritzko pisua bailitzan esker txarrekoa den usteak Vasia erruki gabe zapaltzen duenean, alegia, «hagoadura sakonak», 72 egiten ditu; begiak (oso aipamen errekurrenteak dira begiei dagozkienak) «bustirik» ditu, 75; ahotsa, aldiz, «nahigabetua», 77. «Nigarriari eragin zion eta haren malkoek blai eginda zuen lagunaren eskua», 77. Politia da esaldi hau lagun bien arteko enpatiaren adibide grafiko moduan erabiltzeko. Sentimenduak batengandik bestearengana hedatzen dira: gorputzak, komunikazioan ipintzen ditu pertsonaia biak, agian hitzek baino gehiago.

Eromenaren lehenengo seinaleak gorputz zantzuen bitartez ematen zaizkigu. Lagunak berak igartzen dio zerbait berezi begiradan: «—Ongi dago, Vasia, baina, zergatik begiratzen didazu horrela? —Ez dakit ezer, ondoezik nago, hankak dardarka ditut... Tximeleta berdeak igarotzen zaizkit begi aurretik... eta hemen —keinu egiten zuen, eskua bihotzera eramateko, eta konortetik gabe erori zen», 80. Azalpena ezin esanahitsuago da: batetik, pertsonaia zorabidean sarturik ikusten dugu, eta bestetik, obraren gakoa adierazpide metonimikoaz ematen zaigu: bihotzean sentitzen du mina Vasiak, hori da bere puntu makala. Orain, konortea galdua, jausierazi egiten du; amaieran, beste hainbeste jazoko da: bere bihotz ahulezia dela kausa zoratu egingo da. Beraz, eroaldiaren lehenengo pausotik bertatik aurreratu zaigu zinesikaren bidez bukaeran ikusiko duguna. Bobes Navesek dioenez, hemen aurkezpen ikonikoa eukiko genuke. Bere funtzioa, jakina denez, azpimarratutako momentuaren garrantzia nabarmeneraztea da.

Berehala dator zoramena markatzen duen bigarren urratsa: lehenda-bizi, halako euforia langileak harrapatzen du Vasia: «Honek, isilik, idazten jarraitzen zuen, bururik ezertarako altxatzeke», 85; «Vasiak hildakoarena zirudien begirada mugiezin bat jaso zuen lagunarenganaino», 85. Katalepsia-aren ezaugarriak ere oso grafikoki deskribatzen dira: «Vasiak bazirudien go-goeta ilun eta astunen bat aldendu nahi zuela burutik; behin eta berriro kopetan zehar pasatzen zituen bere behatz gakotuak. Bat batean esku artean hartu zuen burua, lehertuko ote zitzaion beldur bailitzan», 86.

Arkadii, Schumkoven egoera larriaz, automata baten gisa idazten —tintarik gabe— ikusten duenean bakarrik konturatzen da benetan. Izan ere, Vasiliik, arrazoimena galdurik, ehizaturiko animaliarene moduan erreakzionatzen du. «Hiltzurrunga batek astindu zuen Vasiaren bularra». «Ulertu ezinik lagunari begiratuz eskua erortzen utzi zuen, gero kopetaraino jaso eta hura estutu zuen, bihotzestura izugarria adieraziz, zanpatzen zuen pisu astun batetatik libratu nahiean bezala. Logurez, ezer sentitzeko gauzez, bular gainean etzan zuen burua (...). Bi begi urdin handi, malkoz beteak, eta aurpegi ezti eta zurbila, geldi geldi altxatu ziren, esan ezinezko bihotzestura nabarmenduz. Ezpainak hitzik esan gabe mugitzen zitzaizkion», 91.

Azkenez, bere onetik erabat aterea, esker txarrekoaren zigorra soldadu joatea izango delakoan Mastakovitchen bulegoan agertzen denean, hauxe da erakusten duen itxura: «Vasia bazter batetan zegoen, isilik eta lur joa, zurbil oso, burua tente (...）」, 99. «Vasiak gogoeta sakonak egiten ari denaren itxuraz, lehen baino ere gehiago konzentratzen zela zirudien, pentsamendu iheskor bati eutsi nahiz, antza; sofritzen zegoen nabarmenki, itxadote ezezagun baten ondorioz (...). Azkenean, atsedenezko hasperen bat egin zuen, itxaropen argixka bat», 100. Nagusiaren bulegoan dagoen bitartean, Arkadii militar joateko aginduaren zain dago. Egia esan, edozein aginduren zai dagoela esango genuke guk, momentu bakoitzean —eta batez ere honelako une larrietan— zer egin behar duen esan diezaiokeenari itxaroten. Bere begirada antsiatuak erakusten digu nagusiren baten menpean egon beharra: «Haren begirada Yulian Mastakovitchen aurpegitik ez zen aldentzen», 98; «Uneoro ate aldera begira zegoen, abiatzeko aginduaren zai zegoela esan zitekeen», 102.

Schumkovek, bere izularrian irudimenezko zigor hori sahiesteko ahaleginak egiten ditu («ahula naiz, ez dut soldadutzarako balio», 101), baina sentitzen duen ahaladurak, merezi omen ez duen zoriontasunaren ordainez zerbait ematera behartzen du. De facto, Vasia, bere lagunak 74. orrialdean adierazten duenez, bere «kontzientzia baretzeko heroismoa egin beharrean» dago, eta, horrezaz gain, premiazko zaio bere bizitzaren gidari den norbait. Izan ere, behin baino gehiagotan Arkadii barik bizi izateko ezintasuna ezagutzen du (10,39). Gauza biok, «ahulezia parkaezina» —Arkascharen hitzetan— eta erruduntasun sentimendua, izango dira Vasiaren azken ihesaldia bortxatuko dutenak. Lisa (eta honen familia) izan dira errealitatearen oinazetik atera dutenak hasieran; baina ihesbide hau era berean mingarri suertatzen zitzaion, sentierazten zioten zorionak beregan ustea jarrita zeukatenekiko esker txarra omen zekarrelako. Azken irtenbidea garratzagoa da, baina Vasiaren izaerari begira, nolabit esateko, «garbiago» ere. Eromenaren bidez, jasaezina zaion errealitatea albora uzten du, eta, gainera, egin dituen edo ditzakeen pekatuak ezabatzen ditu. Hobeak erabat kittatzeko biktima bat behar omen da: Schumkov bera izan da

sakrifizio honetako bildotsa. Nobelan berari buruz ematen zaigun azken erreferentzia zinesikoa da, hain zuzen: «Zalapartaka jaitsi zen eskileretatik, mundu guztiari agur esanez. Etsipena agertzen zen haren aurpegian», 104. Larogeigarren orrialdean ikonikoki iragartzen zitzaiguna oraintxe bete da gure begien aurrean.

Vasiari dagokionez, errealitateak eskatzen duen adorea ez daukaten herioaren historia genuke hau. Mundua, kementsuena ei da: erabakitsu eta ahulen artetik bakar bakarrik geratu da lehenengoa, jakina. Baina, gure aburuz, hau ez da bizitzari aurpegia emateko gai ez zen gizagaixo baten kontaketa hutsa. Gehiago bada, eta sakontasun hori, gure begia Ivanovitch pertsonaian ipinirik ikasiko dugu:

ARKADII

Pertsonaia honen zinesika adierazpenak aztertzeko, Vasiarenak analizatzerakoan erabili den eskema berberari jarraituko gaitzaizkio, hau da:

—ezaugarri fisikoak.

—keinuen interpretazioa historian.

Hasieratik Ivanovitch Vasili Schumkovi oposaturik agertzen zaigu.

Deskripzio zehatzik ematen ez den arren, han-hemenka sakabana-turik dauden datuek bere itxura zirriborratzen digute: «Baina Arkascha, konpreni ezazu, horrela ezin daitekeela ezer egin —zioen deihadarka Vasia ahulak, atxikitzen zuen *beso indartsutik* libratu nahiz indarka ari zen bitartean—», 17; «Zorurik ukitu gabe, Petinka, Arkadii Ivanovitchen *beso abaltsuek* estutu zuten.» 61. Orrietan barna bere sendotasunaren aipamen ugari kausitzen ditugu: «Eta Arkadii zutituz, zen bezain *garai* agertu zen», 75.

Hizkeran ere, bere lagunak ez daukan zihurtasuna erakusten du: «Vasia, —hasi zen Arkadii Ivanovitch ahots zihurrez— nik salbatuko zaitut», 72.

Hastapenetan jadanik, beraz, pertsonaia kementsu legez aurkezten da. Bere lagunari adarra joaz, nagusitasun fisiko horretaz baliatzen da Vasili ohe gainean etzaerazteko. Bere izaera aktibo eta adoretsua poza adierazteko egiten dituen keinu eta mogimenduetan ere jartzen da agerian: «Bainan Vasiaren aurpegian baietza agertzen zela ikustean, hasi zen ohe gainean jauzika, hainbesterainoko poz eta alaitasunez zilipurdiak egiten, non gela osoa dardaraz jarri baitzuen», 21.

Ivanovitch bere mardultasun eta lagunaren ahuleziaz ederki jabetzen da. Biziki maite du adiskidea (bai eta honek Arkadii ere bai), baina Vasiaren makaltasunak bere sentimendu hau areagotu egiten dio, eta adierazpide xamurragoak erabiltzera bultzatzen du (32). Jakinaren gainean dago

Arkascha bere lagunarekiko hartu behar duen —bere ustez— jarrera paternalistaz. Biek asumitu dute dagokien papela, eta, dirudienez, gustora daude bakoitza bere roll-a betetzen. Erlazio hau, keinuen bidez ezezik, jarrera eta moduen bitartez ere azaltzen da nobelan, geroxago ohartuko garenez.

Schumkovek isilka eta totalka hitzegiten duen bitartean, Arkadii «ozenki» mintzo zaio, «arin hitz egiten zuen», 29. Vasiak emandako berriak laguna beste zorientzen du Nefedovitch, eta alaitasun hau gorputzak salatzen du.

Kuriosoa da pozezko une honetan gorputz espresio berberak lotzen diotela lagun biak elkarri: biak batera negar eta parre, baina hala ere, orden desberdinean: «Arkadii Ivanovitch, zeinek bere ibilera txoroak izan arren, oso bihotz sentikorra baitzuen, farre eta negar egiten zuen aldi berean. Vasia ere negarrez eta farrez ari zen eta berriz besarkatu zuten elkar», 20.

Arkadii benetan hunkiturik dago: Vasiarekiko xamurtasuna dela eta «Ahaleginak egin beharrean zihuan malkoei eutsi ahal izateko», 32.

Interesgarria da badagoela lainotsuki planteaturiko parekotasun bat protagonista bien artean. Esan bezala, Vasiak ez du bere burua bihotza gainezkatzan dion zorientasunaren duin ikusten: hauxe da Arkascha berak adimen zorroztasun handiz zenbait aldiz komentatzen duena. Gu ere bat gatoz horrekin, eta Vasia bera ere azalduko eritzikoa da gainera. Baina, Ivanovitchek sentitzen duen maitasun-errukiaren adierazpen fisiko eta hitzezko guzti horiek, ez dira Schumkovena bezalako sentimendu batek eraginda? Hau da, ez dugu zalantzatan jartzen Arkadiik lagunarekiko duen maitasuna, noski ezetz, baina zaletasun demostrazio ugarion iturria horretan datzala uste dugu. Hari honetatik Nefedovitchen gogoetok sano argigarri ditugu: «Baina Arkadiik halako maitasun isurpenik ez merezitzea botatzen zion aurpegira bere buruari. Hain gutxi egin zuela ordura arte iruditzen zitzaion! Lotsa antzeko bat sentitzen zuen, artean izandako tratuan inolaz ere justifikatzen ez ziren adierazpen sendo haien. aurrean. Orduan, bizitza osoa zuela aurrean zuzentzeko pentsatu eta gustorago hatsartu zuen...», 39.

Oso zati mamitsua dugu hau, eta pertsonaia bien arteko antzekotasun-diferentzia zenbait ikusteko pistak ematen dizkigu. Batetik, gazteok ez direla elkarrengandik horren desberdinak ikusten dugu: biek duda berberak eraso eginik, zalantza eta barnedamu momentuak igarotzen dituzte. Erantzuna, hala ere, ez da bat kasu bietan: Arkadiik ikuskera zabala —eta apur bat «fidakorregi» beharbada— daukan bitartean, etorkizunean ustea ipinita, Vasiak premiazko du asaldatzen duten barne kezkekin amaitzea, berehala egingo du zerbait, itxaron gabe, sakrifizioaren bidea harturik. Esker onaren arazoa planteatzen da kasu bietan, baina jokamolde diferentea, pertsonaia bakoitzaren izaeraren arabera.

Aipatu diren zihurtasun falta ageriko momentuen artean, Arkascha Vasiliirekin Lisaren etxera doan arratsaldekoa dugu. Jantzera, hain zuzen

ere, da Ivanovitch lotsarazten duena, baina baita oraintsu azaldu duguna: Schumkoven maitasuna bere merezimenduarekiko desproporzionatua izatearen ustea, alegia: «han zegoen eskaratzean, bere eskalapoin, beroki eta belarrietarainoko kapela jantzita, eta gainera inolako dotoretasunik gabe atzean loturiko, puntu zabarrezko bufanda gisako baten bildua. Dena erantzi nahi izango zukeen, itxura mesedegarriagoan presentatu ahal izateko (...). Eta hori gutxi balitz, Vasia on puska ere han zegoen, unetik unera jasangaitzago bihurtzen ari zena kunplituekin irudimenik estrabaganteena nahasiz (...)», 41. Arkadii ia ia erridikulizaturik azaltzen da, bere indar eta sendotasuna ahaztu egiten dira, itxura arruntean aurkeztua delarik. Gure eritiziz, hemen interesanteena kode semiko linguistiko eta ez-linguistikoen superposizioa da. Ivanovitchek sentitzen duen lotsa «fisikoari», bere lagunaren hitzek sorrerazten dioten «lotsa morala» gaineratzen zaio, bien artean erlazio ikonikoa (jantzien lotsa/lotsa morala) ikustea ezinbesteko delarik.

Lisarenean suertatzen da Arkadiiren aldaketa: bera, hain arrazoitsu, alai, baina oinak beti lurrean dituena, adiskidearen pozak eraginda agertzen da, Vasia (eta narratzailea bera) harritzen duen bozkario batez: «(Eta Arkadiiren ahotsak, hunkipen bozkariotsuz dardar egin zuen)», 49. Adierazpen fisikook, Nefedovitchek hitzez adierazten duen euforia ameslariarekin batera datoz.

Etxera bidean jadanik gauzaten hasten den itzalaldiak Arkadiirengan ere eukiko du eragina. Lagunarekin batera poztu da, eta, halaber, adiskidearen bihotzesturak biziki kezkatuko du Ivanovitch: «Arkadii isilik erropak erantzi eta ohean sartu zen, lagunari begirik kendu gabe. Beldur lauso batek izutzen zuen», 52. Lehendabiziko aldiz, Vasiaren adiskidea «hizkera zalantzakoan» mintzo da (eta Artemievaren etxera joan behar duela esateko, hain zuzen; Vasiaren lagun berriek noraino daukaten liluraturik aitorzeko lotsa ote?).

Schumkovi bezala berari ere ematen dio poz tartetxo bat Petinka txikiaren etorrerak. «Arkadiiren beso ahaltsuek estutu zuten» umea, eta, honek ekarritako Lisaren ilekizkurra ikusita, «—Domina bat egineraziko dut hau gordetzeko—» esan zuen Arkadiik *erabakirik* 62.

Baina parentesi honen ostean, berriz nagusitzen da tristezia eta bihotzestura giroa. Vasiak etxean geratuko dela esan dion arren, Mastakovitchenera doanean, Arkadiik bere lagunaren sinadura ikusten du zorion-emaleen zerrendan. Honek aurreko zorion pittina ezabatzen du kolpez, eta nobelan premoniziozkoztat jo dezakegun pentsamendu bati atxikirik («Ziur asko zoritxar berriren bat gertatzear zegoen, baina non? Zein?», 64) kezkatu eta goibel geratzen da berriro. Orain ere Lisak «behin-behineko» sendagailu moduan jokatu du («Lisarekiko elkarrizketak ahaztu erazi zion momentuz, zuen atsekabea», 65), baina «irteeran begiak malkoz busti zitzaizkion», 65.

Vasiaren egoeraren larritasuna sumatzen hasia da Ivanovitch. Lagunak, bere obsesioak janda, paradoxaz ez dio galdetzen Lisarekin izandako

hizketaldiaz. Arkadiiren aurpegiak bere harridura salatzen duela iradokitzen zaigu: «Baina... baina, Arkadii, zergatik jartzen duzu aurpegi hori?», 67.

Itrenaldi bat egin ondoren, etxera heldu, eta Vasili ez aurkitzean, berri betetzen da tristeziak Nefedovitch.

Schumkov itzulitakoan errieta egiten dio Ivanovitchek, honen asalduraren benetazko zioa agerian ipiniaz. Bere hizkerak orain lehenengo indarra berreskuratzen du, laguna «astindu» nahian: «—Baina zer duzu, Vasia? Zer gertatzen zaizu?— oihukatu zuen biziki hurbilduaz (...). Vasia —hasi zen Arkadii Ivanovitch ahots zihurrez», 72.

Vasiaren aurrean erakusten duen zihurtasunaren atzean, ikaratutako, eta batez ere kezkatutako Arkascha bat dugu. «Arkadii Ivanovitchek, ahots dardaratsua isilduz, hondo hondotik hatsartu zuen», 74.

Bikotean bera da zuzpertzale, bera adore emalea. Puntu honetan haintzat hartzekoa da «negar» elemento zinesikoari buruz adierazten duen eritzia. Aurretik Vasili bere ahuleziarekiko jarrera anbigua hartzen zuela esan dugu; hestualdietatik irtetzeko malkoak erabiltzeko prest legokeela ikusi da. Bada, hauxe da Arkascharen ustea: «Arrazoin duzu, joan zaite ikustera eta hitz egin iezaiozu. Dena den, malkoak alferrik dira. Zertarako balio dute?... A, benetan izutu nauzu, Vasia!», 81.

Baina hitzok, ezer gutxi dira Schumkovena bezalako barnedamua baretzeko. Lagunaren umore gora-beherak datorren krisi handiaren atari baidarik ez dira izan. Laister etorriko da eromenaren lehenbiziko adierazpena, Arkadii katalapsiatzat jotzen duenaren bitartez, oker ez bagaude.

Oraingoan, Ivanovitchen ikara, lehen bezala, ahots tonuan erreflejatuko da: «deihadarkatu», «silkatu», «Ahotsa ito egiten zitzaion», 86. Zehaztapenok momentuko asaldura izugarriaz mintzo zaizkigu; orain, Arkadiirengan edireiten ditugu lehen Schumkovek presentatzen zituen sintomak: «Arkadii etsipeturik eskuak bihurritzen zituen». «Eta ispiluan erabat zurbildurik ikusi zuen bere burua, ezpainak moraiska eta dardarti», 92.

Aipamen guztiok kontutan harturik, pertsonaia bien arteko enpatia miragarriaz jabetu beharra dugu. Berrito ondo ohartzen bagara, baten poza besteari eransten zaio, eta, era berean tristura ere batengandik bestearengana zabaltzen da. Honexegaitik interesa zaigu nobelaren azken orrietan Arkadiirengan mamitzen den aldaketa progresiboa: 96. orrialdean, Ivanovitchek «ero begiak eta eztarri lakarra» zituela esaten digu kontalariak.

Apurka apurka, Nefedovitch Vasiliiren eremura ari da sartzen, haren esperientzako partaide bilakatzen. Yulian Mastakovitchen aurrean ezagunak zaizkigun sintomak erakusten ditu: «nagusiarri begira, begiak gandutu egin zitzaizkion; hutsegiten harrapaturiko mutiko baten antzo, dardara hasi zen. Ezelentziaren eskua hartu eta bekokira eramanaz, malkoz busti zuen», 99. Ez al da azken keinu hau Vasiak bere adiskidearen eskuaz egin

zuen berbera? (oroitu: 77.orri). Malkoak, dardarizoa, nagusiaren eskua malkoz busti... Schumkovengan hain sarri ikusitakoa Ivanovitchengan nabaritzen dugu orain.

(Areago: —nahiz eta sistema semiko ez-linguistikoei dagokien aipamena ez izan— Arkaschak, lehen berak Vasiliiri aurpegiratu dion jarrerara hartzen du: Schumkovek, onaren onez, bere inguruko guztiak bihotz oneko zirela pentsatzeko joera zuen. Orain, Ivanovitchek, zera uste du gelan dauden guztiez: «Gizon haiek denak onak zirela iruditzen zitzaion, benetan Vasia gizarajoaren anaiak zirela eta haren zoritxarrak bera heinaxe hunkitzen zituela», 99.)

Vasia galtzen duenetik aurrera, Arkadii etsipen sakonagoan jausten da. Hiri paisaiari begira dagoela, bere adiskidea zorarazi zuenaz jabetzen da bapatean eta orduan, «Dardar egin zuten haren ezpainek, begiak argitu zitzaizkion eta orduantxe hain zuzen, ulertu ahal izan zuen zerbait amai-gabe haundi eta berria...», 107.

Nobelaren amaieran elkarrengandik askozaz hurbilago sumatzen ditugu protagonistak. Beharbada, errealtatearen gordintasuna une batez behintzat ikustera heltzen direnak bakarrik dira ahulak, laztasun horren aurrean erabat indarge sentituaz. Edonola ere Arkadii, bapateko errebelazio hori izanez geroztik «uzkur eta malenkoniatsu bihurtu zen. Kemen guztiak galduak zituen», 107. Hasierako Nefedovitch indartsua, gizakia inguratzen duen «atmosfera zorabiozko hura» begi aurrean izan ondoren, kemenik gabe aurkitzen da: lagun bien arteko enpatiak bere gailurra jo du.

BIGARREN MAILAKO PERTSONAIAK: LEROUX ANDEREA, LISA, BULEGARIA, MASTAKOVITCH

Zinesikari buruzko atalaren lehen zati hau bukatzeko, elaberrian ikusten ditugun beste zenbait pertsonaiaren erreferentzia egingo dugu.

Gehienak behin bakarrik agertzen dira, eta horregatik nekez antzemango diegu bilakaerarik; honek ez du esan nahi, halabaina, interes guti daukatenik. Izan ere, bakoitza nobelaren puntu zehatz bati loturik dagoenez, kontaktaren urrenkera nola dagoen markatua ikusten lagunduko digute.

Leroux anderea

Pertsonaia honen garrantzia hasierako bozkarioa azpimarratzeko baliagarri izatean datza. Neskatzak sonbrailua erosterakoan Vasili eta Ar-

kascharen zoriona erreflejatzen du, gazte biekin batera momentuko emozioa erakutsiaz.

Bere fisikoari buruzko zehaztapenek ere giro atsegin hori nabarmentzen dute: «Begi beltzeko frantsesa bat presentatu zitzaien eta zuzendu zien lehenengo begiradatik, haren aurpegia alaitasun argi batez jantzi zen. Bersarkatu nahiko zuen Vasiak». 33. Ikusten denez, Leroux anderearen espresioak badauka eragina bere bezeroengan —Vasiarengan, batez ere—. Beste adibide honetan gauza bera erakusten zaigu: «Leroux andere berberak zailantzako egoerak iraundu izan zuen bitartean isiltasun duin bat mantendu bazuen ere, irrifarre batez saritu zuen Vasiaren gustu ona, eta zoriontsu zen hura, imintzio politak eta irrifarre panpoxak baiezkota adierazten zuela ikustean», 35; Vasili horrelako artegatasunez beterik ikustean, ironia pittin batez begiratzeko dio mutil zoriontsuari: «Honek Arkadii Ivanovitchi begiratzeko zion, senargaiaren asaldaketaz irrifarre bihurri bat eginez», 35.

Neskaren goxotasuna gazteengana hedatzen den era berean (eta objektuetara: kapela «hainbateko emetasunez bildu zuen, ze (...) lehen sonbrailuak baino arinagoa baitzirudien», 36), Vasiak ere egin nahi du anderea bere poza-zen partaide. Horregaitik Schumkovek ematen dizkion «bi laztan adeitsuak», konbentziozko distantzien haustura dakartenak, proksemikan aztertuko denez. Azkenik, saltzailea, horrenbeste sentimenduz beteriko tartea herstein, hasierako egoerara bihurtuko da, «irrifarre komertzialera itzulirik», 36.

Halan, kopista bien pozezko tarte hau pertsonaia honek azpimarraturik gelditzen da.

Lisa

Vasili Schumkoven zorionaren eragile nagusia —eta ezagutu ondoren Arkadiirena ere bai— oso zehazgabeki deskribatzen zaigu. Kasu honetan ere, keinuek hitzek baino gehiago dioskue ia. Lisa maitasuna da: Vasia maitatzea da bere egitekoa eta funtzio hau adierazten duten keinuen bidez marratzuko da neskaren irudia: «atea ireki zuenean, ezin zuen sinetsi begien aurrean zuena. Bapateko gorritasunez koloreztatu zitzaizkion masailak; haren bihotzak xederan harrapaturiko txoriaren gisara taupatzen zuen (...). Zeinen «A!» bozkariotsuak ihes egin zion ezpainenatik».

Sonbrailua ikustean berriz ere: «ustekabe alai bat adierazten zuen 'A!'gozo batek moztu zion hitza... (...), hainbateko xamurtasunez egiten zuen irrifarre non, bi gazteek (...), 42.

Lisa goxotasun, xarmanez beterik dago: bere ezaugarri nagusia maitasunez blai egotea da. Etengabeko hunkipen eta zirrara artean bizi dela esango genuke. Bere sentiberatasun handiaren berri ematen diguten adierazpen fisikook, laster analizatuko ditugun jarrera eta moduekin bat egi-

ten dute. Alde honetatik, neskatxa bere senargaiaren antz-antzeko ikusten dugu. Egia esan, Vasiak jartzen gaitu Lisaren ahuleziaren jakinaren gainean: «Gaixoak negar eta negar egin zuen... eta ni maitemindu egin nintzaion... (Lisak:) zuk badakizu, neskatxa gaiso bat besterik ez naizela eta ez naizela ausartzen inor maitatzen», 22. Schumkov izango da berrikitan gizon batek abandonaturiko andre honen euskailua, mutilarengan aurkituko du Lisak behar duen zihurtasuna. Elkarren pareko jotzen ditugu, bada, bi pertsonaiok, izaera ahul eta sentikorrari dagokionez. Liburuaren amaieran Arkadiik eliza batean topatzen du bere lagunaren andregaia izandakoa; honek, bere senar eta umearekin zoriontsu bizi dela esaten dio baina... «bat batean, begiak malkoz busti, ahotsa ito zitzaion eta gizoni bere nahigabea ezkutatzegatik itzuliz, bekokia elizako harlauzetara zuzendu zuen», 108. Ondo oroitzen bagara, hauxe da Vasiliiren jokamoldea nobelaren beste bi pasartetan (38. orrialdekoa, bereziki, Lisari dagokionaren tankera berekotsua da): koinzidentzia ageriko honek hestuago lotzen ditu bi maitaleok. Lisak ere bilatu dio irtenbidea bere indargabetasunari (ezkontza berria «gizon ondradu» batekin), baina Vasiarekiko maitasuna handiegia izan zen iragan alaitsua ahaztu ahal izateko.

Bulegokoak: Mastakovitch eta bulegari txikia

Nobelan gutxitan ikusten ditugun karakterrak dira hauek. Mastakovitch ilunbetan bezala gelditzen da. Bukaera arte ez da agerian egongo, baina orrietan barna beti eukiko dugu presente, protagonisten esan eta gogoetan bitartez. Vasiliiren berbetatik badakigu nagusiak maitekiro tratatzen duela. Gure ustetan, Mastakovitchen sinpatian Arkadiirengan nabaritu dugun erruki aztarna egon liteke. Hunkitu egiten du Schumkovek nagusia, Ivanovich hunkitzen duen moduan: «Tira Vasia (zin egiten dizut adiskide deituraz hots egin zidala), festa ospatzekotan zara, ez da horrela». Eta irri-farre egiten zuen (...). *Negar egin hasteraino nengoen hunkituta. Bera ere hala zegoen* eta bizkarrean maitekiro joaz esan zidan: «Izan zaitetz beti gaur bezain sentikor, Vasia...», 38.

Azken momentuetara arte ez dugu Mastakovitch zuzenean ikusten. Bulegoko eskena bihotz erdiragarria da, eta nagusiaren espresio fisikoen berri ematerakoan, badago behin eta berriz aipatzen den ideia errekurrente bat: Mastakovitchen berezko gogortasuna une horretako zirrarak apurtzen du: Vasiaren egoerak beste pertsonaiak ere harrapatzen ditu (Arkadii adibiderik argiena delarik): «Yulian Mastakovitch berberak, hain izaera irmokoa izanik ere, agian gogorra, ezin izan zien malkoei eutsi», 101.

Egiazko sendimenduon alboan, lantegiko beste kideen halanolako erreakzioak ditugu. Berauengan, errukia bai, baina bai eta monotonia apur-

tzen duen edozerk sortzen duen jakingura da nabarmen: «Harridura agertzen zen aurpegi guztietan», 98; beraien mugimenduetan ere gauza bera igartzen da: «Ia denak zertxobait ikusguraz eta aldi berean kupidaturik jarraitu egin zioten», 101; «Inguruan bilduriko lankideek, buruari eragiten zioten urrikaltasunez», 102. Denok kanpoko ikuskera arrunt eta sentsazionalismo-sensibleria zalea errepresentatzen dute.

Pertsonaion aurkezpena egiteko, kontalariak zine kamara bat bailitzan jotatzen du: batetik bulegoko jendetzaren keinu, mugimendu eta espresioak aipatzen dira laburki, ondoren begirada pertsonaia zehatz batean —talde orokorraren ordezkari antzo— pausatzeko: «Schumkoven lankide bat txikia izan arren, nabarmenki bereizten zen jendarte kezkatu hartan. Ez zen oso gaztea, hogeitamaretatik iragana baitzen. Zurbil, oso zurbil, gorputz ikara urduriak egiten zituen nahiz eta irrifarre arraro batek, imintzio bat ia ia, ezpainak erdi irekitzen zizkion (...). Etengabe gorputz sakatsa luzatzen zuen, gero botoietatik heltzen zien bere graduakoak edo apalagoak zirenei eta gertakizunari buruz, aldakortasun handiz hitz egiten zuen (...). Gero, berriz ere oin puntetan luzatzen zen, bispahirutan mugitzen zuen burua, adituen antzera eta beste norabait joaten zen bere solasari jarraituzera.», 104.

Argi dago eskeintzen zaigun deskribapen honek, kontalariaren ironia eta mesprezu gutzia jasotzen duela: hauxe da honelako arazoan alderdi zakarrenetarikoa bat, problemaren alde pitxian begia jartzen dutenen jarrera, alegia. Honelakoak dira ahultzen ez direnak, hunkitzen —benetan— ez direlako, hain zuzen. Gauzen axalean geldituz, beren arrunkeriaren soraiotasunean babesturik gordetzen dira, noizbehinka gertaera bereziren bat suertatzeko itzaropenak zuzpertzuta.

1.2. *Jarrerak eta moduak*

Azken pertsonaia hau aztertzean, egia esan, keinuei berez dagokien ataletik irten egin gara apur bat, jarrera-moduen eremura igaroaz. Izan ere, egoki iduritu zaigu horren deskripzio elokuentea ez moztea pasartearen indar guttia mantendu ahal izateko. Berez diferenteak izanda ere, jarrerak (hau da EGOTEko erak) eta moduak (HIGIKERAK: ibilkera, jateko modua, agur egiteko tankera...) hain daude askotan elkarrengandik hurre, non batera ematea zuzentzat jo baitugu.

Bestalde, keinuen analisi zehatzak historiaren pausuk pertsonaia baikoitzarengan nola datozen markatuak erakutsi duenez gero, oraingoan azterketa orokorragoa izango da, dakigunari buruzko zehaztapenak emanez.

Jarrera-moduek pertsonaien arteko erlazioen irudi ikoniko aparta ematen digute. Hasiera-hasieratik, Vasia eta Arkadii elkari lotzen dituen

harremanaren zernolakoak sumatzen ditugu: «Vasilii, Arkadiiren trasteke-ria espero ez zuenez, *konfidantzaz hurbildu zitzaion*. Besteak, bat batean heldu zion besoetatik, eta jolasean bezala, ohean etzanarazi zuen, arnases-tutzeraino zanpatuz. Honek asko dibertitzen zuela zirudien (...)» 16.

Nefedovitchek Schumkov postura parregarrian jarrerazten du, bere lagunak hitzei eman nahi zien seriotasuna zapuztu, erridikuloan ipini: «nire istorioa, jarrera farregarri batetan kontatzera behartzen nauzu, zure ohean indarka, ni, itzaltsu eta dintasunez hitz egin nahi nizunean (...). Farregari sentitzen nuen neure burua eta (...)». Adar jotzen dio Arkadiiik lagunari, seguritatea galerazi; bere gorputzaz menderatu egiten du indarka, baina horrezaz gain umea bailitzan tratatzen du. Eskenak euki dezakeen umo-rea bazterrean utzita, azken honi oso esanahitsu deritzogu. Izan ere, Ivanovitchek hartzen duen babesle papelearen irudikazioa da postura hau. Aurretik aipatua dugu Arkascharen paternalismoa eta baita Schumkoven onarpen eroso ere. Bada, gizon bat bera bezain handia den beste bat umea bailitzan paseatzen ikustean sumatzen dugun desegokitasuna, hori berori nabaritzen dugu protagonisten arteko harremanari begiratzean. Biak gizon heldu, nagusi izanik, badago gidaritza hastzen duen bat, eta eramana izatera mugatzen den beste bat. Interpretazio hau ez da kasualitatezkoa: pertsonaien jokamoldeak erlazioaren desoreka hau argi uzteaz gain, badugu, zinesikaren arloan aurreko deskripzioaren pareko bat: «Mediku baten bila joan nahi zuen baina Vasia hoska zeukan eta Arkadiiik, arretaz inguratu ondoren besartean estutu zuen, semea kendu nahi dioten ama batek egingo lukeen bezalaxe», 92.

Beste inon aditzera eman denez, lagunen arteko enpatia, sinbiosi edo delakoak sentimenduak konpartitzera bultzatzen ditu. Aurreko atalean analizatu ditugun animo gora-beherak, moduek ere zehazten dituzte: Vasiaren egoera berriak dakarkion urduritasuna honela iragartzen da: «Altxatu zen eta erabat hunkiturik, gelan harat-honat paseatzen hasi zen (Vasia)», 25, «oin punttatan, Arkadii Ivanovitch ohean esertzera joan zen; laster jalgi zen baina berehala eseri zen berriro laguna lekoratu bildurrez. Ezin zen geldirik egon, hainbestearaino baitzegoen asaldaturik», 27.

Lisarenera bidean bien bihotzak pozez gainezka daude; ibilkerak berak esaten digu: «Arkadii Ivanovitchek urrats luze eta sendoak ematen zitu-eta Vasiaren zorionean pensatzean sentitzen zuen poza ematen zuen aditzera ibilkeran. Hau bere planta duina galdu gabe zihoan. Are gehiago, Arkadiiik ez zuen inoiz ikusi hain jite onez», 31. Leroux anderearen dendan, gazteen alaitasunak neskatzaren portaeran eragina bazuela komentatzen genuen era berean, orain esan behar da frantsesak ere baduela zerikusirik Vasiaren moduekin: «Baina Leroux andereak hainbesteko jentiltasun eta gogo onez hartu zuen Vasiaren mirespen joria, non gazte zorabiatuaren ibi-lera eta hitzak apaldu egin baitziren», 37.

Andregaiaren etxean, neska da, zinesika kontutan harturik, protagonismoa hartzen duena. Ikus dezagun nola keinuak aztertzean ateratako konklusioak jarrerek baieztatzen dituzten: «—Gezurti maitea!— oihu egin zuen, *Vasiaren leporantz bere burua jaurtikiz*; «Zetazko paper artetik aterea zen sonbrailuaren aurrean zegoen Lisa, eta *eskuak jarrera ximplean elkarganaturik (...)*», 42. Xamurtasun simple hau hizkerarekin bat dator: «Eta zirrara urduri batez, sinpleki dario: —Izan gaitezen hirurok izaki bakar bat», 46. Bere maitaleak bezala, Lisak helburu bi ditu: maite izatea eta babespean sentitzea.

Tentsio igoera garatzen denean, jarrera-moduek jartzen gaituzte aldaketan jakitun: etxerantz doazela «une batetik bestera betilundu eta pausoa bizkortu zuen (Vasiak)», 50.

Etxeratutakoan, Schumkovek, «nekaturik, bere gorputza aulkiaren gainera erortzen» uzten du, 56. Petia txikerraren ikustaldiak Vasilii berrindartzen duela dudarik ez dago, modu neketsu eta geldoak utzirik, «eskaratzera korrika egiten» baitu, 60. Bake tartetxo hau igaro ondoren asal-dura nagusitzen da berriz Schumkoven baitan: «gelan harat-honat ibili» egiten da, 68; Arkadii, berdintsuki «gelatik pauso handika ibiliz eta eskura zuen guztia hartuz, horrela Vasiaren gaitz ezkutuarentzat sendagairik aurkitu asmo balu bezala», 70, topatzen dugu (berriz ere osagile papela eginez). Bere lagunari adorea eman nahiean zen bezain garai» agertuaz», 75 (hemen ere indartsu/ahul-sendagile/gaixoa oposaketa). Narrazioan aurreratu ahala, handiagoa da tentsioa, pertsonaien mugimenduek salatzen dutenez: «Han zegoen Schumkov, gelan harat-honat zebilen, erabat urduri (...) (Arkadii) ezin izan zen ohean eseri, eta zerbait gozatzearren, liburu bat hartu eta ireki egin zuen (...) 84-85. Ogeigarren orrialdean Vasilii, jadanik eroturik, «Burririk altxa gabe» zegoela mahaiaren aurrean irakurtzen dugu berriro.

Zoramenaren faseak ere oso argi seinalatzen dira postura eta moduen erreferentziak. Lehenen, hasierako inozotasuna, animalari erreazioak (begiratu aurreko atalari): «Arkadii zuzpeltu eta ate aldera joan zen medikuaren etxera joateko./—Tira, iritsi da ordua!— hots egin zuen Vasiak *Arkadiiren mugimenduak erakarririk.*», 93. Gero, irudimenezko zigor baten biktimatzat jotzen duela bere burua, militar jarrerak hartzen ditu, bere eromena puntu gorenera iristen delarik: «Vasia bazter batetan zegoen, isilik eta lur joa, zurbil oso, burua tente, soldatu berri bat bere gorengoaren aurrean bezala, eskuak galtza josturetan geldu, orpoak elkar joaz», 98.

Puntu honetan zilegi bekigu oharpen bat egitea: lan honetako gaia ez den arren, ezin diogu psikokritika «domestiko»an sartzeko tentazioari ihes egin. Vasiak bere buruarentzat hautatzen duen zigorra soldadu joatea izateak Dostoyewskiren obsesio bat isladatzen duela uste dugu. Jakina denez, autorea sozialismo utopikoaren inguruko ideiak izategatik atxilotua

izan zen, eta, ejekuzio itxura bat egin ondoren, lan astunak ezarri zizkioten herio zigorraren truke. Gero, mugabeko epealdian soldadutza egitera kondenatu zuten. Suma daitekeenez, fikzioa eta errealtatea erlazionatzeko tentazioa haundiegia da. Ez dugu ahaztu behar, bestalde, idazleak derrigorturik egin zituela injinadore militar ikasketak. Dostoyewskiren esperientziak ezagutzeak Vasiaren sakrifizioa noraino den handi eta mingarria ulertzen laguntzen digu.

Gainontzeko pertsonaiez ez dago gauza handirik esateko. Interesantea iruditzen zaigu, hori bai, azken eskenetan pertsonaiek daukaten kokapena. Jerarkia erlazioak —nobelan barna sumatzen ditugunak— oso grafikoki erreflejatzen dira pertsonaien espazio distribuzioa dela medio: erdi-erdian Mastakovitch; bere inguruan, gainerako arduradunak; azkenez, bazter baten, Vasia zorigaitzekoa, eroa, guztien begiraden elkargunea: «Ezelentziaren inguruan ikusten zituen buruzagiak (...). Vasia bazter batetan zegoen, isilik eta lur joa (...)», 98. Gainera, «bulego guztietan», 102 lankideak, «mutil gizarajoaz laudoriorik gorenenak» egiten zituztenak.

Aurkezpen honen bidez, desenlazean parte hartu duten guztiak agertarazten dira: Vasia, ezbeharreko protagonista, «esker-onez» eroturikoa, Arkadii, bere lagun mina, orain indargabetua, inguru guztietara laguntza eske begira dagoena (bere begietatik ikusten dugu situazioa), azken momentuetan ere geratzen zaion indar apurra bere lagunaren alde erabili nahian; nagusiak eta, batez ere, Mastakovitch, autoritatearen errepresentapena, Vasia zorerazi duen presio psikologikoaren eragiletarik bat. (Honek ez du esan nahi Schumkoven eromenaren errua Mastakovitchek duenik. Bakar-bakarrik Vasiak konpromezua duen pertsonetarik bat dugu. Mundu guztiarekiko esker-onezko izateko premia —eta ezintasuna— izan dira kopistaren torturataile. Ikuspegi honetatik, Mastakovitch ez da kuadernoak beraiek baino errudunagoa).

Azkenez, lankideak, gizarte errukigabe eta antropofagoaren —beren burua defendatzeko besteko indarrak ez daukatenak jan egiten baititu-irudi.

Berauek ahulezia parkatzen ez dakien mundu batean ikusle diraute, agian, aldizka honako gertaera bat jazotzeak badaukalako bere erakargarritasuna.

2. PROKSEMIKA

Proksemika esatean, pertsonaien arteko distantziei egin nahi diegu erreferentzia. E.T. Hallek esaten duenez, gizakiak espazioa kultura produkto gisa erabiltzen du, eta komunikazio prozesuan mintzaidearekiko aldeak, urrun-hurbiltze pausoak... nahi den (edo inposatzen den) komunikatze tankeraren arabera dira. Autore honi jarraituz, badaude gure

gizartean zehazki kodifikatutako distantzia zenbait (eredutzat erdi mailako iparamerikarrak harturik):

- 0 eta 40 zm. artean: alde intimoa.
- 40 eta 125 zm. artean: alde pertsonala.
- 1.20 eta 3.60 m. artean: gizarte aldea, eta hemendik gora, alde publikoa.

Distantzia fisikoak intimidade, afektibitate edo erantzun mailak seinatzen ditu. Hau dela eta, gorputz hurbiltasun edo urruntasunaz gain, begirada, makurrera etab. hartu beharko ditugu kontutan.

Gure nobelako proksemika zantzuak bi dira nagusiki: gorputz aldea eta begirada. Bigarren hau oso garrantzizkoa dugu, protagonisten komunikabide izugarri zehatza baita. Begiradaren bitartez, pertsonaiek ez hitzek ez keinu edo jarrerak batzutan adierazten ez dutena komunikatzen diote elkarri. Gogotan eukitekoa da begiradaren balio hau Schumkov eta Ivanovitchen arteko hurbiltasun psikikoaren islada delako, eta baita historiaren urratsak —ikusitakoak eta ikusi ez dugun zenbait— seinalatzeagatik.

Arkascha eta Vasiliik oso harreman berezia daukate. Esan bezala, sano maite dute elkar, baina erlazioaren gidaritzza, alde aktiboena, Nefedovichek darama.

Nobela irekitzen duen situazioak lehenengo pistak ematen dizkigu: lagunaren deiari erantzunez, «Vasili Arkadiiren trastekeria espero ez zue- nez konfidantzaz hurbildu zitzaion», 16. Schumkovek ez du Arkascharen «tradizioa» sumatzen eta bete betean doa bere ondora. Vasiaren inozentzia jakinarazten zaigu hasiera momentuetatik, beraz (baita Ivanovitchen indar nagusitasuna ere). Bromarekin urrunegi joan dela ulertzen duenean, Arkadiik «lagunkiro musukatu zuen masailtan bere laguna»: parkamena eskatzeko moduan berean, aurretik aipatzen genuen ama- seme harremana iradokitzen zaigulakoan gaude. Schumkov minduta dagoela ohartzean, berriz, «Arkadiik bere lagunarengana jo zuen berriro, besoetan hartzen zuen bitartean», 19. Oso interesgarria da besarkada gehienetan Ivanovich babesle funtzioan agertzen dela, Vasia lagunaren besoetan lasaitzen delarik. Hasiera ekaizsuaren ostean, gauza orok bere lekura joan behar, eta egoe- rak baretu. Pertsonaiek beren oneratzte hau barbarik gabe lortzen dute, ba- karrik «zirrada gozo baten menpean, elkarri begira egon ziren luze». Begi- rada horrek lehen aipatzen genituen mezu guztiak batera adierazten ditu: hurbiltasuna, afektibitatea, erantzuna (biak ados jartzen ari dira). Elkarriz- keta hasten denean, begiek ere beren berbaldi partikularrari ekiten diote: Arkadiik ea zertatik biziko ote diren Lisa eta bere laguna ezkondukoan galdetzean, honek «lagunari harriturik» begiratzen dio, 24: harridura bera azaltzeaz gain, begiradak distantzia idiologikoa adierazten du, pentsamen- duzko ezadostasuna.

Bukaera trajikoa, bere adiskidearen bilakaera tristea artean imajinatu ere ezin duenean, Arkadiik Vasia interrogatzen du begiradaz: «Schumkovi begiratu zion. Begirada adiskidetsu bat zuzendu zion honek», 27. Badirudi Vasiliik «dena ondo doa» edo esan nahi diola, ez dagoela zertan kezkatu. Baina Arkadii arduratzen hasia da: «Nefedovitchek irrifarre egin zuen eta begirada bihurri bat zuzendu zion lagunari, begirada lotsati samarra, hala ere, larri antzekoa. Ez zekien nola hartuko zion adiskideak», 28.

Ivanovitchek ez daki nola erreazionatuko duen bere lagunak, bildur da bialdutako seinale bisualak zer erantzun euki ote dezakeen. Berehala jakingo dugu: «Vasia, badaezpadaere idaztiak alde batera utzita, orain, berari so zeukan, begirik kendu gabe, jakinminez»; 29. Begiak hitzak baino egiazalegoak dira (norbaitek egia esaten duen ala ez zihur jakiteko begietara so egin ohi zaio). Badago protagonisten artean ixilean bere bidetik doan elkarriketa bat. Bien arteko tira-birak argiago isladatzen dira begikeran: gazteak inguratzen dituen atmosfera arraroak begi jokoaren bidez markatuko du harremanaren desoreka berria.

Vasia bere erresponsabilitadeek itoa sentitzen hasia da. Arkadiik maitekiro hitzegingo dio, ahotsaz eta gorputzaz: «Eta Nefedovitchek bere beso indartsuen artean hartu zuen laguna», 30. Hau bezalako esaldi franko topatuko ditugu gure nobelan. Besarkada batek maitasuna eta era berean zihurtasuna, babespena gordetzen baditu, pertsonaia honek, gure aburuz, bigarren osagaietik lehenengotik baino gehiago dauka.

Merezi du aipatzeak Leroux anderearen dendan proksemika alderdiak hartzen duen garrantzia. Sonbrailuaren erosketak protagonisten, eta batez ere Vasiaren berba-keinu-moduetan eragina badu, ez da bestera gertatzen distantziari dagokionez. Hain da handia Schumkovek sentitzen duen poza, non alde pertsonalaren mugak gaindituz, «alde intimo»aren hesparrua sartzen den. Saltzailearen irudiak, ikusi duen momentutik, desiarazi dio muga konbentzionalak haustea: «Begi beltzezko frantsesa bat presentatu zitzairen eta zuzendu zien lehenengo begiradatik, haren aurpegia argitasun alai batez jantzi zen. Besarkatu nahiko zuen Vasiak», 33. Eta gero: «Ez zenuke sinetsiko nola maite zaitudan une honetantxe... Utz iezadazu besarka zaitzadan. // Eta Vasiak bi laztan adeitsu eman zion andereari masailetan» 35, 36.

Kontalariak dioen bezala, neskatxak bazeukan haserretzeko arrazoirik baina...» haserretu al zitekeen bada, halako bihurrikieriez?, 36. Vasiaren mundu guztiarekiko esker onak Arkadiiren kontakto fisikoa behar izatera bultzatzen du: «Ezingo nintzake zu gabe bizi Arkascha. Ez, ez ezazu ezer esan, emaidazu eskua. Utzidazu es... ker... tzen...!», 39. Era honetanxe ere erakusten dio Lisak Ivanovitchi bere esker ona: «Lisa biziki ari zaio Arkadiiri hizketan, eta bi eskuetatik helduz, egin dien ikustaldiagatik eta Vasiarekin duen adiskidetasunagatik ere eskerrak ematen dizkio», 45.

Engoiti esana geneukan elkarren antzeko iruditzen zaizkigula Vasilii eta Lisa. Keinu eta hurreratze moduek parekotasuna azpimarratu egin dute. Neskak bere senargaiaren mundua onartzen du, areago, berea egin nahi du, Vasiak hortara jokatzeko duelarik: «Nire lagunik onena dut. Besarka ezazu, Lisa, ezagutzen duzunean arrazoi gehiagoz besarkatu ahal izango duzu eta...», 41. Duda gabe, afinidade afektiboak gorputz kontaktua markaturik datoz. Interesgarria izango litzateke maitasunaren adierazpide sutuok errusiarren ezaugarri ala bakarrik pertsonaiona diren jakitea.

Vasia eta emaztegaiaren arteko distantzia zehazten duten elementuekin ez gara luzatuko. Izan ere, gazteek alkarri laztanak egiten dizkietela esateak ez luke nobelaren azterketa sakonago egingo: azken baten, maitale bikotea izanik, alde intimoan mugitzea itxaroten den gauza da.

Etixeratutakoan, giroa tentsotu ahala, berriz ere ekiten zaio begi-komunikazioari: Arkadiik, Schumkovek nagusiari urteberria zoriontzera berak joan nahi duela esaten dionean, «zuk nahi baduzu!...», 55 etsi batez erantzuten dio, baina begirada urrunago doa: «—erantzun zuen Arkadiik, alperrikako eztabaida horretaz asperturik eta lagunari larri begiratzen ziola», 55; Vasiak, bere adiskidearen kezka jabeturik, lasaitu egiten du, «lagunari eskua estutuaz», 56. Baina errealitatea ez zaie begiei izkututzen. Arkadiik, Vasia baretu guran, lana garaiz ez ematea ez dela gaizkintza bat esaten dio. Schumkovek ez du erantzuten baina «Vasiak hain era arraroz begiratu zion lagunari, ze hau, ikaturik, isildu egin baitzen», 56, 57. «Bai, bada gaizkintza bat» esan nahi diola dirudi. Ivanovitchek adiskidearen larritasuna ulertzen du; horregatik ikaratzen da. Vasia txarrera doa fisiko eta psikikoki: zihurtasun moralak ispilatzen duen euskailu fisikoaren premia gero eta handiagoa da: «Elkar besarkatu zuten», 59. «Tira, besarka nazazu...», 60.

Bapatean, Petinkaren alaitasunak berpizten du giroa. Schumkovek, Lisa ikusteko gogo eutsiezinak dakarkion tentsioa, umearikiko laztanetan isurtzen du. Momentu honetan haurra ez da Petia, bere arrebaren islada baino: «Vasiak bozkariotan, hartu zuen mezularia, jaso zuen besoetan, eta musu luze bat eman zion mutikoari ezpainetan, Lisaren antz antzekoak baitzituena gainera.», 61.

Poz gainezkaldiaren ostean, berriz gezurrik esaten ez dakiten begien berrikeraldia. Nefedovitchi ezer esan gabe, Vasilii, Lisarenera joan da. Etxean berriro elkar topatzean, tentsio handiko atmosfera sortzen da: «Azkenean begiratu zioten alkarri. Vasiaren begirada, hartarainoxe zen erreguzko eta malenkoniatsu, ze Arkadiiri dardar eragin baitzion», 69. Honek, laguntza eske bialtzen zaion mezua harturik: «—Baina, zer duzu, Vasia? zer gertatzen zaizu?— oihukatu zuen biziki hurbilduaz besoetan estutu asmoaz»; 69. Ikusten denez, gorputz erlazioa (besarkada...) genienetan begiek komunikatutakoari erantzun gisa dator.

Eromena ere oso zehazki adierazten da. Protagonisten arteko bigarren mailako komunikabide bat bazegoela esaten genuen. Izan ere, begiradak, sentimendu eta uste sakonagoen esatari bihurtzen dira. Horregatixe, zoramena begien mezua «hutsa» denean gauzatzen da. Arkadiik bere lagunaren krisia begiratzeko moduan igartzen du: «ongi dago, Vasia, baina, zergatik begiratzen didazu horrela? —Zergatik? Ez dakit ezer (...)\», 79. Begiradak jadanik ez du ezer komunikatzen: lagunek ohizko zuten komunikabideak funtzionatzeari utzi dio, eta hori zerbait larri gertatzearen zantzu da: «Hamaikak aldean, Vasiak, hildakoarena zirudien begirada mugiezin bat jaso zuen lagunarenganaino.

«Gazteak piska bat jaso zion lagunari begirada hotz, inozo hura», 86; gehiago: Vasia lagunari itxi egiten zaio: «Eta eskuak etsipen keinu bat egin zuen. Gero, hormara begira itzuli zen», 87.

93. orrialdean, Ivanovitch, medikuaren bila joateko dagoela, «Vasilii isildu egin zen, lagunari mesfidantzaz begiratzen ziolarik». Harremana bera ere, deterioratu egin da: larogetabostgarren orrialdean Vasiak «Arkadiiren anaitasunean ere ez zuen konfidantzarik» esaten zaigu, eta begirada honek baieztatu egiten duela dirudi. Gazteek zeukaten gauzarik maiteen, prezia-tuenak ere jaso du kaltea: jadanik ez dira elkarrekin fidatzen.

Dena den, oraindik Vasia gizajoa eraturik egonda ere, zerbait adierazten du begien bitartez, nahiz eta borondatez ez egin: «Vasia, esaneko, eta sosegaturik eseri egin zen; haren begiek bakarrik salatzen zuten erabaki arraro bat. Arkadiik berriz etxera itzuliz, mahai gainean zegoen haizto bat eraman zuen zuhurki», 94. Hemen interesanteena gorputzak erakutsitakoa begiradak gezurtatzen duela da. Arkadii, lagunaren adierazpen orori erne, zuhurtziaz jokatzeko du haiztoa gelatik eramanaz.

Azken momentuetako larritasuna ere, distantzien alterazioak emanda dator. Liburu osoan zehar Mastakovitchen irudia urrun eta ia iritsi ezina aurkeztu zaigu. De facto, Vasiari ematen dion tratua, (bizkarrean joaz...) erabat ezohizkoa dela jakin dugu. Nefedovitchek berak, situazioa premiazkoa izanda ere, dudatan dago Mastakovitchen aurrean presentatzea urrats «ausartegia» ez ote den izango (83). Bukaeran, halabaina, etsirik, Arkadii nagusiaren langelara sartzen da, beste arduradun batek egiten dizkion galderei jaramon egin gabe. Areago, egoeraren presioak bultzaturik, begiruneak eskatzen duen distantzia gainditzen du, «Ezelentziaren eskua hartu eta bekokira eramanaz, malkoz busti zuen», 99.

Zorionak Vasilii Leroux anderea besarkatzera eraman zuen bezala, ezbeharraren eraginez, Ivanovitchek nagusiaren eskua hartzen du.

Distantzietatik dagozkien arauak hautsiaz, nobelaren bi momentu nabarmentzen dira: pozaren gailurra (klimax) eta bihotzestura sakonena (antiklimax).

Lagun biak elkartzen dituen azken lotura besarkada bat da (pakete-txoaz gain, geroago ikusiko duguna): «Azkeneko aldiz besarkatu ziren», 104.

Holan egiten diote elkarri azken agurra, batek bestea horrenbeste maite izan zuten lagunok: bateginik, hasieran egon ziren bezalaxe, nobela janzten duen giro intimistari eutsiaz.

3. OBJEKTUAK

Amaitzeko, elaberrian agertuz doazen zenbait objeturen esanahiaz arituko gara. Pertsonaiak, jokamoldeak, harremanak, konnotazioz zama-tzen diren objektuen bidez zehaztu ohi dira nobeletan. Gurean ere, gauzen potentzialitate semikoari onura atera zaiola uste baitugu, esanahitsu deritzegun elementuren batzuk aztertzeraz goaz:

Arkadii eta Vasia

Honezkero, pertsonaien arteko erlazio eta anzekotasun-diferentziak nahikoa argi ditugu. Badaude, gainera, bi objektu, bakoitzaren estatusa irudikatzen dutenak: *ohea eta mahaia*.

Lehenengoa Arkadiiri loturik agertzen zaigu: hasiera-hasieratik jasotzen dugu inpresio hori, Ivanovitch ohean etzanda baitago presentazio orrietan. Bertan menderatzen du bromatan laguna, jarrera barregarrian ipiniaz. Argi dago «bere tokia» hauxe dela. Vasia, ostera, mahaiari josita dugu. Mahaiak, torturatzen duen erresponsabilidadea gogoratzen dio: hori da bere lekua, hotza, desatsegina. Ivanovitch eta Schumkovek ongi banaturik dituzte beren papelak. Arkascharen izaera indartsu eta zuhurrari, toki lasai eta atsegina ematen zaio. Taigabeko oinazepean dagoen Vasiari, ordez, lan lekua. (Aipamen askok erakusten dute pertsonaien errepresentazio ikoniko hau: «Vasia lan mahaian eseri zen. Arkadii ohera itzuli zen», 52; «Vasia eseri berriro eta isildu egin zen. Arkadii ohera itzuli zen», 58. Schumkovek pairatzen duen presio ikaragarriari, bere adiskidearen egoera paketsua kontrajartzen zaio. Baina badago gehiagorik: badirudi toki biok holan banaturik daudela halabeharrez; antza denez, Vasiak bere krisia berak bakarrik gaindi dezakeen bezalaxe, ezin du bere lekua borondate hutsez utzi: protagonistek tokiak elkarri trukutzen dizkiotenean, desoreka sortzen da haien artean.

—68, 69. orrietan: Arkadiik adiskidea ohean sartzea lortu du; konpromezu bat betetzeko, alde egin behar izan du. Etorkeran, Vasia ez da goela etxean ikusten du, mahaira hurbiltzen da lana nola doan ikusteko, eta bat batean, Schumkov agertzen da. Giroa oso arraroa da: orduantxe aitortuko du Vasiliik, aztoraturik, benetan egin behar duen lana: zazpi kuaderno: «Arkadii harri eta zur geratu zen», 71.

—82, 85. orri.: berriz ere, Arkadii Ivanovitchek Vasia «hartu zuen be-soetan eta ohean sartu zuen». Honek, iratzartzeko eskatu dio, baina Arkaschak hamar ordu igaro baino lehenago esnatzea debekatu dio neska-meari. Bulegotik itzuli denean, Nefedovitchek laguna artega eta gelatik paseatzen aurkitu du: «Utzi zion paseatzeari eta lan mahai aurrean eseri zen (...) Arkadiiren anaitasunean ere ez zuen konfidantzarik», 85.

Era berean, Vasiliiren «*duma eta paperak*», zorioneko «kuaderno»ek, beti gainean dagoen presioa ispilatzen dute, erantzun beharreko errespon-sabilidadeari deia. Eromenaren lehenengo zantzuak emanda izan eta gero, Vasia ohean datza, apurtuta; Arkadiik, bitartean, lo kuluxkak egiten ditu, «ukalondoa mahai gainean tinkaturik», 89. Oraintxe da delako «amets arra-roa» egiten duenean. Ametsa ere objektutzat jotzen dugu, irudien munduari baitagokio. Oso mamitsua dugu amets hau:

- batetik, Arkadiiren kezka guztiak erreflejatzen ditu:
- Vasiaren mesfidantza, traizioa.
- lagunaren gaixotasuna, hemen heriotza.

Bestetik, errealiterako pausoa irudikatzen du: ametsaren azken iru-diak Vasia mahai zerraldo erakusten digu; Arkadiik ikusten duen lehena bere laguna da, ez hilotz, egia, baina bizirik dirauen hildako baten mo-duan.

Konturatzen gara, beraz, lokamutsak gertatzeaz dagoenaren au-rreikuskerara ematen digula. Baina ez da objektuen mintzaldia hor geldit-zen: luma-paperek ere hitz egiten dute egoeraz: Vasia luma tintontzian busti barik ari da idazten. Lan eta lan jardun arren, papelak zuritan daude.

Honelakoxea da Schumkoven burruka: negar eta hasperen; sufrimen-dua, bihotzestura... baina ez du aurrera irtetzeko adorerik. Hartuko duen zigorra irudimenezkoa den bezalaxe, oraingo lana ere gezurrezkoa da. Va-silii bere amets munduan bizi da, baina fantasiak ez dute balio gizakien munduan. Berdin berdin, huts dira bere hitzak: «Ezpainak hitzik esan gabe mugitzen zitzaizkion», 91. (Ohar gaitzezen, gainera, gertaera trajiko hau ere ohe-mahai aldaketarekin batera gertatzen dela.)

Bigarren maila batean, zeharbidez bakarrik aipatzen dira eta, beste pare bat objekturen balizko adieraz mintzatuko gara. Sarri askotan irakur-tzen dugu nobelan Vasiak ez duela bere burua daukan zorionaren duintzat jotzen. Honek beronek areagotu egiten du bere indargabezia, eta egoera paradojiko sortu: maite duenak izugarri erakartzen du, baina, era berean atsekabetu. Ausardia falta zaio maite duena lasai maitatzeko, merezi ez duelakoan. Hauxe ematen digu aditzera, oker ez bagaude, *Lisaren pianoko musikak*: «gaur Lisaren etxera joan naiz, baina ez naiz sartu. Ate aurrean gelditu eta Lisak pianoa nola jotzen zuen entzuten egon naiz. Eta zerbait

astun, ilun eta garratzek bihotza itoerazten zidan. Ulertzen al duzu, Arkadii? —bukatu zuen ahots isilez— es naiz ausartu sartzen», 77.

Hemen arras argi azaltzen du Vasiak bere problema: arazoa ez da lana, ez dira papelak: ez ausartzea da gakoa.

Bi hitz gehiago beste objektu bati buruz: erdi eroturik, Ivanovitch mediku baten bila abiatzeko denean, Vasiaren begiek salatzen duten «erabaki» arraroaz jabetzen da. Orduan, «berriz etxera itzuliz, mahai gainean zegoen *haizto bat* eraman zuen zuhurki», 90.

Lehen esaten genuenez, alde batetik, elkarrekiko konfidantzaren haustura erakusten du jokamolde honek. Bestetik, objektuari begira, bukaera trajikoa iradokitzen duen herio konnotazioa dakarkigu gogotara. Vasiak ez du bizia galduko, baina ez da inoiz gehiago pertsona bera izango. Nolabait ere, zeozer hilko da, loratzen ari zen zorion berria, alegia. Honetan, jakina, Lisa ere suertatzen da inplikaturik. Herio alusioek neskari ere egiten diote erreferentzia: «Zergatik hil? Zer egin du Lisak? —jarraitu zuen ahots torturatuz— Nirea da errua, nirea bakarrik», 39. Bada go azken aukera bat pasarte honen interpretaziorako, hots, Vasiaren espresioa oker ulertu izana. Arkadii, asalaturik, lagunaren begietan irakurtzen duen «erabaki arraroa» baliteke soldadu joatearekin erlazionaturik egotea, eta ez herioarekin, inondik inora. Hala izatekotan sistema semiko ez linguistikoen bidez igorritako mezuaren interpretapen okerra eukiko genuke.

Protagonistak eta Lisa

Badaude neska eta mutilak elkartzen dituzten objektuak, adibidez, *sonbrailua*. Kapelaz ematen zaigun deskripzioak nahi ta nahiez objektuaren zer-nolakoak Lisari eranstera bultzatzen gaitu (opariak, jasoko dituen pertsonaz pentsatzen erosten ditugula esan ohi da): «tulezkoa da osorik eta arina, oso arina, gerezi koloreko zinta zabal bat dator, farfailez apainduta, tula eta kasketearen tartetik; beste bi zabal eta luzeak garaite gainerantz erortzen dira», 43; «Leroux andereak, zetazko oso paper finetan bildu zuen sonbrailua eta ondoren orratzez josi zuen paketetxea. Eta hainbateko emetasunez bildu zuen, ze paketeak, lehen sonbrailuak baino arinagoa baitzirudien», 39. Honela: fin, koketa eta «hauskorra» sumatzen dugu Lisa. Ez gara gu sonbrailua eta neska bateratzen ditugun bakarrik: «Musu bat eman zion objektu hauskorrari eta ondoren, bere altxorra hondatu beldurrez, inguratzen zuen espazioa besarkatu zuen», 35. Vasiaren adorazioa eta mutilak Lisarekiko errepresentatzen duen babesa paketeari ematen dion tratuan ikusten ditugu. Bestalde, mutil biek hartu dute parte

erosketan; Opariak, beraz, hiru lagunen —batez ere mutilen— batasuna irudikatzen du.

Lisak ere badauka zer edo zer bere maitearentzat. Bere amaren indiskrekzioari esker, Vasiak andregaiak Urteberria ospatzeko erregalatuko diona ikusteko aukera du. *Diruzorro* eder bat da, «Urrezko bordatuz eginitiko marrazki bikainak zituen diruzorro bat zen. Alde batetik, orkatz bat ageri zen, beira alez egina eta guztiz benetakoa zirudiena; beste alde batetik jeneral ezagun baten antz izugarria zuen erretratua», 45. Irudimen bi-ziegia eukitea izango al litzateke irudi horretan premonizio antzeko zerbait ikustea? Ohar gaitezen diruzorroan agertzen dena ez dela jeneral jakin baten aurpegia, jeneral batekin «antz izugarria» zuen gizon batena baizik. Vasia ere ez da militarra, baina antzera jokatzen du. Objektu honek ez dauka elaberrian bestelako funtziorik: mutila ez da kartera jasotzera iritsiko (edo ez zaigu esaten, behinik behin: oparia ez dago bukatu-rik (62), Vasiaren patua artean bete ez den bezala). Funtzionaltasunari begira, beraz, diruzorroaren egitekoa neskaren maitasuna ispilatzea dela esango genuke... eta amaiera trajikoaren zantzu legez jokatzea ere bai.

Azkenik, badago komentagarri den beste objektu bat. Urteberri egunean Lisak bere neba bialtzen du Schumkoven etxera erregalu batekin. Lehenengoz gogoratu behar duguna haurraren ordezkatzeko lana da: aurretik azaldu dugunaren arabera, Petinka bere arrebaren lekuan jartzen da, eta, Vasiliik, —sonbrailuarekin egin zuen bezalaxe— musukatu egingo du, ez-painetan gainera, «Lisaren antz-antzekoak baitzitu», 61. Beste inon aipatu dugu baita, zeharbidez egin arren, Vasiaren ezbeharra ezagutzean umeak duen erreakzioa bere arrebak nobelaren bukaeran daukana bezalakoxea dela: biok, Schumkovek berak momentu batean egiten duen legetxe, bere nigarra izkututzen dute: «Petinka txikiak, hain gazte izanik ere, ulertu zuen Vasia gizarajoari gertaturiko zorigaitza eta bazter batetan ezkutatu, aurpegia eskuen artean, bihotz barretetik egiten zuen negar, haur bihotz barretetik...», 105.

Lisa eta umearen arteko parekotasuna, hortaz, haintzakotzat hartzeak merezi duela uste dugu.

Baina gure azterketarako interesgarriagoa da seinak dakarren oparia: «Eta Vasiak, hunkipenez dardarka, ilekizkur bat erakutsi zion, beltz eder-ederra; gero, suharki laztandu ondoren, barne faltrikeran sartu zuen, bihotzetik txit gertu», 62. *Ile kizkurra*, andregaiaren irudi metonimikoa genuke. Schumkoven laztanez bere maitasuna adierazten dute, baina oraingo honetan ere, ez da Vasia erregalua berea sentitzen duen bakarra: «Domina bat egieraziko dut hau gordetzeko —esan zuen Arkadiik erabakirik», 62.

Badirudi objektuok Lisak formulaturiko desioari erantzun nahi diotela: gogoratu: «hirurok izaki bakar bat». Zalantzarik gabe, Lisa eta kopisten

arteko harremana oso berezia da —gure Mendebaldeko pentsakera herdoilduaren arabera, behintzat—: badirudi hirurek ezkondu nahi dutela elkarrekin (bai Lisak eta bai Vasiak ere eskatzen diote Arkadiiri beraiekin bizitzeko) Schumkovek oso naturalki hartzen du bere adikidearen aitortzea, (Lisarekiko maitemundurarena, alegia). Maitasunak, hirurak bat egingo ditu. Objektuek —sentimenduen tankerara— pertsonaiak uztartzen dituzte. Artemievak bere senargaiari emaniko ile kizkurra, bukaeran Ivanovitchen eskuetara iritsiko da, borobila ixteko.

Amaitzeko, nobelaren semantikan gure eritziz giltzarri den beste objektu baten analisiari ekingo diogu. Soberan erakutsi denez, Dostoyewskik oso gauza gutxi aipatzen ditu behin bakarrik. *Bibotz abula* hau errekurrentziaz beterik aurkitzen dugu, jarrerak, keinuak, objektuak... denek hartzen dute fikzio narratiboan izari berri bat; guztiok errealtate denotatiboan daukatena baino esanahi zabal eta misteriotsuagoz janzen dira, mugagabeko sujerentzien iturri bihurtuaz. Honelaxe paisaiak, *hiriaren azken deskripzioak*, zentzu berria bereganatzen du eta nobelan gauzatzen den trajediako partaide bilakatu: «Izoztutako ibai gainean, non elurra pilatzen baitzen, azken dirdirak, miriadaka izotzezko diamante argitzen zuten. Gaua, hiriaren gainean eraikitzen zen, zero azpitik hogeitaz gradutakoa gutxienik, ezpairik gabe. Zigorpean saiatzen ziren zaldietatik eta zubietan zehar korrika zebilen jendearengandik, lurruna igotzen zen. Aire lehorrean, hotsik ttipiena ere entzuten zen. Erraldioen antza, kezko zutabeak altxatzen ziren etxe gainetan; elkarganatu eta banatu, masa sakon haiek, hiri zaharraren gainean, beste hiri bat bezala marrazten zuten // Esan zitekeen, mundu hori dena, bere biztanle indartsu eta ahulekin, eta bizileku horiek denak, zorigaitzokoen aterbe ala munduko boteretsuen lujozko jauregi, hori dena ilunsenti horretan, amets ero bat besterik ez zela, une batetik bestera desagertzera zihoana, zeru urdin beltzean gandu arina...», 106. Orduan erideiten du Arkaschak bere laguna eromenera eraman duen munduaren absurdoa. Etxe gainetan altxatzen den kezko mundu hura, non ez etxerik ez gizonik bereiztu ezin daitekeen, ahaltsu eta makalak, arlote eta aberatsak banatzen ahalegintzen den beheko mundu errukigabea baino askozaz egiazkoagoa da. Hiriak bezala, munduak ere baditu bi aurpegi: egunerokotasun arrunt eta soraioaren azpian, sufritzen eta zapalduak diren gizakien bizilekua dago, maitasunaren sakontasuna ulertzen ikasi ez duen mundua. Hauxe da benetan gezurrezko, faltsukeriazko gizartea, bere seme-alabak «eskerronez» hiltzen uzten dituen, gehienetan, gizakiek, beren itsutasunean ikusi ezin dutena.

Amets ero bat, besterik ez.

AMAITZEKO

Lantxo honetan ikusitako guztiak elaberriaren osagaien arteko koherentzia erakusten digu. Sistema linguistiko eta ez linguistikoek, elkarlanean dihardute nobelaren semantika eraikitzeko. Batzutan errekurente eta bestetan elkarren osagarri, hasiera baten egin daitekeenaz besterako irakurkera bat, eta beste hamaika ere, posible direla dioskue, literaturlana, «opera aperta» denez. Sistema semiko ez-linguistikoek Vasia eta Arkadiiren historia uste baino sakon eta korapilotsuagoa dela jakinerazten digute. Dostoyewski ez zebilen txantxetan bere idazgaiak mundu errealetik hartzen zituela zioenean: bere esku trebeaz, ahaztu ezinezko pertsonaiak moldatu ditu, giza psikologiaren ezagutza sakona agertaraziaz. Nobela irakurri eta gero, Ivanovitch eta Schumkov ez dira jadanik inoiz liburu baten orrietan ezagutu genituen fikziozko fantsmak: bizirik diraute gure unibertso literarioan, porrot eta maitasunezko istorio baten lekuko. Izan ere, —zergatik ez aitortu?— beren nobela-izakien xamurtasunak bihotza ikutu digu.

BIBLIOGRAFIA

BOBES NAVES, M.C.: *Teoría general de la novela*, Madrid, Gredos, 1985.

DOSTOYEWSKY, Fedor: *Bihotz abula*, Donostia, Hordago, 1984.



OIHARTZUN ITOGARRIAK

Aspaldian legez, zelan ez,
Iturri borbortiaren kantu eternalak
Berriro eta behin ditu mailukatzen
Bidexkaren txintzar lotiak.

Mendeetako lotaldiaren gozotasunean
Ezkubidezko amets magalak
Babestutako paradisu lurrinduan
Zorabiatuрик dira oihartzun zitalak.

Lagunari bihotzez emandako txanponari
Gortu zaizkio ohizko txin-txin hotsak
Orroaka amildegiruntz artez
Ikuiluko behor deslaidak.

Ontsuko sargoriatik ihesika
Bidalduten digun ifarreko mendiak
Haixe goiztiarraren freskotasunaren zai
Irekita eskaratzeko ate biak.

Erromesa belauniko bomitoka
Ezin burutu dabilenak
Ahaleginaren ahaleginaz
Ote dira azken urratsak.

Iturrimiti



HERRI KONTALARIA

JOAN OTAEGI

KONTAGINTZAREN BEREIZTASUNETATIK BAT BI mailatara jokatzea da noski. Lehenengo eta agerian kontakizuna ematen zaigu, gertakizunak. Irakurlearen arreta berorrek darama. Baina gertakizun, pertsonaia, giro eta kontamoldearen bitartez bigarren maila eraikitzen doa kontalaria. Bigarren maila hau honetan datza: kontakizuna eremu zabalago batetan kokatua sumetzean, hau da, autoreak eraiki nahi izan duen mundu literarioaren barruan.

Beraz, kontatzeko modu honek lehen mailako ekintzari eransten dion berezitasun epikoa HEDADURA da. Esaten eta gertatzen den guztia, diskurtso molde honen bidez, estuki lotua suertatzen da mundo zabalago horrekin.

Aipatu dugun printzipio horren aplikazioa egingo dugu Orixeren *Euskaldunak* poemako bigarren kantua abiapuntu dugula. Izan ere, kontaktetaren azpitik honako herri hau ari zaigu agertzen: *Euskaldunak Herri kontalaria*: II, 1-280 bertso-lerrotan.

HERRI KONTALARIA

Bigarren kantu honetan aparteko moduz agertzen zaigu *Euskaldunak* poemako ikuskera hau. Herri kontalariaren ikuskera. Orixek berak

poemako sarreran dioenez, modan jarria zen herrien ikuskera folkloreakoa. Herrien esan, errefrac eta kontaketaren balioaz konturatuak ziren eta XIXgarren eta XXgarren gizaldietan lan handia egin zen herri bakoitzeko altxor hori jasotzen.

Euskal Herriari dagokionez, langintza hori puri-purian zegoen R.M. Azkuerekin: *Cancionero popular vasco*, *Euskal Herriaren Yakintza* eta *Diccionario vascoespañol-francés* lanen bitartez. Eraberean Aita Donostiaren lanez.

1. *Aurkezpena*

Poemako lehenengo kantuak San Migeletako herri-jaiak ematen dizkigu. Bigarren kantu honek poemaren ardatza suertatzen den beste mundu bati heltzen dio: lanari. Aldi berekoa dugu artazuriketa langintza, hau da, udazkenekoa; baina lanaren ikuskeratik egin. Udazkeneko lanaren arloan, berriz, eginkizun berezia da artazuriketa.

Lan honen inguruan sortzen ziren harremanak, familia eta auzo barruan kokatuak daude bereziki. Etxe barruko lana delarik, jende pilaketa, elkar-lana suposatzen du; gazteek, eginkizun beretan ordu luzeetako elkarikusian, gau ekintzan topo egitea, alegia. Giro berezi eta erakargarri horretan jartzen gaitu beraz Orixek «Artazuriketa» kantuan. Gehiago, udazkeneko lana izanaz gainera, bereziki gaueko lana ere bada. Egun argitan kanpoko lanak egin eta gaua luzatzen doaneko garaian ilunari orduak lapurtzeko langintza, gauaren xarma berarekin duela.

«Artazuriketa zuten gauez Errekalde'n...
neska-mutillek bikoka asiak ziraden.
Urtean zer zurrumurrur jaso onen ta aren,
arta-zuritzekoan zituten iraultzen» (II, 21-24).

Beraz, ez da lanaren beharrak zuzenduriko elkar bat egite hutsa. Lanaren inguruan gizarateak hartzen duen izaria agertzen digu Orixek: giza-harremanek hartzen duten izaria: «neska-mutillek bikoka asiak ziraden» (II, 22). Bestetik, urtearen gurpil osoari begira dagoen aparteko abagunea da artazuriketa: «zer zurrumurrur», hura «iraultzen». Familia, auzo eta gazte lagunak lanera bildu dira, baina lanera bezainbat elkarren ondora, lana bizi-jolas bihurtzera. Zurrumurruek ofizialtasuna hartuko dute giro honetan.

Orixek halaz ere, lehenengo, urtaroa aurkezten digu «Agiz Samigeletako artoak ebaki» (II, 1). Eta urtaroa bizi-beharrak duen irteera nagusietatik bat. Haretxen inguruan da langintza: artoaren inguruan esan nahi bait da.

«Janaririk bearrena -naiz lurmen naiz elur-
artoa da; artatik beintzat ez luke bear xur». (II, 5-6)

Izadiari loturiko bizitzan jaki garrantzitsua artoa. Lurrak eman du, uzta ona eman ere.

«Urte artan, izotzaren ukiturik ozta
alea gorri-gorri du eguzkiak jota;» (II, 9-10)

Lastoa zuritu gabe (izotzak jo gabe, noski) itaiez ebaki dute eta «alorrean an-emenka xoxetan eraiki ... » (II, 1). Urte onez izadiak ugari eta bikain emana, orain gizakiak maneatu behar negurako jakia prest egon dadin. Prestamen hori da, hain zuzen, artazuriketako langintza. Mandioan sartuak dira, han hego haizeak lehortuak. Orixek kantuaeren hasierako bertsotan deskribapen zehatzez eman dizkigu artazuriketeta aurreko pausoak. Noiz eta zerkiak trebeki eman dizkigu lehen ahapaldietan:

«Ego-aize atsegina mandioan, pil-pil
an diranak legortzeko sar-atera dabil;
arta-korda, lizar-ostoa, belar eta agotz-pil
kalerik gordeena-bein berriz derabil» (II, 13-16).

Bertsoaren erritmoa ondo zainduz, alperrikakorik ezer gabe, nahiago izan du hemen ere 16garreneko lehen hemistikioa silaba bat guxtiagotz eman, alperrikaketa betegarririk sartu baino. Bestetik, erritmoari etendura edo aldakuntza eman nahi izan dio hirugarren bertso-lerroan, lehen hemistikioa bitan banatuz, biok hitz elkartuak pare-parekoak eta bakoitzari aparteko nortasuna emanez. Hego haizeak guztia eraginean darabil. Mugimendu horren adierazle egokiak ditugu ahapaldian honako biokiok: «pil-pil», «sar-atera dabil», «bein berriz derabil». Aurkezpeneko deskribazioa biribildua duelarik, noiza eta zera emanak, alegia, orain non eta nor datoz: Errekalden eta bikoteak. Bikoteenak hedadura sendoa hartzen du kantuaeren hasiera horretan. Nor norengana dagoen, hartara biltzen bait dituzte ...

«Gero ta beroago bikoien asmaki;
nor norengana dagoen bat batek ba daki.
Biko-gaiak oro dira begi ta belarri
bakoitzen grina asmatzen; ez al da arrigarri» (II, 25-28).

Intentsitatea bide dela «bikote»en gora-beherak gorputz hartzen du kontatzaile nagusiaren eskutik. Lehenengo, urteko zurrurruak iraultzen. Baina iraultze eta asmaketak hurrengo pausoan areagotu egiten dira «gero ta be roago» (II, 25). Bikoteak ere erne jartzen direla, zer gertatuko,

zer esango, nor-norekin lotuko. «Biko gaiak oro dira begi ta belarri» (II, 27). Izan ere, gizartearen aurrean eta besteren esku dira nolabait.

Eta orokorki esana pareja batengana ekarria da hurrena: «Mikel'en etsai Gorri'ri ... / ipui ergel batek biotz emanik ... (II, 29-32). Bikoteen kezka «nor-norengana dagoan» eta jarriko dutenean datza. Gorritxori lehen kantukoan, «Pestaburu», neska kendu zion Mikelek, oraindik, halaz ere, berea duelako ustea sortu zaio. Baina kontatzaileak zeharbi-dez esan digu dagoeneko ez dela Gorritxorena Mikelena baizik. Horretara dator, noski, goizean ondo loturiko abarka Gorritxori ibilian askatu izana (II, 29-30). Usteak ustel doazkio Gorritxori, txoriak ihes egin dio. Bai eta oraindik beste honetan ere «ipui ergel batek biotz emanik» (II, 31). Kontalariaren «ergel» horrek garbi dio sustrairik gabeko ustea dela Gorritxorena.

Atzera lehenera dator kontalaria, guztia bilduz edo, noiz, non eta zer hiruan a biapuntura etorritz (II, 21-24garren ahapaldian, alegia):

«Gaezan ara bilduta jarduna badute:
eguraldi-asmakari, ipui ta bikote.
irri-karkara ta kantu, loaiza dezate;
gaueko lo-bildua biamonez ase» (II, 33-36).

Kontatzaileak behin eta berriz azpimarratzen digu herri esatariarena: lana haina dute nonbait «jarduna». Lagunarteak, elkarlanak berekin du hizketa. Edozertaz, noski, ihardun, baina hemen «asmakaritza» azpimarratzen digu. Hau da: «eguraldi-asmakari», «ipuin» asmakari, «bikote» asmakari seguruenik. «Asmakaritza» hori kontagintzan gorpuztua suertatzen da «ipui» en kasuan, alabaina, bizitzako edozeri buruzko iharduna ere hizketaldi suertatzen da elkar-giro horretan.

Aurtengoa (poemaren kantu honekiko diot) urte berezia dela eta, ez du ohizko hasiera «jardunik» (II, 37) emango. Eguraldi ona izan bait da, izotzak kalte eginikorik ez da. Baldin eta kalteturik balitz, oiloek amonari ihes egin diotelako izango litzateke, edota zenbait alor urrun egonik belek eta astindu dutelako, bai eta baso inguruetan basurdek egin kaltez.

Kontatzaileak gutxien uste denean egiten du sarrera, sartu-irten labur baina esanahitsuak: «Zimurrio bat baginun goizero landetan» (II, 45). Kontatzailea Errekaldeko sentitzen da nonbait, lehen pertsona pluralean egin bait du jauzi testura. Bera ere inplikatur dago, artasorotan egin kalteak kontatzailea ere jo egin du. Orain artekoa kontatzaile nagusiaren eskutik etorri zaigu, gero, kantu guztian zabalduko diren koadroen aurkezpenak berak eman dizkigu. Eta kantu guztiaren esanahia abiatu utzi du.

2. Joanes ebiztaria kontalari: II, 49-104

Joanes kontalari agertzen bazaigu ere, salto ka edo dator kontatzera. Beronen kontaketa ere, narratzaile nagusiak emanik dator, edo hobeto esanda, narratzaile nagusiak aurkeztua dator, beroni bidezko deritzonean bakarrik hartzen du hitza Joanesek. Ikusi baizik ez dago.

Lehenengo, aurkezpena egiten du kontatzaile nagusiak, Joanesen aurkezpena. Eta une honetan egiten du lanean ari zirelako aipamena. Joanesen esan nahi mendera-ezina eta lanean buru-belarri ari zirelako sentzazioak bat egin ditu, bata bestearen babesean, presa sentzazioa bizkortzeko.

«Jo-ta-ke ari ziraden: Joanes eiztari
erdi-bearrean dago egin zun einkari:
“onako buru au -dio- basurde-ortzari
nik kendua diteke ... aurten il nunari”». (II, 49-52).

Hiru esamolde daude hor: lanaren presa betea batetik, esan behar larria bestetik -erdi beharra-, eta eginkizun latzaren handitasuna azpimarrazten dituztenak. Horixe berori 49-50 bertso-lerro arteko zankalatrauz birretsirik agertzen dela.

Berriro ere kontatzaile nagusiak jasotzen du hitza eta berak darama kontaketa haria, bai kontatzaile nagusiari dagokiona bai Joanesi dagokiona:

«Adierazten du luze nondik dan ibili;
goizean goiz jeiki, eta mendiak irauli...
balin-bada, alper gaiztoan ditu erabilli;
azkenik, basurde-zai, artotan estali» (II, 53-56).

Hemen, beraz, ekintza momentua etorri baino lehen kontaketa haria kontatzaile nagusiak darama eta Joanesen ekintza-gunea datorrenean, orduan uzten dio honi konta lana. Hartu du, bada, Joanesek kontaketa 61garren bertso-lerroan eta 94garrenera bitartean berak emango du zuzenean. Hego haizeak hostrajeaz egiten duen hotsean izkutabide duelarik, «lizarabar eta lasto egoak dardara» bait du (II, 63), han dago zai «uzkur... zulora begira» (II, 65). Joanesek lehen pertsonan kontatzen digu. Une bizienean bakarrik utzi zaio hitza. Horrela, kontaketa goi une hori batetik eta lehen pertsonan emana dela bestetik, kontalariaren aldakuntza erritmo aldaeraren seinale bihurtzen dela esan dezakegu. Baina hori baino gehiago bigarren kontaketa honen barruan dagoen erritmo prozesua da esanahitsu suertatzen dena.

— Ehiztariaren egona lehenengo: arretatsua, noski, baina ezjakinak dakarren intentsitate handi gabekoa, bestalde:

«Etorriko dela noizpait ezkurdi artara,
barnean izkutaturik nago nere erara» (II, 61-62).

— Ehiztaria erne. Ehizaren ezbaia. Arreta tenkatu da:

«Orduan uzkur nengoen zulora begira.
Alakoan basurdea zuzenik esira;
ataka aurrean, aieruz, lipar bat geldi da...
inor sumatzen ez-ta sar-nai artadira» (II, 65-68)

Badirudi giza-lapuraren errittoa egin duela ehizak, inor ote den ala ez sumatzeko geldialdi eta guzti. Aditzaren aspektua iraunkortasunarena delarik konta moldea eskenikoa dugu erabat. Ehiztari eta ehizaren begirada, keinu, artega-une, mugimendu erabakior, guztia eskenaren ezaugarrietan emana.

— Kontaketaren bizi-gunea: ekintza azkar, erreakzio, arrisku-gune, guztia zenbait ahapaldi azkarretan burutua:

«Argigunetik barnera ager du muturra
—lenagokoan ain errez esirik ez urra—;
gorputza sartu baño len, arbi-azi xurra
tiroa jaiki eta jaurti diot purra» (II, 69-72)

Azken bertso-lerroak, 72garrenak, bi pausotan eman digu ehiztariaren ekintza, tiroaren bi denborak markatuz: tiro hotsa eta perdigoien purra itxia: «tiroa jaiki eta jaurti diot purra», bi aditz zein baino zein egokiagoz pauso bikoitz hori azpimarratuz. 71garren bertsoa, ordea, metafora egokiz, batere aditzik gabe emana gelditu da: «arbi-azi». Eta adjetibo bidez karakterizatua: «arbi-azi xurra». Perdigoien txeha eta zarataren iraunkorra aparteko bizitzasunez esanak daude hor.

Bestetik, halako arrisku, presa-behar sentsazioa uzten du horrako «...ager du muturra / ... / gorputza sartu baño len ... » (II, 69, 71) horrek.

Hurrengo ahapaldian ekintza burutua dugu:

«Begiak itsutu zaizko: egin du atzera;
zororik alditxo batez geldi tinkatu da.
Berriro —z nai orduko— ernaldut arma,
balaz bota naiean amar umen ama» (II, 73-76).

Bi ahapaldi hauetan ordena honetara izan da: basurdearen ekintza → ehiztariaren ekintza; aurrekoetan, berriz, lehenengo ehiztariaren ekintza azpimarratu da Joanesek artaburu kaltetua aurkitu duenetik. Aha-

paldi bi hauetan (II, 69-72; 73-76) aditzek markaturik datoz basurde-ehiztariaren pausoak; berarekin du ahapaldi honek basurdearen inizatibari ehiztariak berehala erantzun eta aurrea hartu beharraren presa eta antsia. Emistikioak ere perpausa edo sintagmaz biribilduak datozela, pausoen marka nabarmenago suertatzen da.

Ondoren datozen bi ahapaldietan ekintzan aurrea hartzen du ehiztariak:

«Aren atzetik ni ere larratzera salto,
an-emengo lizarretan itsu ark oztopo;
bat buruz indarka jota gelditzen da zoro
—tiroz menderatzeko ezin eskurago—» (II, 81-84).
«Berun-ezkurra sar diot bi biriketatik» (II, 85).

Horrez gero, laster burutu da burrukaldi hori. Orixek ez digu halaz ere, benetazko burrukaldirik jarri nahi izan. Bizitza arruntean gertatu ohi dena, edo gertatu ohi den erara eman nahi izan du. Beti ere normalitatearen inguruko. Ehiztariak aurrea hartuz gero: «tiroz jo», «Aren atzetik ... larratzera salto» ehiza noraezean eta iheska da, bapatean eskura geratzen zaiola. Bigarren tiro hau nahikoa du. Ehiza eskumeneratu zaio erabat. Oraingoan ere tiro edukia metaforaz jantzi du Orixek: «Berun-ezkurra». Ezin ironia handia-goz gainera. Bietan: «arbiazi xurra» (II, 71), «berun-ezkurra» (II, 85), jatena hartu du adibide, baina izate xeheak du nagusitasuna lehenengoan, janari irrikatuak, berriz, bigarrenean, kontalariaren ironia indartua suertatzen dela.

Joko nahiz kontakizun, Orixek, oihartzuna ematen dio entzulego-ikuslegoan. Apustu-jokalarien ondoan, entzuleek edo entzuleren batek egingo dio oihartzun, kasuan, «Bekain»ek. Ez da, ordea, oihartzun hutsa. Tirabira eta elkarren lehia baizik. Joanes eta basurdearen arteko borroka Joanes eta «Bekain»en arteko dialektika labur bihurtzen da. Eta kasu honetan kontatzaile nagusia da haria daramana, bai eta pertsonaiei hitza ematen diena. Azkenik berorrek egiten du «ehiztari-adoia»ren goratzarre (II, 101).

Berriz ere kontatzaile nagusiak hartu du haria. Baina kontutan har dezagun, ez duela artazuriketa deskribatzeko eskuratu kontaketa, baizik eta Errekalden bildurik daudenen hizketa nondik nora dabilen adierazteko. Hala «Itza bestera da...» (II, 105). Kontatzaile nagusiak darabil hitza, dudarik gabe, baina, deskribatzeko gainera, eta, batez ere, esango nuke, herriak zer hautu darabilen kontatzeko da. Jadanik bigarren ahapaldian esana zigu: «elur-melur, ez nauk ire beldur; etxean ba ditiat arto eta egur» (II, 7-8). Gero, Joanesen ehiza eman digu Joanesek berak kontaturik, Arestian, berriz, Joanes eta «bekain»en hikamika. Orain, urtearen eta uztaren ona dute mintzagai. Eta berehala:

«Onelako jardunetan aldi bat eginik,
asmakari bitxitara jo zuten urrenik» (II, 113-114).

Urte ona eta txarra irauli dituzte ahotan eta asmakarietara jotzen dute. Kontatzaileak nahiko izan du asmakari horietako bat ematea; tipotzat eman du. Baina behin eta berriz, kontaketa luze edo laburra dela aitzaki esa-mesa, hikamika edota asmakizun, herri esatariaren pausoak jarraitu nahiez dabil narratzailea. Horren testigu dira II, 105-120 bitarteko bertso-leerroak.

3. *Atxomotxa kontalari*

Berehala, kontatzaile nagusiak beste esatari baten aurkezpena egiten digu, Atxomotxarena, beronek hartuko du txanda kontaketa luze batetarako «kontueder-kontari» bait da:

«Bakarra zan atxomotxa kontu-eder-kontari.
Gazteek aixuka dute bat dezan ekarri.
Uka-muka aundirik bage lotu da lanari,
zerbait asma baleza gazteen pozkari» (II, 121-124).

Aurkezpen honetan, dagoeneko kalifikatua digu kontalari berri hori, «bakarra» zen, alegia. Baita kontakizuna ere, «kontu-eder»ak emango dizkigu, ipuin jeneroa bereiztua dugu, bada. Eta, beronetan kontalaria atzera kalifikatua suertatuko da: «kontu-eder-kontari». Gazteek ofizioa duenari egiten diote erregu eta eske «aixuka». Honez gero esan dezagun, kontalaria izen emakeraz ere kalifikatua geratu dela, «atxomotxa» noski, horrelaxe adierazkortasunez emana, bere txiki izatearen erakusgarri. Baita gazteek egiten dioten eskaria ere, «aixuka» eta ez «aizuka» egiten bait diote, molde berez adierazkortasuna indartzen dela. Kontakizuna ere gazteei dagokien mudu-girokoa izango da, berauen ametsen araberazkoa: «andre eder aundiki eta hutxa bete diru» (II, 126) kontaktizun muin direla. Oraindik ere kontalariaren trebezia azpimarratuko du berriro: «Ba daki nondik asi tan non bear bukatu/Begi-belarri ditula, beregana lotu» (II, 127-128). Esatari onari adi zaio herria. Literaturan eza-guna den historia kontatzen du hortik aurrera: errege baten alabarena. Poemak lehen argitaralpen honetan, ohar batez, Barbier euskal idazlearen *Ichtorio-micheterio* liburuan «Erregina irriz» ipuina aztertzeraz bultzatzen gaitu.

Atxomotxak gainditu ezinezko egoera batetara garamatza:

«Errege baten alaba bein batez eri zen;
—meriku, sorgin— iñortxok senda etzezaken» (II, 129-130).

Kontaktetako kontrastea ematen digu: handiki erregeren ahalmenaren ondoan, ezinak gorputz hartzen du: ez zientziak, ez magia k ezin dute erregeren alaba oneratu. Batetik kontrajartze hori, baina bada besterik:

«txabol aul batean, iru anai ziren bizi
erregearen agintza zutenak ikasi.
Ba-ez-bada, asmatu dute beinik bein ikusi
alaba ari nolatan par eginerazi» (II, 137-140).

Ahulezia eta ez-gauzaren munduan, bestalde, bada itxaropenaren bidea egin eta erakusten duenik. Hemen ere «txabol aul batean» bildu da jende animosoa, hiru anaiak dira arazo honi leialtasunez erantzuten diotenak. Hiru anaiek, bakoitzak bere erara, ibilbide bera egingo dute. Lehenengo biek ez diote bide ertzeko sorgin-zuloko andreari laguntzarik emango. Dena dela, misterio eta magia giroko ipuin honetan hirugarren anaiak lortuko du erregeren alabari barre egineraztea, honela amaiera zorionsua duelarik. Hortik, bada, «kontu-eder»tzat ematea kontatzaile nagusiak. Halakoak ematen ditu atxomatxak: «Gialko lau ipui arin jaiki dituneko» (II, 281). Beraz, herri kontalariaren barruan «kontueder-kontari» (II, 121) izango da atxomotxa.

Joanesek lehen pertsonan kontaktzen du, baina atxomotxak hirugarrenean; Joanesek bere historia kontatu bait du, atxomotxak berriz, besterena. Atxomotxa kontatzaile besterik ez da, kontatzaile trebe halaz ere, eta herri kontalariaren tipo.

Andre erregin-alabaren ipuinean hirugarren anaiaren pasarteak luzatzen ditu kontalariak, gure kasuan atxomotxak, barregarritasunez beterik. Sorginzulotik errege-jauregira egiten duen bidea gertakizun xelebrez gainezka dator; hasi apaiz-etxean eta errege-jauregira bitartean mutil-bildotxen atzetik korda luze irrigaria biltzen da: apaiza neskamea erdi-jantzirik atzetik soineko urratua duela, aza hostoa soineko-zulo-tapaki, hiru ahuntz, okina, arotza, bi emakume erratz eta guzti, zakurra eta itsua. Prozesio korda modu hau ikustean zabaldu zaizkio begiak erreginalabari eta erne irribarrea.

Herri kontalari hau libertimendurako bideak ematen ari da. Gogoan har dezagun lehen esan diguna:

«Gauean ara bilduta jarduna ba dute;
eguraldi-asmakari, ipui ta bikote.
Irri-karkara ta kantu ... » (II, 33-35).



ETIMOLOGIA IZOITADU BATEN USTEA EGOSTEN

ANDER ROS KUBAS. ANTSOAIN

*Anette
Maxime
Iagunari*

*AXULARREN PROSA GOZOA DASTATUZ ERRUZ
ikasten da gizakiaren naturaz, gure lurreko animalia arruntek jatekoak
egosi ez, eta hausnartu egiten omen dituzte; gizakiak, berriz, jatekoak egosi
ezezik, barrenak ere ditu egosten, eta urdailaz ez, baizik eta buruaz du
hausnartzen. Zeinen gizaki aldrebesa!*

Etsaiak Jainkoaren purgak eta azoteak izan eta holakotzat hartu behar ditugula gogoratuz, beste lerroarte hau paratzen digu Sarakoak (204): baldin hala errizibi balitza, eta baginitza, ezkindezke, egiten garen bezala, etsaiaren kontra kolera, eta ez geure baithan barrena ere egos eta malenkonia. Orri batzuk atzerago (377) berretua zuen barrenak egostearen sufrimenduaren ideia berbera: Adimendua egosiko da bere baithan barrena, hanbat pena eta hain handiak pairatu behar dituela konsideratzeaz.

Izan ere, endelegamendu eta sentimendu eremuko lexikoa sekundario da hizkuntzan, gizakiaren gizarteratze berantiarren lekuko. Euskara ez da salbuespena, noski, eta eremu lexiko materialagoetarik izpiritualizatu ditugu zenbait hitz arrunt. Axularren testoez erakutsi digute *egosi* eta *hausnartu* hitzen hedapen semantiko ezaguna. Nahi genuke lerro hauen bidez *egosi* berberaren beste lerradura bat agertu, *uste* hitzaren jatorria argitzen diguna hain zuzen. Usteak omen duenez erdia ustel, ustea ebidentzia antza bihurtu nahi genuke zenbait argudio plazaratuz, fonetikoak eta morfologikoak batzuk, euskararen barrukoak; eta semantikoak bestetzuk, inguruko eta urrutiko zenbait paralelismo gogora ekarriaz.

Hasteko eta bat *koitadu* bera aipatu beharrekoa da. Jatorri ezaguneko izanagatik ere, ez da erabateko adostasuna lortu erromanisten artean. Gure koitadu gaztelaniazko *cuitado-rekin* dago lotua noski, kontinentetik sartu omen zitzaigun, okzitanieratik, katalaneraz presente dago hitza, baina ez frantsesean. Corominasek lat. Klas. COACTUS behartua, koaktatua postulatu du, Menéndez Pidalék (Cid 613), ordea, COCTUS egosia postulatu du. Ez du Corominasek errefusatu M. Pidalen bidea, baina gus-tokoago du bestea (será aceptable si no hubiera otra preferible). Linguista katalanak kontra ematen duen argudio bakarra, aurreritzi subjeto batetan oinarrituriko *egosi* = pena zentzu parekotasunaren modernotasun hipotetiko da: de todos modos debe observarse que en parte se trata de comparaciones del lenguaje trivial reciente (freir, achicharrar) difícilmente equiparables con el estilo de los trovadores y de Berceo. Katalanez *cuit* forma dute bata eta besteak. Axular ez bardoa baina ezta ere bordea, bere estilo ez da ez trivial ezta reciente ere. COACTUS etimoiari, bestenaz, trobado-reen neurriko ez den kulto kutsua dario, gaztelania eta frantses modernoetan *coacción/coccción* *coaction/coction* oposaketa garbi mantentzen da. Ez zaigu komeni gurea oso ez den hesparruetan intrometitzea, eta erromani-ko erromanistentzat utziko dugu, euskarak eskain dezakeen argia M. Pidalen bidera alderatzen gaituena dela gogoratuz.

Argudio semantikoak momentu batez alboratuz, formula dezagun *egostetik uste-rako* bide fonetiko eta morfologikoa.

Batetik, *egos-* oinarriak lehenik *eusk-* eta gero *us-* eman du beste aditz ezagun batzuetan: *egotzi-k* eman du *utzi*) eta *egorten-ek* eman du *urten* Mitxelenak proposatu eta aho batez onartua den bezala. Fonetikoki argiak diren fenomenoak dira, batere iruzkinik behar ez dutenak.

Bestetik, goian aurreratu bezala, *-te* aspektu marka fosilizatua izan da eta aditzaren erroari lotu. *Egorten/urten* bikotea aurrean izateak esplikazio luzeagoren beharra arintzen du, hala ere fosilizazioaren nondik norako eta zergatia ez da orain artean gehiegi azaldua izan. Esan dezagun, aurrera gabe, *egosten/uste* bikotea defenditzeko *usten* behar dugula, Gipuzkoa aldean erabilia den *usten* hera, hain zuzen ere. Fonetikoki aspektu markako

-ten formaren amaierako *-n* hori galtzen da eskuarki sandhietan hizkera mintzatuan: etortze aiz/etortzen aiz, egiteeu/egiten degu, bestela *uste* primariotzat harturik *-ten* marken analogiaz esplikatu beharko genuke *usten* formaren *n*-a.

Zer dela eta *-ten* aspektu markak bere funtzioari utzi eta ondorioz fosilizatu? Aditz aspektuaren sistemari kasu egin behar ote zaion nago. *Egorri*-ren kasuan argiago egon daiteke hauxe: *urte* aditza perfektiboa da, *egorri* ez bezala; azken honek *-ten* inperfektibotasun marka behar zuen aldioro, baina *urten* formak atera zentzua hartzean sobera zuen inperfektibotasun marka, eta hortaz, desagertarazi ez baina fosilizatu egin zuen. *Egosi* eta *uste* formen kasuan, biak dira ez-perfektoak, gehiago bigarrena lehena baino; hortaz *-ten* marka aldioro eraman beharrekoak, zer dela eta, ordua, *uste(n)* formak *-ten* sufizua fosilizatu? Badirudi esplikazioa beronen nominalizatzean legokeela, *nahi*, *behar*, *balio*, preberbialeiei asimilatu eta berezko aditzari zegozkion markak baztertu egin zituela nonbait.

Semantikara bueltatuz, zenbait paralelo berri ekarriko dugu gogora. Axularrek *egosi-ri* ematen dion zentzua, melankonitua, penatu da; sumindu, erre ematen du Sarasolak, bata edo bestea *koitadu* eta *erre* hitzenarekin batto datorrena da beti ere, sentimenduzko eremu semantikoari dagozkionak biak. Pentsa daiteke entelegamenduaren eremua oraindik urrutixko dagoela. Hor ditugu, ordea, euskara osoan zabaldua den (*b*) *ausnartu* hitza, hasierako lerroetan aipatu duguna. Beste bat dugu frantsesezko *fricoter* berezko zentzua egosi duelarik, *mener secrètement (une affaire)*, *ourdir (un project)* duena zentzu hedatu modernoa, beste zenbait zentzurekin batera, pentsamenduzko ekintzekin erlazio oposatuenean dagoen *avoir des relations sexuelles avec* besteak beste. Frantsesetik atera gabe, eta informazio eskaini digun Annette Maximeri laguntza eskertzen utzi gabe, *mijoter* dugu lerradura berberatsua erakusten duen beste *bitza:faire cuire ou bouillir lentement à petit feu* zentzutik *mûrir, préparer avec réflexion et discrétion (une affaire, un pr~et, une ouvre)*, zentzura; gaztelaniazko *madurar una idea* hain zuzen, *madurar* eta *mijoter* heldu, zoritu esanahia partzuer bait dute. Errusieraz *varitt* dugu *egosiren* parekoa, zenbait kontestutan entelegamenduzko zentzua ere har dezakeena: *golova varit* hitzez hitz burua egosten du itzuliko genukeenak, burua badabilkio edo du esanahia.

Azkenengo adibide honetan, gaztelaniazko *madurar una idea*, edo euskarazko hainbeste adibidetan bezala, *bitza jan, asmo bat erabili, ideia bat jorratu, burua berotu ...* entelegamenduzko zentzua ematen duen hitza dugu ondoan: *golova* buru errusieraz, *idea* erderaz, *.bitza asmo ideia burua* euskaraz. Hauek dira tradizio estrukturalistan sema kontestuala ize naz ezagutzen den esanahi atala, kontestu batean atzematen direnak. Sema kontestua} hauen asimilazioan datza aldaketa semantiko garrantzitsu bat, eta informazio kontestual hau sistematizatzeko ahalegin batetan oinarritzen

da distribuzionalisten entseia, *le sens d' une forme linguistique se définit par la totalité de ses emplois, par leur distribution et par les types de liaisons qui en résultent* diosku Benvenistek. Infekzio fenomenoa deitzen dio R. Adradosek, eta honela definitzen digu aldaketa semantiko mota hau: *En suma, los diversos contextos en que aparece una palabra hacen posible que contraiga nuevas oposiciones con otras palabras que actúen como términos positivos y desarrolle así por polarización nuevos sentidos*. Testoinguru batetan kontestuak eman eta gailenerazi sema bat inposatzen da besteen kaltetan, besteak suspendituz, eta testoinguru horren beharrik gabe, esanahi efektu berbera lortzeko gai denean gauzatua da aldaketa. Kontutan hartu behar da erlazio kontestuala, erlazio mental hutsa ere izan daitekeela, kontestuan presente egon beharrik ez dagokeena hortaz.

- BENVENISTE, E. (1954): Problèmes sémantiques de la reconstruction, in *Problèmes de linguistique générale*, I, 279-307 arr. Gallimard 1966.
- MEILLET, A. (1948): Comment les mots changent de sens, in *Linguistique historique et linguistique générale*, I, 230-271 arr. Paris.
- COSERIU, E. (1964): Pour une sémantique diachronique structurale, in *Trav. du Centre de Phil. et Litt. Romanes, Strasburgo*, II, 1, 139-186 arr.
- ADRADOS, F.R. (1964): Estructura del vocabulario y estructura de la lengua, in *Estudios de lingüística general*, 25-60 orr.





BONAPARTE PRINTZEAREN PA- PER BATEKO DIALEKTOLOGIA

ANDER ROS KUBAS

*txus
cabello
lagun
jatorrari*

ESKUIZKRIBUA

GOIAN TRANSKRIBATU DUGUN ESKUIZKRIBUA

González Echegarayren katalogo zabarrean 58 eta berrian 33 zenbakia eta honako izenburu luze hau daramana da: [contestaciones a cuestionarios en dialectos del vascuence de Guipúzcoa y Navarra. Cuestionarios parciales de Hernani, Tolosa, Azpeitia, Cegama, Villafranca, Urdiain, Echarri-Aranaz, Vergara, Salinas, Irún, Vera, Lizaso, Huarte-Araquil, Garralda, Jaurrieta, Vidangoz, Arriba]. 1.etik 16.era zenbakituak diren orri solteak dira, 21 zentimetrotakoak, hasierako biak tamaina txikiagoko bi fitxa izaki.

Eskuizkribua ez da homogenea, hasierako zortzi orrietako edukiak ez datoz bat ondoko zortzi orrietakoekin. Azkenengo zortziak dira izenbururak erreferitzen dituen «cuestionarios parciales» direlakoak, eta hoiexek dira segidan transkribatzen ditugunak.

Hasierako orrietako gaiak, goiti beheiti, honakoxe hauetan laburbillitezke:

- a) A. fitxa orria: 8 lerrotan du et badu, da eta bada arteko oposaketaz, gaztelaniaz **tiene, ya tiene** eta **hay, ya hay** itzuliak. Azkenengo lerro batean *ikusi/ikus* pareta da idatzia.
- b) 2.a: Zirriborrotuagoa: dikat/diat; zaigu/zaiku; eroria iza, ikusia izan erabiliak ote diren galdera ikurrak eta, azkenez, etorri egin, egin eta egingo formak ez erabiliak bezala markatuak direla dirudi.
- c) 1.etik 19.era zenbakituak diren oharrak, s.etik aurrera binaka paratuak gehienak, eta beste idaztiren bati erreferentzia egiten diotenak (6. eta 8. orrietako galderei). Bestetik, Lardizabal birritan aipatua da. Hasierako oharretan, Zegamako aditza eredu hartzen dela, erori izan da, eta eroria izan da zein zentzutan erabiliak diren galdetzen da. 3.ean futurozko perfektiboa nola egin, e.a.
- d) Orri buruan «Guipuzcoano» daraman orria: aditz laguntzaileen 3. pertsonako flexioen zerrenda, eta erradikalari buruzko erabilerak, gipuzkerarena lapurterarenarekin alderatzen dela.
- e) «Cegama y Guip. en general» burua du 5. orriak. Puntu solte diferenteak, Hondarribiko formak konparagai hartzen direla. Garrantzitsuena etorri, -tzen, -ko egin adi:tzerakiko konbinazio posibleak.
- f) Hiru multzotan benanduriko esaldi multzoak, tatxatuak daudelarik inkestetan ez erabili bezala suertatu diren formak; lehendabiziko multzoan subjuntiboarekin eraturiko forma perifrastikoak, bigarrenean potentzialekikoak, eta hirugarrenean, baldintzazkoekikoak, denak hirugarren pertsonako flexioak.
- g) Nahasia 7. orri hau ere, Hernani, Tolosa, Azpeitia, Cegama, Villafranca, Bacaicoa, Echarri-Aranaz eta Irun herri izenak agertzen dira; Hernani, Tolosa eta Cegama izan ezik beste guztiak tatxatuak direla. Beste gauza tatxatuak orrian.
- h) 8.orriak 6.aren jarraipena dirudi, honek bezala, esaldi multzo tatxatuak eta 3. orriko galderei loturiko numeroak dituela.

Hurrengoko 8 orriak txukunago idatziak dira, garbira pasatutako inkestak emaitzak dira itxuraz, eskuizkributik traskribatua izatea merezi. Galdetegia 7 galderak osatua da, gaztelaniaz idatziak, eta segidan barietate dialektal bakoitze\ ko erantzuna datoz, hiru herrietakoak orri bakoitzeko eta Eaurtakoan 7.a falta izanik. Ondoren traskribatzen ditugu:

ESKUIZKRIBUKO AZKENENGO ZORTZI ORRIETAKO TESTOA

1. ¿se podrá tomar alguna cosa?
2. se podrá tomar una onza
3. se puede tomar la que se usa
4. se pueden conseguir algunos beneficios
5. no se puede salvar el hombre
6. es una cosa la mas admirable que se puede decir
7. no pudiendo ejecutarlo

HERNANI

1. artu litteke zerbait?
2. artu litteke antza bate raño
3. artu litteke neurrituban
4. irichi litezkiala zerbait gauz' on
5. eziñ salba ditteke gizona
6. da gauza bat esan al dittekian arrigarriyena
7. ezin badezake (*ransitif*) konfesatu

TOLOSA

1. artu liteke zerbait
2. artu liteke antza bat
3. artu liteke usatzen dana
4. konsegitu litezke onegin batzuek
5. eziñ salba diteke gizona
6. da gauza bat esan al ditekean bana ere miragarriyagua
7. ezpadezake (*transitif*) konfesatu

AZPEITIA

1. artu lezake (*transitif*) zerbait?
2. artu liteke onza bat
3. artu liteke oi dana
4. alcantza litezke meseden batzuben
5. eziñ diteke salbatu gizona
6. da gauza bat esan dittekian arrigarriyena
7. ezin konfesatu balezake (*transitif*)

CEGAMA

1. artuko litzeke zerbait?
2. artu litzeke ontza bat
3. artu litzeke artzen dana
4. konsegitu leizke onegiñen batzuk
5. ezin salbatu diteke gizona
6. da gauza bat esan al diteken arrigarrina
7. ezin badaike konfesatu

VILLAFRANCA

1. artu litzeke zerbait
2. artu litzeke ontza bat
3. logratu leizke usatzen dana
4. logratu leizke onegiñen batzuk
5. ezin salba diteke gizona
6. da gauza bat esan al diteken arrigarrina
7. ezin badaike konfesatu

URDIAN

1. artu daiteke zerbait?
2. artu daiteke ontza bat
3. artu daiteke akostumbratzen deina
4. irusten dei (*consiguen*) mesederen batzuk
5. ezin salba daiteke gizona
6. da gauza bat esan deiteken baño admirabliagua
7. ezin konfesatu bada

ECHARRIARANAZ

1. artu daitike zerbait
2. artu daitike ontza bat
3. artu daitike akostumbratzen dutena
4. erdeisten due (*consiguen*) mesederen batzuek¹
5. ezin salba daitike
6. da gauza bat esan al ditekean baño admirabliagua
7. ezin konfesatu bada

¹ Urdiaingo erantzuna azpian.

VERGARA

1. artu leike (*transitif*) zerbait?
2. artu leike (-) ontza bat
3. artu leike (-) artu izaten dabena
4. alkantzau leike (-) mesederen batzuek
5. ezin salbau leiteke gizona
6. da esan al ditekian gauzarik miragarrixena
7. konfesau eziñ baditeke

SALINAS

1. artu leiteke zerbait?
2. artu leiteke ontza bat
3. artu leiteke artu izaten daubena
4. alkantzau lei (*transitif*) mezederen batzuk
5. ezin salbau liteke gizona
6. da esan ditekian gauzarik miragarrixena
7. konfesau eziñ baditeke

IRUN

1. zerbait artu liteke?
2. artu liteke ontza bat
3. artu liteke usatzen dena
4. konsegitu litezke onegiñen batzuben
5. eziñ salbatu liteke gizona
6. da gauza bat esan al dittekenen miragarriyena
7. eziñ egiñ baluke (*transitif*) konfesatu

VERA

1. artu ditteke deusere?
2. artu ditteke ontza bat
3. artu ditteke usatzen dena
4. konsegi ditteke favoren bat
5. eztetteke gizona salbatu
6. da erran izan al ditteken gauzik admiragarriyena
7. ezpaditteke konfestu

ELIZONDO

1. ar daiteke zerbait
2. ar daiteke ontza bat
3. ar daiteke usatzen dena
4. konsegi daiteke zerbait fabore
5. eztaiteke gizona salbatu
6. da erran al daiteken gauzaik admiragarriena
7. ezpadaiteke konfesatu

URIZ

1. ar dezake (*fr.*) zerbait?
2. ar dezake (*fr.*) onza bat
3. ar dezake usatzen dutena²
4. konsegi baitzake (*fr.*) zerbait benefizio³
5. ezpaitaiteke salbatu gizona
6. da gauza bat ain admirablea ezpaitaite erran
7. ezpadezake (*fr.*) ejekatatu

LIZASO

1. artu datteke zerbait?
2. artu datteke ontza bat
3. artu datteke usetzen dena
4. erdechi *dezakefe* mercheden batzuk
5. ezdatteke salbatu gizona
6. da gauze bat erran *dezakegun* beño geyagokua
7. ezpadatteke konfesatu

HUARTE ARAQUIL

1. artu daike zerbaiti?
2. artu daite ontza bat

² «dutena» azpimarratua baina marra tatxatua gero.

³ «r» bat «m»en gainean, «?» markaz.

3. artu daike akostumbretzen dubena artzie⁴
4. konsegitzen du mesederen batzuek
5. eztaike salbatu gizona⁵
6. de gauza bat guk eziñ esan baño admirabliegokua⁶
7. eziñ konfesatu bada

GARRALDA

1. ar deiteke zerbait gauza?
2. ar deiteke onza bat
3. ar deiteke usatzen dutena
4. baitezake (*transitif*) erdietsi zerbait benefizio
5. gizona ezpaiteike salba
6. da jaun bat ain admirablea erran ezteikena⁷
7. ezpadezake (*transitif*) konfesatu

JAUURIETA

1. al izanen dayan ar zerbait gauza?
2. al izanen zu ar onza baten dina
3. diaitekezu ar usatzen dena
4. baitaizke konsegi benefizio zomait
5. eztaitekezu salba gizona
6. zu gauza bat admirablana zoin baitaiteke erran

VIDANGOZ

1. ar deitekia zerbait?
2. ar deiteke onza bat
3. ar deiteke usatan dena
4. alkanza baideiteke zomait benefizio
5. ez deiteke salba gizona
6. da gaiza bat kain admirable ez beideiteke erran
7. ez badeiteke konfesa

⁴ «dubena» marra eta desmarratua.

⁵ «gizonak» (sic), baina gero ergatibo marka tatxatua.

⁶ «de»ren gainean ikurra marka. Azken lau letrak ilun.

⁷ Zerbait «admirable»ren azpian.

ARRIBA

1. artu diteke zerbait?
2. artu diteke ontza bat
3. artu diteke akostumbratzen duena artzea⁸
3. erdeisten due meseden batzuk S. ezin sal ba diteke gizona
3. da gauze bat esan al ditekean baño admiragarrigoa
4. ezin konfesatu beda

ESKUIZKRIBUAREN EREMU DIALEKTALA ETA DATA

Dokumentuaren izenburuak zehazki seinalatzen duenez, Gipuzkoa eta Nafarroa Probintzietako euskalkietako galdetegiak biltzen ditu, dialektotz gipuzkera eta nafarrera ez direnak ere. Bonapartek duela t20 definitu zituen bariedade dialektalak dira galdetegiko inkestaguneak, Gipuzkoan bariedade guztietako herri bana dago, Zegamakoan, Zegamaz gain Villafranca ere badela; Nafarroan, ordez, Iparraldeko goi nafarrerari dagozkionak daude osorik ordezkatuak, beste dialekto eta azpidialektoek erreprezentazioa urriagoa dute, Artzeko bariedadeko Uriz herria da Hego goi nafarrerako inkestako puntu bakarra, Iruñeaz gaindiko eta onaindiko, eta Iltzarbeko beste bariedade guztiak falta direla, Egues, Olaibar, Erro, Aurizberri, Oltza, Zizur, Gulina eta Gares alegia. Ekialdeko euskalkiak ere ordezkatuak dira: saraitziera, aezkera, eta erronkaria, azken honetan Urtzainki eta Uztarrotzeko bariedadeak falta izanik. Inkestako herriak bat datoz «Karta»ko sailkapenekoekin, jadanik aurreko urteetan seinalatuak bait ziren. Aitzitik, nobedade bi aurkezten dute: lehenik Araizko bariedadean Intza herria ez, eta Arribas, Arriba sic, idatzia, eta bigarrenik aezkerarako Aribe ez, eta Garrantza aukeratuak izana. Interes gehien eskaintzen diguten puntuak, duda gabe, egun desargetuak diren bariedade eta ia euskalkietakoak dira, Uriz eta Bidankoze hain zuzen. Bidankoze erronkarierako bariedadetik hegoaldekoena da, eta hortaz lehenik galdu zena, eta Bonaparte Printzearentzako lehentasunezko herria izan eta bertan inkesta osoak burutu arren, hiltzorian zegokeen iragan mendearen ondarrean bertan. Uriz, bestetik, Artzibarreko herria da, nahikoa hegoaldean kokatua, t904.eko «Gida eklesiastiko»an erdalduntzat agertzen zaiguna, baina, haatik, Y rigaray-k t938.ean egin zerrendan III maila egotzi zion, hau da, 30 urtekoek jakin bai baina ez omen zuten pratikatzen, bai ordea, 50 urtetik gorakoek. Gaur egun Artzibarreko

⁸ Zerbait «duena»ren azpian.

euskararen azkenengo koldarrak; Arrieta, Heriberri, Oroz-Betelukoak ... iraukiak dira jadanik.

Honenbestez pentsa daiteke eskuizkribua 1869. urte aldean kokatu behar dela, bizpahiru urte lehenago gehienez, Printzeak bere karta linguistikoa, eta beraz bere laugarren eta azken sailkapena egina edo burutzeko zeukala, mapa atera aurretiko detaileez berau borobiltzen eta txukuntzen ari zenekoa.

GALDETEGIAREN GAIA

Galdetegiaren gaian sartu aurretik, Printzeak datuak biltzeko zerabilen metodologiak ohar batzuk seinalatu behar ditugu. Hasteko eta bat esan erantzunak ez dagozkiela beti bete betean gaztelerazko galderei; hautematen da, ordea, galdera paraleloak erabili izan direla galdeketetan. Hauak honela erantzunak maparatu isoglosa sinisgaitz batzuk irudiztatzen zaizkigu. Garbikiro antzematen da kointzidentzia eremuak ez direla isoglosa linguistikoek markatutakoak soilik, bada, haatik, inkesta edota biltzaile diferenteek eragindako diferentzia eta kointzidentzia nabarmenik. Lehendabiziko hiru galderak «se podrá» edo «se podría» egina da Gipuzkoan, eta «se puede», aldiz, Nafarroan; 4.a «se podría conseguir» Gipuzkoan, «consiguen» Urdiain, Etxarri, Uharte eta Arribasen, eta «se puede» gainerako Nafarroan... horrela argi ikusten da zein herri zein herrirekin dagoen landua, esanikoaz gain ikusten da, esate baterako, Uriz, Lizaso, Garralda eta Eaurtako datuak inkesta berdinarekin jasoak direla, Bidankozekoak, berriz, Bera eta Elizondokoak biltzeko erabilitakoarekin berberakin. Gipuzkoa osoa modu antzeratsuz bildua dago eta honek pentsarazten digu Bonaparteren laguntzailerik hobereana, eta gero koinatua izango zen Klaudio Otaegiren eskua hortxe dagoela. Nafarroan esku diferenteak nabari dira, inkesta gisa edo momentu diferenteak alegia. Bestetik, Bonapartek oso era berezia zuen inkestak egiteko: Lardizabal eta orduko tratadisten obrak abiaburu hartuta idatzitakoak aztertu eta inkestetan baieztatu edo ezeztatzen saiatzen zen printzea; teoriei jarraituz postulataturiko posibilitate guztiak idatzi eta gero tatxatu egiten zituen herriak, inkestaren bidez, okerrak zirela erakusten zizkionak. herri bateko inkesta egiteko ondoko herriko inkestaz baliatu eta aldakiak sartu, erantzunak zuzenean egin beharrean idatzi egiten zituen alde aurretik, herriak gaitzestekotan tatxatu egiten zituen, hau honela erderazko *beneficio* hitzaren kalkoa den onegin hitza ematen digu Gipuzkoa osorako, herriak antza ez duela erabili, bai, ordea, Larramendiri ikasi ziotenek. *Gauza* hitza eman beharrean *izate* hitz larramendianoa ematen digu, baina hau tatxatua dago.

Galdetegiaren gaia aditza da, potentzial inpersonalak zehatzago esanik, nahiz eta erantzunetan forma personalak agertu, Printzeak, parentesi artean

«*transiti*» hitza idatziz, espreski oharterazten duen abagunea. Zer bilatzen zuen, ordea, Bonaparte? Ez dago garbi, eta posibilitate diferenteak nabari dira.

«*Da.GI.ke/de.ZA.ke/di.RO.ke* isoglosa baztertu egin behar da, batetik inkestako eremu dialektal zabalagoa behar zelako horretarako eta, forma pertsonaletan isladatzen direlako hauek, eta inkesta forma inpersonalez ari da, nahiz eta forma transitibo pertsonalak ere agertu: -EZA- errodunak Azpeitia, Hernani, Tolosa, Lizaso, Uriz eta Garraldan; -EGI-dunak, Berriz, Gatzaga, Bergara, Ordizia eta Zegama, Bizkaian dirauten eta Ordiziako bertako euskaran idatzi Otxoa de Arinen do trina eta hegoaldeko gipuzkera zahar eta berriko beste testigantzetako euskararekin bat datorrena. Garraldan, Uriz eta Uhartan DAIKE, DEIKE flexioa ageri zaigu, baina berau DAITEKE forma osoaren disimilazio silabikoa, Uhlenbecken hitza erabiltzearen, duten formak, Garralda eta Urizko adibideetan, inguramenduak eraginiko bapateko TEi -Te sekuentzia bait daukagu (EZP AITEITEKE). Bonapartek publikatu zuen «Études sur les trois Dialectes Basques des Vallées d' Aezcoa, de Salazar et de Rocal» lanean DEIKE ematen du aezkeraz eta saraitzieraz, baina segituan LEITEKE eta LEIKE, aezkera eta saraitzierarako, orden horretan.

—Parentesi arten «transitif» seinaleaz galderetan forma personala eskatu dela adierazi nahi duela dirudi, ez erantzun horiek suertatu direla. Bestela, erantzunen azterketatik a posteriori ateratako oharpena dela pentsa daiteke, eta horrela balitz, zenbait irakurketa dudazko suerta zekizkiokeen Printzeari, Bergarako *leike* aditza, adibidez, irakurketa posible bi onartzen duena bait da, Markinako Frai Bartolomeren usadioan bezala. Bazuen erakutsia bere interesa printzeak *izan* aditzaren erregimen diatetiko bikoitzaz, eta **edin* hipotetikoa gezurtatzeak zekarren inplikazioaz, hots, DAITEKE saileko flexioak, besteak beste, *izan* aditzerenak lirakeela, eta inkesta honetan Zegama eta Ordiziarako agertu datuek zenbait argi eman zezaketen: «artu LITZEKE», «artu LITTEKE»ren ordez. Bonaparteren aginduz Otaegik eginiko «El verbo cegamés» lanean DITEKE, LITEKE dira potentzial iragangaitzerako aurkeztu formak. Pentsatu beharko litzateke, bestenaz, LITEKE formaren asibilazio atipiko batetan, beharbada Bizkaiko kostaldean, Elantxoben, parekorik *izan* dezakeen forma baten ageri dena: DOTZUZ 'ditu', DOITTUS espero genezakeenean, edo Orozkon, SATTUU (< zaitugu) espero eta JATZU agertzen zaigula. *Izan* ere bizkaierazko bi adibide hauetan ere diatesi kontuak ere nahasian daude.

Inkestako erderaz diren galderek, eta inkestaz gaineko beste orrietako zenbait orri soltek pentsaraz zezaketen potentzialaren barruko denbora eta beharbada aspektu kontuaz: se puede/se podrá, ...

—Beste aztergai posible bat, halaber potentzialari lotua agertzen zaiguna, eta hau ere Bonaparteren interesekoa eta eskuizkribu honetako hasierako orrietako oharretan zeharka baina insistentziaz espreski agertua, erradikalarena da.

Ez dirudi, aitzitik, inkestak ematen dituen erantzunen arauera, puntu horretan ardura handirik ezarri denik galderak egitean. Hona hemen inkestarik jalki daitezkeenak:

AR:	Bidankoze, Eaurta, Elizondo, Garralda eta Uriz.
KONFESA:	Bidankoze
ALKANZA:	Bidankoze
ALCANTZA:	Azpeitia
KONSEGI:	Bera, Eaurta, Elisondo, Uriz
SALBA:	Arribas, Bidankoze, Eaurta, Etxarri, Garralda, Hernani, Ordizia, Tolosa, Urdiain

Bidankoze eta Eaurtan potentziazko flexio guztiekin da erabilia, Uriz eta Garraldan ez beti, eta gainerakoetan nahiko arbitrarioki agertzen den forma da erradikala.

Ez da askoz gehiago inkesta asmoari darionik. Bonapartek euskalkien hirugarren sailkapenerako fonetika puntuak hartu zituen erizpide, eta inkestatxo honetan, nahiz eta espreski horrelakorik ez erabili, ez dira gutxi datuetan kausi daitezkeen detaile garrantzitsuak. Printzea hagitz detalista zen, baita ñabardura fonetikoetarako ere, Mitxelenak Bonapartek presatatu gorago aipatu hiru euskalki nafar ekialdekoetako hiztegitxoa argitaratu zuenean, Printzearen palatalizazioa erregistratzeko, Azkuerena ez bezalako kontu eta arreta berezia nabarmentzen du. Hemen, berriz, dudak ditugu Hernanin (*eziñ* salba —*ezin* badezake), Azpeitian (*eziñ* diteke —*ezin* konfesatu), Bergara eta Gatzagan (*ezin* salbau —*eziñ* baditeke) *ezin/eziñ* bikoitek ematen dizkigunean, horrela entzun eta oinarri fonetiko edo fonologikorik duten ñabardurak diren, edo idazteko despiteak.

Beste kontu fonotaktiko batzuk hauexek dira, esan/erran isoglosa:

ERRAN:	Bidankoze, Eaurta, Elizondo, Garralda, Lizaso, Uriz, Bera
ESAN:	Arribas, Azpeitia, Bergara, Etxarri, Gatzaga, Hernani, Irun, Ordizia, Tolosa, Uharte, Urdiain, Zegama

Sudurkariaren aurreko afrikazioa, non ekialdea garbiki bereizten zai-
gun, Azpetiako salbuespena *onza* hitza erderatiko mailegua izan eta erde-
razko ahoskatze moldea kutsatu diolako esplikoa liteke akaso, hortxe dago
Bidankozeko *alkanza* formaren ondoan *alkantza* azpeitiarra.

ONZA:	Azpeitia, Bidankoze, Eaurta, Eaurta, Garralda, Uriz
ONTZA:	Arribas, Bera, Bergara, Elizondo, Etxarri, Gatzaga, Hernani, Irun, Lizaso, Ordizia, Tolosa, Uharte, Urdiain, Zegama

Hona hemen beste iso glosa interesgarri baterako materiala:

E-A:	=E-A:	Garralda, Uriz (admirable-a)
I-E:	= I-E:	Elizondo (admiragarri-en)
E-A:	> I-A:	Etxarri, Urdian (admirable-ago)
E-A:	> I-A:>IE:	Uharte (admirable-a-go)
E-E:	>E:	Eaurta (admirable-en)
I-A:	> I:	Arribas, Ordizia, Zegama (admiragarri-ago, arrigarri-en)
I-E:	> I-xE:	Bergara
I-E:	> I-yE:	Irun, Azpeitia, Hernani, Bera, Gatzaga (miragarri-en, arrigarri-en, admiragarri-en)
I-a:	> I-yA:	Tolosa (miragarri-ago)

Lexiko arloan gauza interesekorik ez, hona hemen, oinarri dialektalik akaso ez duten esparru lexiko berezitan, aztertzeakoak beti ere, biltzen diren hitz multzo bat:

IRICHI:	Hernani
ERDECHI:	Lizaso
ERDIETSI:	Garralda
ERDEISTEN:	Arribas, Etxarri
IRUSTEN:	Urdiain
ALKAN(t)ZA(TU):	Bidankoze, Bergara, Gatzaga, Azpeitia
KONSEGI(TU):	Bera, Eaurta, Elizondo, Uriz, Irun, Tolosa, Zegama, Uharte
LOGRATU:	Ordizia
MESEDE:	Arribas, Azpeitia, Bergara, Etxarri, Uharte, Urdiain, Gatzaga
MERCHEDE:	Lizaso
BENEFIZIO:	Bidankoze, Eaurta, Garralda, Uriz
FABORE:	Elizondo, Bera
GAUZ'ON:	Hernani
ONEGIN:	Irun, Ordizia, Zegama, Tolosa
ADMIRABLE:	Bidankoze, Eaurta, Etxarri, Urdian, Garralda, Uriz, Uharte
ADMIRAGARRI:	Arribas, Bera, Elizondo
MIRAGARRI:	Bergara, Irun, Gatzaga, Tolosa
ARRIGARRI:	Azpeitia, Hernani, Ordizia, Zegama



SARRIONANDIAREN OLERKIA AZTERGAI

JOSEBA SANTXO

1. SARRERA

LABUR-LABUR AGERTUKO DITUT SARRERATXO
*bonetan lanaren nondik-norakoak. Joseba Sarrionandiaren Marinel Zahar-
rrak deituriko poema bildumatik «Zutik bizi da gizasemea» izenekoa auke-
ratu dut aztertze-lan bonetarako.*

Lau ataletan banatu dut olerkiaren azterketa semiotikoa:

- Arlo morfosintaktikoa
- Arlo semantikoa
- Arlo pragmatikoa
- Ondorioak

Azkenik esatea —esan beharrik ez dagoen arren— poeman bertan zentratu dudala azterketaren helburua, autorea eta bere obra osoa, bidena-
bar baino aipatu ez ditudalarik. Hona hemen bada, lan honen aztergai den
Joseba Sarrionandiaren poema:

ZUTIK BIZI DA GIZASEMEA

Baina etzan egiten da
Ametserako, amodiorako.
Etzanik sortu zen, haurra,
Ametsa eta amodioa
Egin zen bezala.
Etzanik hilgo da, unatua,
Ametsa eta amodioa
Egingo den bezala.
Ametsaren, amodioaren
Ber ohantzean etzan
Eta hilgo da, begiak ametserako
Amodiorako bezala hertsirik.

2. ARLO MORFOSINTAKTIKOA

Lehenengo begiratu batean, aztergai dudan Sarrionandiaren olerki hau, labur samarra dela esan daiteke: izenburua sarturik —idazleak olerkiaren barruan sartzen baitu— hamahiru lerrokoa hain zuzen ere.

Izenburua, beraz, testuaren barnean dago; autoreak, poesia honetan, ez du —beste eskotan legez— izenburua errepikatu nahi izan; eta pentsatzen jarrita ze funtzio bete dezakeen poesiaren izenburua lehenengo lerrotzat jartze horrek, bi ideia datozkit burura. Baliteke izenburu horrek, poesia osoaren gaia esplikatzeko balio ez izatea (askotan poesiaren izenburua lan osoaren islada izan ohi da) edo bestela, baliteke errepikazio horrek sorlezakeen efektu kakofonikoa (irakurlearen baitan alegia) probokatu nahi ez izatea. Errepikazio honi ekidinez, irakurlea arinago eta leunago sartzen da poesiaren barnera.

Nolanahi ere den, eta morfo-joskeraren ikuspegitik begiratuta, begibistakoa da izenburua eta gorputzaren artean lotura garbi bat azaltzen dena («baina» lokarriaren bidez hain zuzen ere):

«ZUTIK BIZI DA GIZASEMEA
Baina etzan egiten da...»

Horretaz gainera, halako antagonismo bat sumatzen da, ez bakarrik lehenengo bi lerroen artean baizik eta izenburua eta beste guztiaren artean ere; alde batetik izenburuko «zutik» egotearen erreferentzia berriro agertzen ez delako, eta bestetik, beste gainontzeko guztia «etzan» aditzaren inguruan

garatzen baita. Beraz, baliteke zerbait egotea «zutik/etzan» binomio horren atzean. Baina zeren funtziotan ote dago oposizio hori?

Barka bekit une batez arlo semantikoan sartzea galderari erantzuteko. Nire ustean, bloke bi bereiz daitezke olerki honetan: izenburutzat jartzen duena (lehenengo lerroa alegia) eta enparadua, biak «baina» juntagailuaren bidez lotuta daudelarik. Beraz izenburua eta enparadua pisu desberdineko bloke diferente bi direla esango nuke.

Poesiaren egiturari, bigarren blokeak (semantikoki) lehenengoak baino pisu handiagoa duena ageri dago; baina bloke biak independientek direlako eritzi hori sustartzeko, buelta emango diot autoreak jarritako egiturari eta izenburutzat daukana atzean jarriko. Orain berriz, balantzak beste aldera egiten du eta izenburuak gorputzak baino pisu handiagoa hartu ere («pisu» diodanean arlo semantikoari nagokio gehienbat baina egitura morfosintaktikoaren erreferentzian). Ordena aldatu egin da baina bloke bakoitzak lehen zeukan beste autonomia dauka era honetara. Guzti honegatik pentsa liteke izenburua —poesiaren buru delarik— abiapuntua dela, binomio baten lehenengo terminoa, ondoren esango denaren erreferentzia, eta ez daukala, ez gorputzak adina pisu semantiko, ez eta poesiaren globaltasuna sinplifikatzen eta sintetizatzen duten titulu horietako baten funtzioa ere.

Izenburuaren auzia planteatu edo egin ondoren, noan bada poesiaren gorputza aztertzerako morfosintaxiaren ikuspegitik. Bistan dago poesia honek ez duena ez errima zehatzik, ez eta metrika arauturik ere.

Egituraren deskripzio xume batekin hasiko dut azalpena: poesia, puntu banarekin amaitzen diren lau bloketan (esalditan) zatiturik dago.

Lehenengoa hiru lerrokoa dugu (izenburua barne), bigarrena ere bai, hirugarrena berdin eta laugarrena, berriz, laukoa. Guztira hamahiru lerro.

- Lehenengo zatian, hiru lerroak enkabalgaturik agertzen dira esakuna adbersatibo bat osatuz «baina» juntagailuaren bidez.
- Bigarren zatia esakune konparatibo batek osatzen du, hiru lerro enkabalgatutan. Konparazioa, «bezala» partikularen bidez dago adierazirik.
- Hirugarrenean ere konparazio bat azaltzen da, aurrekoan legez «bezala» hitza erabiliz.
- Eta azken zatian, konparazioa ere agertzen zaigu, oraingoan lau lerro enkabalgatutan banaturik, hemen ere, «bezala» lokarri dela.

Esanak esan, noan puntuok banan-banan aztertzerako:

1. Esan bezala, lehenengo zati horretan —argi gera bedi zatiketa modu hau grafiari dagokiona— esaldi adbersatibo bat agertzen zaigu, «baina» hitza lokarritzat duela:

«ZUTIK BIZI DA GIZASEMEA
Baina etzan egiten da
Ametserako, amodiorako.»

Esaldi berori hiru lerrotan zabaltzen da enkabalgaturik. Lehenengo lerroan gizasemea zelan bizi den azaltzen da, «zutik» alegia:

«ZUTIK BIZI DA GIZASEMEA»

Bigarren lerroan eta «zutik» jarrera horren kontraposizioan edo, «etzan» egiten dela dio:

«Baina etzan egiten da»

Eta hirugarrenean etzatearen zertarakoa zehazten du:

«Ametserako, amodiorako»

Berba bien artean koma bat jarri du autoreak (asindetona) pausa txiki bat; poesian zehar holako zazpi azalduko dira. Ametsa eta amodioaren erreferentziak agertzen direneko lerroetan, autoreak honelaxe jotatzen du «,» eta juntagailuekin:

3. «Ametserako, amodiorako»
5. «Ametsa eta amodioa»
8. «Ametsa eta amodioa»
10. Ametsaren, amodioaren»

Horra bada oreka erritmiko baten oinarria. Lehenengo eta azkenean —deklinaturikoetan— koma dager eta erdiko bietan ostera «eta» lo-karria.

Lehenengo lerroa bueltatuz atzera berriz, «zutik» da lehen esaldi hortan, aditzaren aurreko toki-a betetzen duen elementua (galdegaia) beste elementuek baino indar handiagoa hartuz. Bigarrenean ostera, «etzan» aditza bera bihurtzen du esaldiaren galdegai, horretarako «egin» aditzaz baliatzen delarik: «Baina etzan *egiten* da»

Beraz, hemen, «etzan» dugu elementu nagusia. Hirugarrenean berriz, «ametsarako, amodiorako» ez da aditzik agertzen, baizik eta etzatearen helburua. Autoreak, arestian esan bezala, koma batez banandu ditu guztiz ezberdinak diren errealitate bi: «ametsa» eta «amodioa» baina amankomun duten gorputz-jarreraren erreferentzian.

Lehen zati honetan, bestalde, hiru izen agertzen dira. Bata, kasu nominatiboan (mugatu singularrean): «gizasemea» poesia osoan subjetuaren funtzioa beteko duena, eta beste biak kasu destinatiboan: «ametserako, amodiorako» poesian zehar deklinazio-atzizki desberdinak hartuko dituztenak.

Ez dago adjetiborik zati honetan, eta gero ikusiko denez bakanen bat baino ez da agertuko olerki osoan. Adjetiborik eduki-ez horrek, poesiari arintasun eta argitasuna ematen dizkiotelakoan nago. Gizasemea, subjetu denez, aditza hirugarren pertsonan dago eta baita orainaldian ere: «bizi da», «etzan egiten da» eta horrela izango da poesia guztian. Honek urruntasun eta abstraktotasuna emango dizkio olerkiari.

Lehenengo zati hau labur-bilduz, «baina» lokarriaren garrantzia azpimarratuko nuke, arlo sintaktikoaren giltza gisa; elementu ornagarririk eza (adjetiborik ez) aditza hirugarren pertsonan agertzea (kontaketa deskriptiboaren ezaugarria) azpimarratzeko puntuak ere izan daitezke.

2. Baina euts diezaiodan bigarren zatiari. Bigarren zatia, esaldi konparatibo batez osatua dago. Hiru lerrotan enkabalgaturik:

«Etzanik sortu zen, haurra,
Ametsa eta amodioa
Egin zen bezala»

Lehen lerroan, gizasemea nola sortu zen adierazten da:

«Etzanik sortu zen, haurra»

Bigarrenengan elementu bi aipatzen ditu berriz, aurreko zatian agertu ziren ordenean:

«Ametsa eta amodioa»

Hirugarrenean konparazioa burutu egiten da:

«Egin zen bezala»

Bigarren bloke honen ardatza KONPARAZIOA litzateke, *bezala* berbaren bidez azpimarratuta dagoelarik. Beraz hauxe litzateke zati honen eskema:

NOLA sortu? — ETZANIK — AMETSA, AMODIOA (BEZALA)

Lehen zatian amets eta amodioaren aipamena —izenburua lehenengo lerrotzat hartuz— hirugarren lerroan agertu bada, bigarren bloke honetan

erdiko lekua hartu du eta izen biak «eta» juntagailuaren bidez lotuta daude. Erreparatzekoa da hemen, termino hau eta hurrengo blokeko «unatua» terminoaren arteko lotura, izan ere, bakoitza bere zatiko leku berebanean agertzen da-ta, era berebanean (koma artean alegia).

Aditzari nagokiola, hirugarren pertsona agertzen da —lehenengo moduan— baina oraingoan lehenaldian: «sortu zen», «egin zen».

Autoreak atzera egiten du denboran zehar eta horretarako aditza lehenaldira bihurtu.

3. Hirugarren zatiak bigarrenaren egitura bera dauka:

Etzanik hilgo da, unatua,
Ametza eta amodioa
Egingo den bezala»

Aditza, zati honetan, geroaldian agertzen da «hilgo da», «evingo den» eta aurreko zatian bezalaxe, aipatutako komunztadura berezia agertzen da ere.

4. Laugarren eta azken blokea luzeena dugu, lau lerrokoa hain zuzen ere:

«Ametsaren, amodioaren
Ber ohantzean etzan
Eta hilgo da, begiak ametserako
Amodiorako bezala hertsirik.»

«Eta» kopularen bidez lotutako bi esaldi koordinatuz osaturik dago. Besteetan legez, zangalatrabua agertzen da. Hemen, lehen zatian bezala, lehen termino biak koma batez banandurik daude: «ametsaren, amodioaren»; bigarren lerroan badago zeresanik eufoniaren aldetik; autoreak efektu polit bat lortzen du elementu bi elkarren ondoan jarritz: «*ohantzean etzan*»; aipatzekoa da ere «ber» aurrizkiaren erabilera, ezen aurrizki berori erabili beharrean, «berean» hitza «ohatze»ren ostean erabil bait zezakeen, baina horrela ez zukeen joku eufoniko hori lortuko. Eufoniaren aldetik, bada bokalismoan aipatu beharreko beste puntu bat, baina poesia osoari dagokionez ondoren komentatuko dut.

Hirugarren lerroan, koma batez banandutako zati bi agertzen dira:

Eta hilgo da, begiak ametserako»

Hemen autoreak, neurriarekin jolasten du; esaldiaren esangura —une batez— airean uzten du:

«Eta hilgo da, begiak ametserako...»

Esaldi osoari aizkorakada bat eman dio «ametserako» eta «amodiorako» elementuak banatuz, eta pausa horretan irudimenaren balizko interpretazioetarako ateak irekiz. Gainera hauxe da bi elementuok banatzen dituen aldi bakarra (esan nahi baita lerro ezberdinetan); eta azken lerroarekin ixten du, lehen airean gelditu den esaldia/esanahia:

«Amodiorako bezala hertsirik.»

Hemen ere, aurreko zatietan bezala, konparazioa agertuko da «bezala» berbaren bidez. Elementu berri bat ere agertzen da: «begiek», «hertsirik» izenondoari lotuta dagerrena.

Aditza oraingoan ere, geroaldian, aurreko zatian legez; lehengo aditzaren jokaeran, elipsi bat egiten du:

«Ber ohantzean etzan...
Eta hilgo da...»

Honek baduke erritmoarekin zerikusirik baina azter dezadan bada, erritmoaren aspektua poesia osoari begira.

Ageri dago poesiak ez duena ez neurri zehatzik, ez eta errima arauturik ere; baina poesia hau irakurtzeaz batera, kolpetik igartzen da erritmo bat eta erritmo-unitateen arteko oreka bat badaudena. Esaldi guztiak enkabalgaturik agertzen dira baina ez nolana enkabalgaturik. Ebakiek berebiziko garrantzia dute erritmoari begira. Lehenengo lerroa, izenburutzat dakarrena, baieztapen bat da (autonomia morfosintaxiaren ikuspegitik):

«ZUTIK BIZI DA GIZASEMEA»

Bigarrena, aldiz, aurrenari kontrajartzen zaio (autonomia bera duelarik):

«Baina etzan egiten da»

Hirugarrenak etzatearen zertarakoa azaltzen du, aldiberean esaldia-
ren zentzua ixten duela (aurrekoaren funtzioan dago):

«Ametserako, amodiorako»

Hiru kolpetan, hiru efektu desberdin. Dударik ez dago neurri-ebakiek senez eginda daudena eta errimaturik egon ez arren, «erritmoturik» (zelanbait esatearren) badagoena. Ebakiak, leku estrategikotan eginik

daude (baita lerro barruko etenek ere), batera esanahiari eutsi eta zalantza-garritasuna sortzeko.

Bestalde, «ametsa» eta «amodioa» binomioa bloke guztietan agertzen da, bihurki antzean, baina leku desberdinetan: lehenengo blokean amaieran, hurrengo bietan erdian, eta azkenekoan aurrean eta amaieran. Honek ere laguntzen dio —erritmoaren aldetik— poesiaren garapenari.

Badirudi binomio beronen ordena-aldaketak azken zatian amaiera iragartzen duela, azkenerainoko posizio-armonia apurtzen baitu:

«Ametsaren, amodioaren
Ber ohatzean etzan
Eta hilgo da, begiak ametserako
Amodiorako bezala hertsirik»

Beraz, esan daiteke unitate erritmikoak guztiz neurtuta daudela (ez neurri klasikoaren zentzuan) eta horretara, garrantzi haundiagoa hartzen dute aipatu ditugun baliabideek: pausek (komak eta) zangalatrabuen ebakiek, elementuen ordenak, elementuen posizioak besteekiko etab.

Musikalitatearen aldetik (erritmoaren osagarri moduan) badago olerki osoan zehar eufoni-fenomeno baten presentzia: «e» eta «a» letrak (bokaleak) etengabe errepikatzen dira musikalitate bat sortuz. «Ametsa», «etzan», «bezala». Datu zehatzetara jo ezkerre, hauxe da bokaleen kopurua olerki osoan: $A-46/E = 30/I = 10/O = 18/U = 5$. Argi dago hortez, A eta E bokaleen nagusitza, baina ez bakarrik kantidadean baizik eta bokale-armonian ere: «Etzan egiten da» (e-a-e-i-e-a) Badirudi bokaleok etzatera konbidatzen gaituztela.

Efektu hau nabariagoa da kontsonanteak jokoan sartzen direlarik: «Ohantzean etzan» (o-a-e-a-e-a) (tz) (tz)

Berba-joko honetan «tz» fonema afrikatuaren bidez, «etzate» aren malgutasun eta leuntasuna egokiro ematen dira aditzera. Aipatzekoa da ere, «m»aren paralelismo fonikoa poesiaren ardatza den «ametsa», «amodioa» binomioan, halaber ere «m» sudurkari ozenak berboi damotsen biguntasun efektua.

Kontsonateen ildoari jarraituz, bada tituluko ZUTIK eta geroko ETZAN berben artean halako antagonismo fonetiko bat ere. ZUTIK berbaren «t» eta «k» leherkari gorren gogortasuna, ETZAN berbaren «tz» afrikatuaren leuntasunaren aurka.

Lar pretenziosoa litzateke, hori autoreak beren beregi egin duela esatea baina nolana ere, egon hor dago eta efektu hori, berez zein eraginik, sortu egiten da.

Arlo morfosintaktiko honen konklusio gisa, esan nahi nuke, edonondik begiratuta ere, olerki hau aberatsa dugula erritmo-baliabideetan eta ar-

monia haundikoa musikalitatearen aldetik, baina guzti hori egitura morfosintaktiko ximple baten barruan. Konparazioa dugu bestalde, egitura horren ardatza: ametsa-amodioa-jaiotza-heriotza-zutik-etzan, etab.

Estilo ximple eta zuzena adierazleen aldetik eta kasu honetan filosofiko eta sakona adierazian; alde biak poetikotasunezko laino baten elkarturik.

3. ARLO SEMANTIKOA

Arlo honen atarian, arlo morfosintaktikoan jorratu dudan puntu batean sakondu nahi nuke: olerkiaren bi blokeena hain zuzen ere. Lehen hurbiltze batek, olerkia bi bloketan banatzera eramán nau; lehenengo lerroa edo izenburua eta gainontzekoa. Banaketa hau hiru ikuspegi desberdinetatik egin daiteke:

1. Grafiaren aldetik: izenburua maiuskulaz idatzirik bait dago.
2. Morfosintaxiaren aldetik: bloke bien arteko lotura sintaktikoari kasu eginez. Koordinazio adbersatiboa alegia.
3. Semantikaren aldetik: olerkiaren gorputzean hiru esaldi desberdin daude, baina horietako edozeinek bete zezakeen —adieraziari begira— bigarren proposizioaren lekua. Ad:

«ZUTIK BIZI DA GIZASEMEA

Baina etzan egiten da...

(baina) Etzanik sortu zen...

(baina) Ber ohantzean etzan

Eta hilgo da...»

Zeren azken batez, ZUTIK-ETZANIK dikotomia baita —semantikaren ikuspegitik— bloke bien arteko diferentziaren funtsa.

Guztiarekin ere eta orain arte planteatutakoa aurrerapauso handia izan bada ere, ezin gera naiteke banaketa simple horren azalean olerki osoaren egitura semantikoa esplikatzeko. Noan bada puntuz puntu:


1. Lehen plano baten, autoreak tituluarekin iruzur egiten digula esango nuke. «Zutik» aurkezten digu «gizasemea» baina bakar-bakarrrik erreferentzia gisa «etzate»aren garrantzia azpimarratzeko. Beraz semantikoki, izenburua erreferentzia bat besterik ez dela esango nuke, arlo morfosintaktikoan seinlatu dudanez.
2. Bigarren planoan «ametsa-amodioa» binomioa zaigu agertzen, poema osoan zehar behin eta berriz agertuko dena. Binomio honek ere, berebiziko garrantzia dauka egitura semantikoan.

3. Eta hirugarren planoan eta zeharka, trinomio bat azalduko da: «sortubizi-hil». Lehenengo zatian-izenburutik hasita-gizasemea bizirik aurkezten zaigu. Bigarreanean sorrera edo jaiotzaren erreferentzia dugu. Hirugarreanean, oster, heriotzarena. Laugarreanean ere heriotza da —aurreko zatian legez— eta horrek oharteraz gaitzake heriotzak olerki honetan duen garrantziaz.

Hiru planook nahasirik agertzen dira testuan. Planoen hierarkia ez dut eraiki heuren inportantziari begira baizik eta goitik beherako irakurkera normalean azaltzen diren hurrenkeran.

Badakit, jakin ere, zer abstraktoak irudikatzeko eskema grafikoetara jotzea txit arriskutsua dena, baina zilegi bekit oraingoan eskematxo bat egitea, plano hauek eta heuren arteko erlazioa errezago eta hobeto azaltzarren.

Koordenada biko eskema bat egin dut. Goitik beherako ardatzean gizasemearen egokerak edo jarrerak irudikatu ditut: zutik/etzanik. Eta bestean, gizasemearen bizitze-prozesua denboraren arabera: sortu (lehen), bizi (orain), hil (gero):



Izenburua abiapuntutzat harturik, zera diosku autoreak:

«ZUTIK BIZI DA GIZASEMEA»

Holako ikur batez irudikatu dut poesiaren hasiera (zutik eta bizirik) puntuen artean beraz.

Eta jarraitzen du:

«Baina etzan egiten da.»

«Baina» lokarriaren bidez, «etzanik» deitu dudan jarrerara aldatzen da, baina denbora aldaketarik gabe, orainaldian alegia. Ondoren zera dio:

«Ametserako, amodiorako.»

Denboraren ardatzetik harago doa etzatearen helburua zehazteko. Aurrera doa:

«Etzanik sortu zen, haurra.»

Orain atzera egiten du denboran, lehenaldira desplazatzen da baina jarrera aldatu barik: «etzanik». Eta segitzen du:

«Ametsa eta amodioa
Egin zen bezala.»

Berriro ere agertzen da ametsa-amodioa binomioa baina oraingoan ametsa eta amodioa ez dira etzatearen zertarakoak. Autoreak ez dio giza-semea ametserako eta amodiorako sortu zenik. Bakar-bakarrik konparazio bat egiten du, terminoen artean paralelismo bat bait dago: sortu, amets eta amodioa, etzanik egiten dira (orohar).

Eta segitzen du:

«Ametsaren, amodioaren
Ber ohatzean etzan
Eta hilgo da, begiak ametserako
Amodiorako bezala hertsirik.»

Zati hau erreza da kokatzen egin dudan grafikoan: egokera-etzanik; denbora-geroaldia, baina termino berriak agertzen direnez gero, ihes egiten dio —neurri batean behintzat— eskemari berari. Hemen «ohatzea» agertzen da eta «begi hertsien» erreferentzia ere. Ohantze hori berak dioenez, ametsarena da, amodioarena da eta heriotzarena ere izango da. Lehengo paralelismoa (sortu eta hil/ ametsa-amodioarekin) urrunak edo apur bat abstraktoak izan badira, hemen elkartu egiten ditu heriotza, ametsa eta amodioa gauza fisiko bezain konkretu batean: ohantzean. Aurreko eskematik alden du zaidan azken zati honen trama semantikoa, honelaxe irudikatuko

nuke lehengo grafikoaren osagarri gisa: Elkarren pare jartzen ditu heriotza, ametsa eta amodioa eta gainera hirurek amankomun duten gorputz jarrera aipatzen du: «begiak hertsirik» hain zuzen ere. Heriotzaren aipamena bestalde, aurreko zatian ere agertzen da, eta hortaz badirudi hiltzeari garrantzi handia eman nahi diola. Poesiaren azken berbak, agian pistaren bat eman



diezaguke, autoreak bidaltzen digun azken elementua baita: «hertsirik». Ematen du «hertsirik» horrekin, begiak ezezik, gizasemearen bizitzaren zikloa ere hersten dela. Olerkiaren azken berba delarik, badirudi autoreak ilunpetan murgildu nahi gaituela gogoetarako bide emanez.

Lehengo hariari jarraituz, egituraren elementu guztiak banan-banan aztertzea abiatuko naiz.

«Zutik» berbaren esanahia «etzanik» egotearen kontraposizioan ulertu behar dela uste dut. Baliteke bigarren zentzu bat edukitzea: zutik-harro / etzanik-umil, baina ez dut uste, poesia orokorki ikusita.

«Bizi da» hemen ere —eta lehen esan dudan moduan— «sortu» eta «hil» terminoen erreferentzian ulertu behar da.

Argi dago bestalde, poesia honetako «gizaseme» berbak gizaki guztiei egiten diela erreferentzia, nahiz eta autoreak «gizalaba» erabil ze-zakeen.

«Etzan» berba bi bider agertzen da. Lehenengoan «zutik» egotearen kontraposizioan eta bigarrean baita, baina kutsu fisikoago batekin «ohantzea» aipatzen baita.

«Etzanik» bi aldiz agertzen da eta «etzan» horren kasuan esandakoak, honi ere aplika dakizkioke.

Berdin berdin «sortu» hitzaren kasuan «hil» hitzarekiko.

«Haurra» berbak, gizasemearen sortze-sasoari egiten dio erreferentzia eta «unatua» hitzaren kontraposizioan ulertu behar dela uste dut:


«Etzanik sortu zen, haurra»

«Etzanik hilgo da, unatua.»


«ametsa» berba, binomio baten osagaietako bat da «amodioa» bigarrena delarik. «Amodioaren esanahia —olerkion— «amodioa egin» aditz perifrastikoarena dela esango nuke.

«Ohantzeak, etzalekuaren esanahiaz gain, hemen, amesleku, maitaleku eta hilobiarena ere hartzen ditu.

«Begiak» bestalde, hemen, ametsari, amodioari eta heriotzari bide ematen dien atea izan litezke, (1. irud.) edo dimentsio biren arteko muga. (2. irud.)



1. irud.



2.irud.

«Hertsirik», begien erreferentzian, amets-, amodio- eta heriotz-egoe-
rek duten amankomun faktorea dugu.

Poesiaren esanahia bi ikuspegitatik aztertu ondoren (elementu solteen esanahia eta kontestuarena) sinbolismoaren aspektuan sakondu nahi nuke, aurreko azterketan idorotako lorratzei zentzua ematearren poemaren orokortasunean.

ZUTIK-ETZANIK binomioaren ostean, hiru kontzeptu agertzen zaizkigu: ametsa, amodioa eta heriotza. Poesian zehar behin eta berriz errepikatzen dira baina —lehen azaldu dudanez— beti ez dira esanahi berarekin azaltzen. Zer dago amets, amodio eta heriotza horien atzean?

Hasteko esango dut «heriotza» berba ez dela behinere agertzen testu osoan; bai, oster, «hil» aditza. Gainera, aurkezten zaigun heriotza hori ez da edozelangoa. Heriotza moeta asko dago baina autoreak dakarkiguna heriotza leuna da, ez da bortitza, ez da bapatekoa:

«Ber ohantzean etzan...»
«Eta hilgo da, begiak... hertsirik.»

Ez da supituki «brast» hiltzen denaren heriotza. Prozesu luze baten azken puntutzat jartzen digu heriotza:

«Etzanik hilgo da, unatua.»

Bestalde, eta beste termino biak «ametsa-amodioa» maila beretsuan jartzen dituenetz:

«Eta hilgo da, begiak ametserako
Amodiorako bezala hertsirik.»

Ematen du —heriotzaren kasuan legez— amets eta amodio motel, indarge, bizigabeko bati buruz hitz egiten digula. Ez dizkigu aurkezten amets eta amodioaren alde sutsu, grinatsu, bizi, eta zuzpergarria baizik eta alde «rutinarioa». Amets eta amodio horietan «automatismo» kutsu bat igartzten da:

«Etzanik sortu zen, haurra,
Ametsa eta amodioa
Egin zen bezala.
Etzanik hilgo da, unatua,
Ametsa eta amodioa
Egin zen bezala.»

Egin, egiten eta egingo den zerbait bezala deskribatzen dizkigu. Ametsa eta amodioa bizitzaren potentzialitate bezala tratatu beharrean, gure patu edo halabeharraren gertaera hutsak bailiran planteatzen dizkigu, eta heriotza bera bezalaxe, nahitanahiez gertatu behar diren amets eta amodioari buruz ari delako inpresinoa ematen du.

4. ARLO PRAGMATIKOA

Nori zuzentzen zaio autorea poesia honetan? Zer ikus dezake irakurleak Sarrionaindiaren poeman? Zenbateraino sartu nahi du idazleak irakurlearen baitan? Zelan eragin nahi dio?

Galdera hauen erantzunak izan daitezke arlo pragmatiko honen mui-nera eraman gaitzaketenak, beraz erantzuten ahaleginduko naiz.

Hizkuntza simple eta zuzena darabil autoreak, edonork ulertzeko modukoa. Jorrazten duen gaia ere, edonork ezagut, bizi edota uler dezakeena dugu, beraz irakurlego zabal bati egoki dakioko.

Semantika mailan oster, errealtate arrunt eta eguneroko zenbait bizipenen bigarren dimentsioa agertzen zaigu, gogoeta filosofikotarako bide eman diezagukeena. Interpretaziorako ere, ate asko irekitzen digu, eta irakurleak bertan, bizipen batzuren arteko antzekotasun kasual bitxi bate-tik, termino abstrakto batzuren dimentsio berri baten sakontasun bateraino doakeen interpretazioabaniko zabala topa dezake.

Esan daiteke, bestalde, erratzeko beldur handiegirik gabe, heriotzak autorea kezkatu egiten duela, ametsa eta amodioa kezka dezaketean heinean, eta horregatik edo, kezka-bide horretan sartzera konbidatzen duela irakurlea.

Autoreak hiru hausnargai nagusi dakarzkigu: ametsa, amodioa eta heriotza. Berak maila berean jartzen ditu «ohantzearen» bidez, beraz esan liteke berarentzat berdinak direla neurri baten behintzat.

Esan daiteke ere, eta lehen aipatu dudan puntu baten ildotik, heriotza —gehiago edo gutxiago— edonor kezkatzen duen gaia dela. Badakigu ere, maitatu, hiltzeraino egin daitekeela, eta ametsetan ere hil egin daitekeela baina idazleak errealtate fisiko eta hurbilago aurkezten digu. Eguneroko sartzan garen «ohantzean» bertan, ametsa, amodioa edo heriotza egon daitezke, guk gauero puntu horri erreparatzen ez badiogu ere. Badirudi begiak zabaldu nahi dizkigula egunerokotasunetik hazago sakontzera bultzatuz.

Hau, noski, logika-joku ingeniosoen bidez lortzen du. Errealitatetik abiatu, logika aplikatu eta ondorio harrigarrietara heldu.

Irakurlearen jarrera era askotakoa izan daiteke presentatzen zaion planteamentuaren aurrean; edota orain arte erreparatu ez dion puntu batez ohartu edota hain era simple eta errezean planteatzen zaiona sakonago analizatzeko gogo hartu.

Nik uste dut posibilitate horien artean koka daitekeela autorearen asmoa irakurlearekiko. Baina edozelan ere, ez dio bortitzegi eragin nahi: dei-funtziorik egon eza eta hirugarren pertsonaren erabilera izan daitezke horren lekuko.

Esandakoa laburbilduz, zera esan daiteke:

Irakurlego zabal-zabal bati zuzentzen zaio idazlea poema honen bidez. Poesia laburra, argia, ulerterreza eta edonork dekodifikatu eta interpretatzeko modukoa dugu berau. Irakurlea ez da zuzen-zuzen inplikatzan. Autoreak planteamentua aurkezten du irakurleari erreferentzia zuzenegririk egin barik.

Poesiak bestalde, gogoeta eta hausnarketarako bide zabala eskaintzen du.

Eta azkenik esatea, poesiaren protagonista gizasemea izateak, are dimentsio haundiagoa ematen diola irakurleagoaren zabalerari; noraino eta gizaseme guztiak inplikatzera.

5. ONDORIOAK

Arlo desberdinetatik ateratako ondorioak batzen dituen azken atal honetan, poesiaren orokortasunean jarri ditut begiak, poesiaren barne-batasunari begira, poema unitatea denez.

Poesia honetan zenbait dikotomia aurkitu dut —kasuren baten trikotomia ere— obraren barne-sarea eraikitzen dutenak:

Hizkeran topatu dut lehenengoa. Alde batetik hizkera arrunta darabil Sarrionandiak, hau da, lexiko sinplea eta egitura morfosintaktiko tolesgabeak; baina bestetik ere, oso hizkera poetikoa, adierazleen aukeraketa zehatz baten ondorioa: musikalitatea, erritmoa, eufonia, eta abarren aldetik.

Hizkera honen lekuko ere, ekialdeko euskalkien berben presentzia —Sarrionandiaren ezaugarri orokorra azken hau— testuari halako kutsu exotikoa ematen diona: «ohantza», «unatua». Esanahiari begira, beste dikotomia batekin egin dut topo. Bateko, esanahi sinplea dugu, edonork ulertzeko moduko planteamentu batetik datorrena. Logikaren ildotik sortzen dena. Eta besteko, sakona, arazo metafisikotaraino zabaldu daitekeen esanahi ezkutua.

Estiloan, ostera hirukoiztasun baten aurrean suertatu naiz: batetik estilo sinplea dugu, ornamentu eta jantzi askorik gabekoa alegia. Bestetik, oso estilo pertsonala, elementuen erabileraren orekaren aldetik zein adierazleen aukeraketan. Eta azkenik, saiakera edo entsaio estiloaren usaina hartzen diot, bere bizitzarekiko filosofia isladatzen duen aldetik.

Eta azkenik esango dut, Sarrionandiaren poema hau, oreka (barnekoerentziaren aldetik) eta desoreka (interpretazio-bideen ugaritasunaren aldetik) maisuki bateratuak agertzen dituen poema dela.



PAUSALEKUA

Ez dut aurrerapausorik eman nahi!
atsedenpausarik bai!
lasai!
zai!
zai egon...
lasai egon...
egonean egon... egon...

nekatuta nago,
 unatuta,
 abailduta,
 akituta,
 akitu...ta...kitu!
 geldi bedi lehengo indarra
 aurrera segi beharra
eta egon nagoela, idatzi, nire arpegi izkutua
 erakutsi
 idatzi, asko edo gutxi
baina idazteari
 eutsi

zirriborroz bete orri zuria
hutsaren jakituria
idatzi nahi dut idatzi
gaur, bihar eta etsi ... penaren orduan
naufraoen moduan
ito barik ordea
ura belaunetik behera dudala
gaur, eta eskua paper gainean
gaur, idazteko ahaleginean
gaur, ura gelditu nahian bezala
Ez bilatu zentzurik, ez belaunik ez urik
idazten ari naizela
naufraoek bezela
Ez bilatu gehiago... egonean bait nago.

Joseba Santxo





DEUSTUKO UNIBERTSITATEA
ARGITARAPEN SAILA

UNIVERSIDAD DE DEUSTO
DEPARTAMENTO DE PUBLICACIONES